



euskaldun abertzale
baten burutazioak

PAKO SUDUPE

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

PAKO SUDUPE

euskaldun abertzale baten burutazioak

Zuzeu-n argitaratutako artikuluak

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

1. Gaztelania boterearen hizkuntza Katalunian (2020-09-15)
2. Carles Puigdemont: Independentzia aldarrikatu ez izanaren damua (2020-09-22)
3. Gaurtik fikzioa euskaraz hedabide publikoetan (2020-10-13)
4. Ertzainak eta euskara (2020-10-19)
5. Euskaraldiak albo-kalterik bai? (2020-11-02)
6. Andima ibinagabeitia: abertzale handia eta euskaltzale bikaina (2020-11-04)
7. UPV/EHU: euskaldunon estatusaren erretratua (2020-11-10)
8. NAPARRA kasu irekia. Jon Alonso. Elkar. 2020 (2020-11-18)
9. Borondatezkoa eta derrigorrezkoa (2020-11-23)
10. Euskaraldian, Odriozolaren Euskalgintzaren lekukoak berrirakurtzen (2020-11-26)
11. Eskolan euskaraz mintzatzeagatik, mihi-haria moztu eta buruan zauria egin! (2020-12-01)
12. J.L. Vilallonga Castellvelleko markesa zenaren aitortza (2020-12-09)
13. Gaizka Garitano euskaltzalea Athleticetik kanpora! (2021-01-09)
14. Telesforo Monzonen heriotzatik 40 urtera (2021-01-26)

15. Hizkuntza-berdintasuna: ipuina eta ametsa! (2021-03-02)
16. Arnasguneak gogoetagai. 2021-03-22
17. Larrialdi linguistikoaren aroan (2021-04-28)
18. Autodeterminazioaren beharra (2021-05-12)
19. Selektibitatea eta hizkuntza-literaturak (2021-06-07)
20. Heribert Barreraren ikuspegi jeniala (2021-06-21)
21. Gaztelaniaz idaztea, banitate kontua! (2021-06-28)
22. SPD eta PSOE Espainiako trantsizioan (2021-07-05)
23. Espainiako 1977ko hauteskundeak Konstituzioaren atariko (2) (2021-07-12)
24. Nazioa eta nazionalitateak (3) (2021-07-)
25. Autodeterminazio erreferendum proposamena Konstituzioaren debategan (4) (2021-07-26)
26. Hizkuntzen hierarkia Espainiako Konstituzioan (eta 5) (2021-07-30)
27. Hitanoa (2021-08-02)
28. E. Hemingway: Fiesta (Itzul.: Koro Navarro) & A. Kollontai: Erle langileen amodioak (Itzul.: Aroa Uharte) (2021-08-10)
29. Euskal Osakidetza (2021-08-13)
30. Abertzaletasun *zibikoa eta *etnikoa: nazionalismo frantsesa eta alemana (I) (2021-08-19)

31. Jainkoa izan, “errealitatean” pixka batetik askoraino izan liteke (eta II)
(2021-08-)
32. Andorran, katalana hizkuntza ofizial bakar (2021-09-08)
33. Espainiako indar faktikoengatik bereziki (2021-09-15)
34. Natural-natural? (2021-10-02)
35. Basque Culinary Centerrek hamar urte (2021-10-05)
36. Independentziarako bidea “alde bakarrez” hasteko proposamena (2021-10-12)
37. Komunikazioaren eta transmisioaren garrantzia (2021-10-20)
38. Espainolak izateari utzi dioten katalanak (2021-10-29)
39. Egunkaria. Gizarte zibilaren arrakasta. Joan Mari Torrealdei Nabea (2021-11-26)
40. Euskaldunak garelako euskaraz, ala euskaraz ari garelako euskaldun?
(2021-12-)

Hitzaurrea

Euskara erabiltzea ez da beharrezkoa Euskal Herrian; aldiz, gaztelania Euskal Herri penintsularrean, eta frantsesa, kontinentalean, bai. Espainiako erresumako 78ko Konstituzioak 3. artikuluan, eta Frantziako Errepublikako 1958ko Konstituzioak bigarreanean, hala jasotzen dute. Horrek hizkuntza-politika guztia baldintzatzen eta mugatzen du euskararen ezagutza eta erabilerari dagokionez. Euskal Herrian euskara derrigorrezkoa ez, baizik eta borondatezkoa izateak eta euskararen egoera soziolinguistikoak euskaldunok euskaraz gutxiago eta erdaraz gehiago bizitzera kondenatzen gaitu, hein handi batean.

Eta hori, jakina, ez da 1958 edo 1978tik honakoa soilik; askoz lehenagokoa da –oroit, eraztunaren eta antzeko makilatxo eta gainerakoen erabilera bidegabea, eta erabilera makur horren ondorioak--; lehen Modernitatetik bai baitator jadanik –guretzat, Errenazimenturik ez zen izan--, eta areagotzen da Ipar Euskal Herrian batez ere Frantziako Iraultzaz gero, eta Hego Euskal Herrian, XIX. mendean konstituzio liberal-zentralista espainola finkatuz joan ahala.

Denok dakigun bezala, Euskal Autonomi Erkidego osoan euskara ofiziala da eta badugu Euskara normalizatzeko legea 1982tik, eta Nafarroako Foru Erkidegoaren zati batean ere ofiziala da -eremu hori ere bitan banatua; eremu mistoan, ofizialtasun gradu apalagoarekin- eta bada Nafarroa Garaian ere, euskarari buruzko 1986ko Foru Legea, eta horrek abantaila batzuk ekarri dizkigu azken hamarkadotan, bereziki hezkuntzan, administrazioan eta hedabideetan, baina betiere gaztelaniari bere posizio hegemonikoa aitorturik eta lehiatu gabe, eta horrek hizkuntza aldetik harreman tirabiratsuan paratu gaitu, eta euskara indartu ezinean corpusean, eta batez ere estatusari dagokionez.

Bizkitartean, badirudi EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoko agintarientzat, oro har, abertzale askotxo barne direla, hizkuntza-politika ondo doala. Ez dute pertzepzio bera Katalunian katalanari dagokionez, eta denok dakigu gu baino hobeki daudela hizkuntzaren erabilerari doakionez, nahiz azken hamabost urteotan nabarmen behera ari den han ere, eta estatuaren aldetiko erasoak ere badiren.

Europara begira jarrita, garbi ikusten da hizkuntza bat baino gehiagoko estatuetan, haiek estatu-hizkuntzak direnean, lurralde eskubideak defendatzen dituztela; begira, urrunagora joan gabe, Suitzara edo Belgikara, non alemanak, italierak, frantsesak eta nederlanderak eremu geografiko jakinak dituzten berentzat hartuak; eta estaturik gabeko nazio hautsietako hizkuntzetako hiztunek, aldiz, kasu, bretoiak, galestarrak, galiziarak, katalanak edo euskaldunok, onenean, eskubide indibidualak ditugu eta ez lurraldekoak geure jatorrizko eremu propioetan.

Gure hizkuntzen eta gure nazioen menpekotasun politiko-kulturalak senidetzen gaitu eta sarri-askotan elkarri begira jartzen, gorago aipaturiko estaturik gabeko hizkuntzak hitz egiten ditugunok –katalana estatu-hizkuntza ere bada Andorran, baina salbuespena bere eremu geografiko osoa kontuan harturik-. Horregatik, honako artikulua hauetan presentzia handi samarra du Kataluniak eta katalan hizkuntzak, azken urteetan bereziki politikoki, borroka gogorra egin dutelako katalanek eta hartan dirautelako orainokoa, zatiketak zatiketa. Bi estatu boteretsu berek mugatzen gaituzte, zeinek gure nahi politiko eta linguistikoak zigortzen eta zapuzten dituzten, bertako kolaboratzaileekin batean, autodeterminazioa ukaturik, eta erdara inposaturik, eta sarri askotan etsipenera edo asimilaziora garamatzatela.

Gure zapalkuntza historikoa kontuan, eta gure hizkuntza eta nazioaren mendekotasuna, euskara bai baina erdara ere bai ariturik, biak maila berean baleude bezala, euskarak mendeetako bazterketa eta gutxiespena pairatu ez balu bezala, eta autonomia lorturik biek eskuak libre balituzte bezala, gizartearen askotarikotasuna maiz gure hizkuntzaren egoera kaskarraren zurigarri dela, eta erdara edo euskara erabili euskaldun izateko berdin balitz bezala jokaturik eta aldarrikaturik, euskaldun gisa bizirik jarraitu ote dezakegu XXI. mende teknologiko eta globalizatu honetan?

Kezka nagusi horiek bultzaturik sorturiko idatziak dira hemen bildutakoak. Eguneroko bizitzan edota egunkarietako artikuluetan edo liburuetan zer-pentsa emandako gaien analisia eta ikuspegiak daude jasoak eta garatuak.

Euskaldunon arazoak euskaraz normal bizitzeko, eta politikoki askeak izateko oztopoak, eta haiei buelta emateko egiten diren proposamenen analisiak eta kritikak. Iragan hurbilaren ezagutzaren transmisioa xede, orainaren argigarri izan nahian, eta etorkizun hobe bat irrikatuz.

1. Gaztelania boterearen hizkuntza Katalunian (2020-09-15)

Tesi nagusia horixe du Enric Gomá idazle eta hizkuntza-dibulgatzaileak aurten argitaraturiko *El castellà, la llengua del costat liburuak*. Gaur egun oso arraroa da gaztelaniaz ez dakien katalanik aurkitzea -Ipar Kataluniako hemezortzi mila katalan alde batera utzita behintzat-; baina nola heldu da gaztelania Katalunian hain ezaguna eta erabilia izatera?

Zuzeu-ko irakurleari berehala etorriko zaio gogora horrelako pentsamenduren bat: euskara Euskal Herrian bezalatsu!, hots, era askotako inposizioz, eta ez dabil oker, erabat harturik, baina xehetasun bereizgarriek badute beren munta, eta horregatik interesgarria gertatzen da euskaltzaleontzat, eta irakaspenak ateratzeko.

XV-XVI. mendeetan hasten da jada Katalunian gaztelania sartzen. Inkisizioak haste-hastetik gaztelaniaz egiten du. Jesuitak ere aitzindari dira Katalunian gaztelania erabiltzen, Euskal Herrian bezalatsu. Eskolapioak ere nabarmentzen dira gaztelaniaren erabileran, eta, harrigarri gerta badaiteke ere, Montserrateko beneditarrak ere bai. Horietaz gain, gotzain gaztelaniadunak -Carlos I.ak 1526tik aurrera Vatikanuari aurkeztuak eta hark onartuak-, eta Aragoiko Koroako funtzionario gaztelaniadunak halaber -gogora Aragoiko erresuman, Aragoiko gaztelaniadunetz gain (XV. mendera arte edo Aragoiko erromantzez, eta aurrerantzean gaztelaniaz), Printzerri, Valentziako eta Balear uharteetako katalanak eta Sizilia eta Sardinia italiarrak zeudela-, baina gatozen denboran jauzi bat eginda, 1714ko okupazio militarren ondotik, 1716ko “Decreto de Nueva Planta”-n Gaztelako Kontseiluak eman zuen gomendio honetara:

Que, en todas las escuelas de Primeras Letras y de Gramática, no se permitan libros impresos en lengua catalana, escribir ni hablar en ella dentro de las escuelas y excepcionalmente aprendan la Doctrina Cristiana en nuestra lengua, que por estos y otros medios suaves [azpimarra neurea] se irá haciendo común en el Principado (74 or.).

Gaztelako Kontseiluko fiskal Rodrigo Villalpandok berriz, “sin que se note el cuidado” ziotzen Kataluniako korregidoreei, 1716an igorritako Instrukzio Sekretuan:

...el genio de la Nación como el de los catalanes es tenaz, altivo y amante de las cosas de su País, y por esto parece conveniente dar sobre esto instrucciones y providencias muy templadas y disimuladas, de manera que se consiga el efecto sin que se note el cuidado. (75 or).

Joan Mari Torrealdai zendu berriari gauza berbera irakurria diodala esaten dit oroimenak. Filipe V.aren 1717ko ebazpen batean, berriz: “Se procure mañosamente ir introduciendo la lengua castellana en aquellos pueblos”. Eta 1770an, Kataluniako Elizako agintariek:

No puede negarse que la diversidad del idioma causa extrañeza i [sic] retarda el enlace. La uniformidad de lengua no puede lograrse sino con el beneficio del tiempo y por medio de las providencias suaves de que tenemos muchos ejemplares (Ib.).

Horra, bada, lehen irakaspena gaztelania, katalana, euskara edo beste edozein hizkuntza hedatzeko: okupazio militarra lehenik, eta funtzionario zibil eta erlijioso katalan edo euskaldunen hedapena

ondotik, hau da, boteredunen hizkuntza gisa kokatzea bere herrian edo aldameneko herrian, eta aginduzko neurri leun eta eztiak ezartzea, hartara hizkuntza berez bezala, ezari-ezarian, hedatzen eta nagusitzen joan dadin.

Eta botererik ez baduzu? A, orduan, kostatuko zaizu bi txanpon, asimilazioa eta elebitasun behartua eta diglosikoa nagusitu daitezen saihestea, zeure herrian bertan.

Neurri leunek arrakastarik izan ezean, neurri zakarrak -hala izan zen Carlos III.aren 1768ko Errege Zedula. Neurri leunen eta zakarren aldizkatzea, horrenbestez! Hala eta guztiz ere, XVIII. mendearen amaieran katalan herritarren %10ak omen zekien irakurtzen eta idazten, eta gaztelaniaz irakurtzen eta idazten zekitenak %10a baino gutxiago bide ziren, eta eguneroko ahozko harremanetan apenas erabiltzen zuten gaztelania.

XIX. mendea garrantzitsua izan zen katalanek gaztelaniaz ikasteko eta espainol sentitzeko, nahiz eta gaurko egoerara heltzeko garai erabakigarriena frankismoa izan zen. XIX. mendean, frantsesen aurkako gerraren (1808-1814) ondoko epealdia erabakigarria izan zen, bereziki 1833tik 1860rako urte bitartea, 1838ko Irakaskuntza Legea eta halaber 1857ko Moyano Legea bitarteko zirela, haur guztiek gaztelania ikasten has zitezen behintzat. Katalan noble eta burgesek XIX. mendean, lehen mailako espainolak izatea nahi zuten, eta ahaleginak eta bi egin zituzten gaztelaniaz gaztelauek baino hobeki ikasteko.

XIX. mendearen azken herenera arte, inork ez zuen proposatu katalan hizkuntzak gai izan behar zuela erabilera guztietarako, bereziki erabilera landu, akademiko eta administratiboetarako.

Bere bizitzako azken urteetan, 1895 baino lehen (Tarragona. 1852-1895), Josep Yxart literatur kritikariak defendatu zuen beti katalanez idaztea komeni zela bizitzako arlo guztietan:

No se piensa nunca en lo que sería la literatura catalana (toda ella: poesía, historia, periodismo, documentación oficial, etc.) si hubiéramos seguido constituyendo verdadera nacionalidad con lengua propia. (...)

...los literatos catalanes se hallan hoy con dos lenguas, que es no tener ninguna; porque nadie puede negar que este singular estado bilingüe esteriliza por lo menos la mitad de nuestras tareas y acota y limita nuestro campo, colocándonos en posiciones desfavorables (205 or.).

Liburuaren amaieran dio Enric Gomà idazleak Kataluniaren gaztelaniartze progresiboak eraldakuntza nabarmenak ekarri zizkiola katalan hizkuntza, kultura eta katalanen autoestimuari. Beraien mintzoa patois bat ez, baizik eta hizkuntza bat zelako kontzientzia atxikitzeak, eta erakunde propioak, erresuma bat, gorte bat, estatu bat behiala izana gogoratzeak salbatu zituela. Naufragioak gorabehera, katalanak jarraitzen zuen hizkuntza bat izaten, katalanen hizkuntza alegia.

2. Carles Puigdemont: Independentzia aldarrikatu ez izanaren damua (2020-09-22)

2017ko urriaren 10ean, artean urriaren 1eko erreferendum arrakastatsuen aparrean, Espainiako gobernuak 155. artikuluko zoritxarrekoa prestatu gabe zeukala, zergatik ez ote zuen independentzia aldarrikatu? Damu bakar horixe du Puigdemontek. Eta etorkizunari begira konbentzimendu irmo bat: Espainiako estatuarekin konfrontazio demokratikorik izan gabe, autodeterminazio erreferendumik ez dela izango eta, beraz, independentziarik ere ez. Eta independentziarik gabe, Katalunia nazioa ez da izango, erregioa bai, baina nazioa ez; hala dio berriki argitaraturiko La lluita a l'exili deritzan liburuan, M'explico liburuaren jarraipenean.

Berak dioenez, Puigdemont sartu zen politikan katalanen hizkuntza defendatzeko, eta Espainiak eta Frantziak ez dute katalan hizkuntza defendatzen; onest omen da hala aitortzea. Katalan hizkuntzari buruzko bi erreferentzia baino ez daude liburu berri honetan, eta aurrekoan ere apenas. Bata, horixe, politikan katalanen hizkuntza defendatzeko sartu zelakoa -eta ezin da gutxietsi aitorten horren balioa-, eta bestea, Bruselan, 2019-03-4an, Plataforma per la Llengua Europako Parlamentuan antolatutako "The Catalan Language: 10 Million European Voices" zeritzan erakusketan parte hartu zuela jakinarazteko (228 or.).

Espainiako botere faktikoekin daramaten borroka gogor honen buruan eta baitan, hizkuntzarena oso isildua edo isilarazia dute, komeni ez delakoan, hain segur. Hala ere, bere zailtasunekin, noski, nik uste Kataluniako errepublika independentean lortuko luketela katalana asko baino lehen gailenaraztea; hots, batak bestea ekarri ahalko lukeela, epe ertainera edo! Gurean, zailagoa geneukake!

Jakina denez, duela hiru urteko urriaaren amaieran, erbestera jotzea erabaki zuen Puigdemontek. Beste kontseilari batzuek ere hala egin zuten (Belgika, Suitza, Erresuma Batua), eta Junqueras lehendakariordeak Katalunian gelditzea erabaki zuen, beste kontseilari batzuek bezala, eta Katalunian geldituak kartzelan daude, salbuespena salbu. Ez zen estrategia bateraturik egon govern-eko kontseilarien artean. Nork asmatu zuen: erbestera jo zutenek ala etxean gelditurik, espetxeratuak dituztenek?

La lluita a l'exili liburuan kontatzen du zer gorabehera bizi izan dituen Espainiako justizia politizatuak emandako hiru euroaginduri aurre egiteko, eta nola lortu duen, azkenik, Europan askatasunez ibiltzeko eskubidea eta Espainiako sistema auzitan jartzea: nola da posible Europan libre ibiltzea -ez da denbora asko Ipar Katalunian izan zela, mugatik hamar bat kilometrora, hots, Frantziako estatuan-, eta, aldiz, Espainiako estatuan hanka bat jarriz gero, atxilotu eta kartzelatzeko agindua egotea indarrean? Frantziako estatua Kataluniako errepublika askearen aurka dago Espainiakoa bezainbeste, baina errespetatzen ditu Europan estandar demokratikoak eta Espainiak ez.

Hedabide espainiarrek zabalduagatik Puigdemonten erbestea urrezkoa dela, ez du bizimodu samurra izan. Danimarkan hitzaldia egitetik itzulian, Alemanian atxilotu eta 16 egun igaro zituen kartzelan. Orduantxe hasi zen garbi gelditzen Alemaniako justizia, eta, esan liteke Europakoa, eta Espainiakoa, zorionez, biga zirela. Libre atera zen Alemaniako justiziaren eskuetatik, eta Belgikan ere bai. Azkenean, lortu du Europan libre ibiltzeko eskubidea, askotxo kostatu bazaio ere. Baina ez da batere samurra izan.

Hitzaldi asko egin ditu European. Behin baino gehiagotan izan da Londresen, Berlinen edo Hamburgon, edota Zurich edo Genevan, eta Danimarkan eta Finlandian. Esaterako, Londresen, 2018-12-13an, Frontline Club delakoan, hirurogeita hamar bat nazioarteko kazetariren aurrean egindakoan, Esloveniaren independentziarako prozesua goraipatu zuen eta serbiar bidea gaitzetsi. Puigdemont bera egon zen Eslovenian independentziaren aldarrikapenaren ondotik, eta han herri baketsu bat ikusi zuen demokraziarekin konprometitua eta yugoslaviar armadak bidegabeki erasotua. Esloveniako herriak baketsuki autodeterminazio eskubidea gauzatu zuen, eta etsenplu eman zigun. Serbiak ez.

Espainiako estatuari galdetu behar zaio ea prest dagoen biolentziari uko egiteko, baldin eta Kataluniak alde bakarretik independentzia aldarrikatzen badu, edota autodeterminazio eskubidea gauzatze aldera egin behar duela iruditzen zaiona egiten badu? Bada garaia Espainiako gobernuari entzuteko biolentzia erabiltzeari uko egingo diola katalanek estatu independentea sortzeko duten nahia gudukatzeko (168 or.).

2019ko otsailaren 12an, Berlinen izan zen, gonbidatu berezi gisa "Cinema for Peace" zinemaldiaren ohorezko galan. Veronika Nikulshina (Pussy Riot punk rock taldeko kidea) eta Piotr Verzilov ekintzaile errusiarrek "Europako errepresaliatu ezagunen eta aitortuen" gisa aurkeztu zuten. Madrilen biharamunean hastekoa zen epaiketa bidegabeaz mintzatu zen: "Gure presoek galdegin didate geldirik ez egoteko egunotan, Waterloo ez gelditzeko, baizik eta epaiketaren bozeramaile izateko eta kausa nazioartekotzen jarraitzeko, eta hala egiten dut. (...) Mundu guztiak ikusi behar du". Nahiko adibide dira. Ez da geldirik egon Belgikan, baizik eta katalanek beren etorkizun politikoa erabakitzekeo duten eskubidea aldarrikatzen eman du denbora Europako hiriburua nagusietan hitzaldiak eginez.

Eta katalan alderdiekiko harremani dagokienez?, nola konpondu da, esaterako, Espainiako justiziak sedizioa eta diru publikoaren erabilera bidegabea leporaturik 13 urteko espetxe zigorrera eta inhabilitaziora kondenatu duen Oriol Junquerasekin? Harik eta Le Figaro frantses egunkariak Junquerasi egindako elkarrizketa argitaratu arte ahalegindu zen ongi konpontzen, baina elkarrizketa hura ezin jasanezkoa gertatu zitzaion, eta moztu egin zuen alderdi independentisten batasuna galdegiteari eta gogoz kontra hauteskunde lehiari ekin zion, eta ez zaio gaizki joan. 2019ko maiatzeko bozetan, Junts-Lliures per Europa izeneko hautagaitzarekin, Puigdemont, Comín eta Ponsatí buru zirela, Espainiako estatuan milioitik gora boto lortu zituzten, Katalunian 987.149 boto. Beraz, eurodiputatua da.

Zer esan zion Junquerasek Le Figarori? Bera Katalunian gelditu zela herritarren alderako erantzukizunagatik, jakinik segur aski espetxea ekarriko ziola. Sokrates, Seneka eta Ciceronek ere izan zuten ihes egiteko aukera eta uko egin zioten. Askok hunkitzen zuen filosofo horiek izandako erantzukizun zibiko eta etiko hark. Puigdemonten jokaerari buruz, adierazgarriro, hitz erdirik ez.

Ikaragarri mindu zen Puigdemont. Justu, aurreraxeago, Puigdemont eta Junqueras elkarrekin artikulua bateratu bat argitaratzekotan ziren The Guardian egunkarian, Puigdemonten ekimenez, eta zer da-eta, frantses egunkariari erantzukizun etikoagatik gelditu zela, eta Puigdemonten jarrerari buruz, deus ez. ERCko Marta Rovira eta CUPeko Anna Gabriel Suitzan daude erbestera; ez bakarrik Puigdemont eta haren sokakoak.

Gisa da Puigdemontek bere hautua defendatzea, erbestean espetxean baino lan gehiago egin daitekeela eta hala ari dela argudiatzea -govern guztia Belgikan egon balitz, askoz gogorragoa izango

zela Espainiako estatuari egindako presioa, pentsatzen du-, eta, alderantziz, Junquerasek aldeztea espetxean egonik, katalan herriagatik sufritzen, gehiago egiten ari dela, baina distantzia batetik begiraturik, eta ikuspegi independentistatik, aitortu beharra dago ERCren une honetako jokabideak ez daramatzala autodeterminazio eskubidea gauzatzera baizik eta, onenean, EAEn daukagun moduko egoerara.

ERCK bere jokaera itunzalea defendatzeko darabilen argudio nagusietakoa edo nagusia da oinarri independentista zabaldu beharra dagoela, hots, %48 ez dela nahikoa. Lovainako unibertsitate katolikoan, 2018-11-28an egindako hitzaldian, galdeturik 2017ko urriaren 1ak legitimitaterik bazuen?, honela erantzun zuen Puigdemontek: azken astuburuan Suitzan egin diren hiru erreferendumentatik batek ere ez du lortu %50eko partaidetza. Brexita Erresuma Batuko populazio osoaren %37,4k bozkatu zuen. Eta Espainian, Europako Konstituzioari buruzko erreferendumean %40,3k hartu zuen parte eta bakarrik %31k bozkatu zuen alde, eta NATOn sartzea ere espainiarren %31k erabaki zuen.

Oso garbi dauka Puigdemontek Kataluniako errolda osoaren %55 independentista izanik ere, Espainiak ez lukeela Kataluniaren independentzia onartuko -bere hausnarketa bat hauxe da: Rajoyrekin, edo are Sanchezekin ere, ezin duzu hitz egin ere aberriaren batasunaren inexistentzia posiblearen ideiaz. Haientzat zerutiarra da Espainiaren batasuna, sakratua. Errazagoa lizateke Aita Santuarekin Jainkoaren inexistentziaz mintzatzea-.

Damu da 2017ko urriaren 10ean, alde bakarreko independentzia aldarrikapena egin ez izanagatik, baina, bere ustean, Espainiak ere gaizki jokatu zuen katalanek eskainitako elkarrizketarako leihoa itxita, zeren horregatik saihestezina da hirugarren alde bat egotea Espainiarekiko zeinahi negoziatuz, ez direlako fidagarriak, engainatu egin zituztelako hain zuzen. Pandemiak gauza guztiak baldintzatu baditu ere, proçesa hor da latente, alderdi independentista nagusiak bateratu ezinik direla. Espainiako gobernuaren ezetzak eta behin eta berriroko engainuak elkar ditzake hain segur, eta beldurrak beldur, era batera edo bestera independentziarako bideari berriro ekin!

3. Gaurtik fikzioa euskaraz hedabide publikoetan (2020-10-13)

Kirolak leku aparta du EITBn, nork uka! Denok dakigu euskaldun mota bat oso kirolzalea dela, hasi herri-kiroletatik eta pilota-futbol-saskibaloitennis eta txirrindularitzaraino, kirol ikusle eta hedabideetan kirol-kontsumitzaile handia, eta horrelakoek, dudarik gabe, eskertzen dute dagoen eskaintza zabal hori.

Euskaldun batzuk kirol epikaren zaleago dira fikziozko istorioetako lirika eta dramatikarena baino, batez ere, gizonak. Beste euskaldun mota bat, berriz, fikzio eta istorioen zaleagoak, nahiz eta bi zaletasunak pertsona bakar eta berarengan bildu ezinik ere ez dagoen, noski! Behintzat garbi dago euskaldun guztiok ez garela kirolzale amorratuak eta fikzioaren gorroto. Gaur egun nork ez du Netflix edo gisakoetan telesailik ikusi?, nori ez zaio gustatzen filmak ikustea telebistan? Bada, bigarren mota honetako euskaldunak ez dauka zer eskerrak emanik EITBri, hark fikzio aukera zabala eskaintzen diolako.

Eta bizkitartean gutako askoren desira eta eskaria da, ez banaka batzuen apeta edo tema. Berria egunkarian, esaterako, J.L. Zabala kazetari eta idazlea aspalditik ari da fikzioa euskaraz aldarrikatzen, bertan egina edo/eta bikoiztua, zeren herri txikia izanik, literaturan itzulpenen beharrean garen bezala, fikzioari dagokionean ere, beste horrenbeste, bikoizketen beharrean garenez gero.

Berriki Argia astekarian Xabier Letonari irakurrik Enric Marín Otto irakasleak katalanaren egoeraz “Euskarazko komunikazioa 2020ko hamarkadan” ikastaroan adierazitakoak, are garbiago ikusi eta sentitu dugu zer-nolako garrantzi itzela duen helduentzat ez ezik haur eta gazteentzat, haiek eta hauek euskal sareetan nabigatzen ikusi nahi baditugu.

Aipaturiko irakaslearen arabera, 1980tik 2000ra, katalanaren berreskuratze prozesu nabarmena gertatu zen; 2000tik 2010era geldialdia, eta 2010tik 2020ra pixkanakako atzerakada. Eta atzera, batez ere umeen eta gazteen artean egin du katalanak. Haiek berehala murgiltzen direlako OTTn (Over The Top: Netflix, Google, Amazon...), eta bizitzarekin, sozializazio eta abenturarekin lotzen dituzten programak edo ikusgarriak gaztelaniaz eta ingelesez jasotzen dituztelako, eta ez katalanez.

Gurean ere, antzekoa gertatu da, 2000. urteraino hortxe nonbait igoera; gero geldialdia eta pixka bat behera. Eta gazteengana etorri, Soziologia Klusterrak berriki gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreen gainean egindako azterlanaren arabera -Gernika, Zornotza, Pasai Donibane eta Zumaiako gazteak-, besteak beste, sare sozialak eta ikus-entzunezkoak axola handikoak dira erabileran eragiteko:

Familia eta eskola zutabeak dira, baina erabilera sostengatzeko ahalmen mugatua dute. (...) Sare sozialak, ikus-entzunezkoak, musika, moda, kirola, kuadrilla, lokalak, diskotekak, jaiak... gazteen mundua betetzen duten elementu, produktu eta praktika dira, eta hor euskarak oso toki gutxi dauka. Gazteen kulturak eta euskarak bat egiten ez badute, erabileran eragiteko aukerak oso mugatuak izango direlakoan gaude. (Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. Soziolinguistika Klusterra. 2020ko maiatza).

Ildo beretik, aipatu zuen Enric Marín Otto irakasleak bi tren erraldoi ditugula hartu beharrekoak katalanak edo euskarak aurrera egitea nahi badugu: OTT eta 5G iraultza teknologikoa. 2025erako,

Europar nahiko zabaldua egongo omen da –mugikor guztiek izango omen dute– eta borroka geopolitiko-estrategikoa ekarriko bide du. Azaldu zuenez, azken hamarkada hauetan Espainiako estatua ondo arduratu da esparru horretan autonomi erkidegoak eskumenik gabe uzten, eta katalana eta euskara aurrerarazteko derrigorrezkoa omen da esparru horretan gudukatzea, estatuan bezala Europar Batasunean ere, katalanak eta euskaldunok batera: “Estatuan, euskaldunak eta katalanak batera; eta Europar eskoziarrekin, daniarrekin eta beste hizkuntza txikiago batzuekin, izan hauek estatua edo ez”. Zerrenda hori emateko, egoera linguistikoari baino gehiago politikoari begiratu dio hain segur; bestela, zergatik baztertu galegoa?, eta zergatik aipatu eskoziarrak?

Halaber, gomendatu zuen Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzea.

Zer gehiago jakin eta ikasi behar dugu euskarazko fikzioari benetako bultzada eta aukera eskaintzeko hedabide publiko edo pribatuetan, telesail jatorrizkoak eta bikoiztuak, film jatorrizkoak -ahal bada-, eta bikoiztuak, haur-gazte eta helduon olgeta eta gozamenerako. Denbora pixka bat beharko dugu fikzioa euskaraz dastatzen ohitzeko, baina, jakina, aukerarik eskaintzen ez bazaigu, inoiz ez gara laketuko.

Europako funtsak edo beste edozein funtsa, zergatik ez bideratu fikzioa euskaraz eskaintzeko?, eta katalan irakasleak aipaturiko bi arlo ezin garrantzizkoago horietan (OTT eta G5 teknologia) estatuarekin (edo estatuarekin) borroka egiteko katalan, galego, eta hiztun gutxi(ago)ko gainerako europarrekin batean?

4. Ertzainak eta euskara (2020-10-19)

Aurten, jakina denez, 1993z geroztik -orduan, lehenbizi, 600 eta gero 1.200 plaza atera ziren-, egin den plaza-deialdi zabalena egin da: 700 plaza. Ertzain berriak gai izango al dira euskaraz egiteko?

1993an, ETArek eta Espainiako guardia zibil eta polizien arteko gudua gorienean zegoen, eta EAEn Ardanza lehendakari eta Atutxa barne-sailburu zirela, ertzaintza ere ETArek aurkako borrokan guztiz engaiatua zebilen. Gogoan dut, esaterako, 1991ean, Tturko Ormazabal hernaniarra eraila gertatu zen enfrontamendu armatuak zenbat zeresan eman zuen. Euskal gizartearen zati batentzat, ertzaintza euskal guardia zibila bilakatu zen, eta beste batzuentzat, terroristen aurkako heroiak, guardia zibil eta poliziek batean.

Nik uste, ez zela euskaldun asko aurkeztu plaza haietara, eta euskaraz jakitea ere ez zen eskatzen, zertxobait bakarrik baizik:

11.1.b. oinarri-arauan jaso den prestakuntza aldiaren bigarren fasea bukatzen denean, euskaraz dakiten neurtzeko saio bat egin beharko dute saio-aldiango funtzionarioek. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ematen dituen ikastaroetako laugarren mailari dagokion zailtasuna izango du ariketa horrek.

Euskara maila horrekin, onenean, turista gisa ibiltzea dago euskaraz egiten den lekuetan; kafe bat eska dezakezu edota euskaraz trebatzen lagundu nahi dizunarekin, elkarrizketa labur bat, biok nekatu eta gogaitu arte, baina ez zara gauza elkarrizketa informal xume bat euskaraz egiteko euskaldun arrunt batekin. Orduan sartu ziren ertzainetatik euskaraz normal samar egiteko gai direnak zenbat ote dira?

1993tik 2020ra eginda, denok dakigun bezala, egoera politikoa asko aldatu da, nahi genukeen bezainbeste ez, baina aldatu da, eta oso litekeena da euskaldun gehiago aurkeztu izana.

Oraingo honetan, zer eskatu da? 450 plazetan B2 egiaztatu behar dute, EGAK adierazten duen maila baino bat gutxiago, eta 250 plazak ez dute derrigortasun datarik; horrek esan nahi du maila hori orain ez eduki arren, gerora, epe baten buruan, egiazta dezaketela, esaterako, liberaturik euskaltegiara joanez.

Eskatzen den maila horrek bermatzen al du ertzain horiek euskaraz egin nahi duenari euskaraz egingo diotela? Hizkuntza-eskakizun hori egiaztatua dutenen artean, euskaldun mota ezberdinak egon daitezke. Batzuek, segur aski gutxienak, etxean eta eskolan ikasi dute, eta ahoz maila aski ona badute, baina idazteko ez dute erraztasunik eta ez dira gai EGA (C1) gainditzeko. Horiek badute ahoz gaitasun aski euskaldunekin euskaraz egiteko. Eta B2 eskolan eta/edo euskaltegietan atera dutenek, atera berri badute, badute gaitasuna, baina atera zaharrek, euskaltegitik kanpo praktikatu ez badute, arrazoiz pentsatzekoa da gazteleraz egingo dutela guztiekin. Horixe da errealitatea, halako tipologiakoek ez dituztela euskaldunon eskubideak bermatuko.

Beraz, uste izatekoa da deialdi honetan plaza lortzen duten 700 ertzain horietatik erdia ere ez direla gai izango euskaraz hitz egin nahi duenarekin euskaraz egiteko, eta horrenbestez, lehen hitza euskaraz egiteko eta jarraitzeko; segur aski gaztelaniaz hasi eta buka egingo dutela.

Egia da, bestalde, euskaldun askotxok, badaezpada ere, ertzainari erdaraz egingo diola. Horri buelta emateko jendaurrean ibili behar duten ertzainek ahoz, gutxi gorabehera, EGAK (C1) adierazten duen maila izan behar dute -salaketak eta idazten dituztenek idatziz ere bai-, eta lehen hitza euskaraz egin behar dute.

Ertzain-plaza hauetara aurkezteko gaztelaniazko informazioan, honako gonbidapen hau dator webgunean:

El acceso a la Ertzaintza, como plaza de carácter público, tiene asignado un perfil lingüístico que garantice el conocimiento básico del euskera, pero en el caso de estas oposiciones, no es obligatorio y se valorará en la fase de concurso según el nivel exigido.

Garbi dago mezu hori erdaldunei zuzendua dagoela, eta horrek susmoak baieztatu baino ez ditu egiten.

Badago beste puntu bat mingarria euskaldunontzat deialdi honetan, eta gisa honetako beste deialdietan ere, askorentzat onartezina eta ulertezina ere gertatzen dena, eta da lanposturako eskatzen den hizkuntza gaitasunetik gorako tituluei puntu bat bera ez zaiela ematen lehiaketan, eta, aldiz, atzerriko hizkuntzen tituluei bai. 700 plaza horietako bat lortzeko lehiaketan, EGA (C1) edukitzeak ez dizu puntu bat bera ere ematen eta, aldiz, First (B2 ingelesez) batek bai. Gauza berdina gertatzen da Eusko Jaurlaritzan ez ezik aldundi eta udal batzuetan edo gehienetan ere. Zer motibazio dauka horrela euskaldunak EGA (C1) edo C2 ateratzeko? Bat ere ez. Zer ematen du aditzera horrek?

Benetan ez dagoela administrazio autonomikoa eta tokikoa euskalduntzeko asmo eta borondate argirik, eta amore ematen dela EAE erdalduna nahi dutenen aurrean, euskaldunon mendekotasunari men eginik geure herrian. Kasik 40 urte eta gero holaxe gabiltza, hots, zinez aurrera egin gabe.

5. Euskaraldiak albo-kalterik bai? (2020-11-02)

Euskaraldiaren aurtengo edizioa ezberdina izango da, dena desberdina baita aurten birus malapartatuaren ondorioz, eta, zer esanik ez, jendaurrean eta belarriprest eta ahobizien arteko jokoan oinarritzen den praktika batez ari garenez gero. Prestalanak ondo doazela ematen du. Zortetik onena opa diogu hamabost eguneko hizkuntza-praktikari, eta elkartasun euskaltzalea eskaintzen diegu antolatzaile, bultzatzaile eta parte-hartzaileei.

Hori esanda, gatozen ekimen honek albo-kalterik izan dezakeen erreparatzera. Itzulungurutan astirik galdu gabe, aurrera dezagun sumatzen diogun albo-kalte nagusia: politikariek herritarren bizkar gainean utzi nahi izatea herri erdaldundu hau berreuskalduntzeko erantzukizuna.

Denok dakigu oraindik zenbat hutsune dituen euskararen normalizazioak; esaterako, estatuak EAEn eskaintzen dituen zerbitzuetan: Renfe-n alde-aldera beti “buenos días”, Correos-en askotan “buenos días”, polizia-etxeetan beti “buenos días”. Gobernu autonomikoak askoz gehiago egin dezake eskualdatutako edo eskualdatu gabeko administrazioari dagokionez.

Eskualdatutakotik beraren mendeko administrazioa etorrira: Justizia, Osakidetza, Ertzaintza...; eta euskararen normalizaziorako hain garrantzizkoa den EITBri (bereziki ETB2, Radio Euskadi, etab.) gagozkiola, oraindik orain izendatu dute zuzendari pertsona bat euskaraz (ondo) moldatzen ez dena. Zergatik jazotzen dira gurean Espainian eta Frantzia pentsaezinak eta guztiz onartezinak izango liratekeen gertakariak? Guretzat, garbi gera bedi, euskara eta euskal kulturarik gabe EAE Errioxako edo Kantabriako erkidegoaren pareko bilakatuko litzateke identitate nazionalari dagokionez; badirudi, administrazio autonomikoak ez duela horrela ikusten.

Badaude planteamendu okerrak eta horietako bat pentsabide hauxe da: denok dakigu espainieraz. Ez da kontuan hartzen askotxo gaudela euskaraz egitea nahiago dugunak, eta gure ohiko hizkuntza euskara delako euskaraz egiten ohituago gaudenak edota soil-soilik, euskaldunon hizkuntza euskara delako euskaraz egin nahi dugunak.

Zenbat egiten da euskaraz Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan, udaletan?, eta zenbat gehiago egin dezakete politikariek euren praktikarekin etsenplu emanez? Askoz errazagoa da, noski, hamabost eguneko epean itxura egin, edo gehixeago erabili, onenean, eta handik hamabost egunera betikora itzultzea.

Tabakismoarekin, esaterako, bestela jokatu da. Erretzaileen erantzukizunaren gain ere badago, noski, erretzaile ez direnen eskubideak errespetatzea, baina administrazioak neurri zorrotzak hartu ditu afera horretan erretzaile ez direnen eskubideak babeste aldera. Hizkuntza-kontuan, aldiz, herritarren gain utzi nahi da ia erabat erantzukizunaren zati handiena.

Baldin eta Euskaraldiak aitzakia bezala funtzionatuko balu, hizkuntza-politika ausartagoak ez hartzeko eta politikariek beren ardurak hobeki ez betetzeko, zinez, albo-kalte larria izango litzateke. Aitzitik, politikariak zirikatzeke balioko balu, Kataluniako prozesarekin gertatukoaren antzera, azkenaldian izan dugun euskararen aldeko dinamika eraginkorra bilakatuko litzateke.

Euskaraldiaren arrakasta eta eraginkortasuna gorabehera, euskaldunon biziraupenak araugintza galdegiten du, progresibotasuna aplikatuz eta desberdintasun soziolinguistikoak kontuan harturik, baina 1982ko lege xaharkitua hobetzeari sendo lotuz, gehien-gehiena borondate hutsaren gain utzi gabe, eta betiere politikariek eurek etsenplu emanaz.

PLAZARA GATUZ taldea

NAZIOGINTZA taldea

6. Andima ibinagabeitia: abertzale handia eta euskaltzale bikaina (2020-11-04)

1967ko azaroaren 2an hil zen Caracaseko deserrian, abertzale handi eta euskaltzale ezin bikainago hura.

Asko eman zuen zazpi lurralde historikoz osaturiko Euskadi askatuaren alde, eta are gehiago, Euskadi euskaldunaren alde, gure aberri eta hizkuntzak igaro duen garairik gogorrean, frankismoaren erregimenaren pean, eta, erbestera jo beharrean gertaturik, hogeituro urteko erbestealdiaren ondotik (Paris, Guatemala, Caracas) zendu zen bihotzekoak jota. Merezi du izan duen baino aitortza eta ezagutza gehiago.

Ibinagabeitiak bere adin- eta belaunkideekin ez ezik Txillardegi bezalako gazteekin ere izan zuen gutun-trukea. Txillardegik irakurtzen zuen Caracaseko Irrintzi aldizkaria non euskal idazle emankorrena alde handiz Ibinagabeitia zen, eta Ibinagabeitiak berriz, irakurtzen zituen Txillardegiren nobelak eta artikuluak. Adin, formakuntza eta ideologia desberdintasunak gorabehera, Euskadi aske eta euskaldunaren xedeak lotzen zituen. Txillardegik, jakina denez, eragin handia izan zuen jakinlariengan. Euzko-Gogoa lehenbizi, gero Jakin, eta Egan, eta beste hainbat. Kate beraren begi askotarikoak gara.

Ibinagabeitiaren heriotzaren efemeridea baliatuko dut haren idatzien lagintxo labur bat eskaintzeko. Hona Irrintzi aldizkarian 1958an argitaraturiko artikulu bat "Odol gabeko matxinada" deritzana:

"Euskadi, aspalditik ari zaigu zainak ebakita odolusten, euskara gabetzen. Zainok elkar-itsatsi behar dizkiogu aberri maiteari hil ez dakigun. Nola ordea? Euskarari soin eta gogo, gure indar guztiekin eutsiaz. Horra hor odolik jario gabe egin dezakegun eta egin behar dugun matxinada.

Matxinada horretarako egitarau (programa) txiki bat aurkeztera ausartzen gara, hutsuneak zuek beteko dituzuelako uste osoarekin. Denon laguntasuna behar du euskarak dagoen egoera negargarritik ateratzeko, eta ez dut uste ukatuko diozuenik.

OINARRIAK

I.— Eralguntza honetan parte hartu behar dute Euskadin eta mundu guztian zabaldua dauden euskaldunak oro, gizaseme eta emakume, txiki eta handi, aberats eta txiro, arrantzale eta nekazari, langile eta ugazaba, jakitun eta ezjakin, agintari eta mendeko, herri-gizon eta eliz-gizon, idazle, hizlari, olerkari, bertsolari eta mota guztietako mintzalariak oro. Hitz batean, euskara dakiten guztiek eta ikasi nahi luketenen ere bai, ar eta eme, zahar eta gazte denak nahaste.

II.— Euskara beti eta nonahi erabiltzera behartuko dira, lotsa-konplexua gure artetik zeharo baztertuz:

a) GURASOAK, horiexek baititugu euskararen euslerik nagusienak, euskara erabiliko dute beti euren artean eta senitartean hizkera bakartzat.

b) HERRI-AGINTARIAK saia daitezela euskara bakarrik erabiltzen udaletxetako batzar, eztabaida eta agiri guztietan. Euskara sar dezatela, nahiz eta bortxaz, euren mendeko eskola guztietan, eta euskararik ez dakienik ez dezatela hartu otsein, langile eta oigipekoen artean.

d) ELIZ-GIZONEK euskara erabil dezatela euren artean komentuetan eta elizetan, batez ere herriari Jainkoaren hitza banatzeko orduan, nahiz izan apaiz, lekaide edo lekaime. Har dezatela euskara, behin betiko, euren mendeko ikastetxe eta eskola guztietan kultur-tresna nagusitzat erabiltzeko, baita argitaratzen dituzten aldizkarietan, erdara zeharo baztertzeko.

f) MAISU ETA IRAKASLEEK erabil dezatela ahalik neurririk handienez aberri-hizkera euren mendeko ikastola eta ikastetxe guztietan.

g) EPAILE, LEGE-GIZON, EPAI-MAISU, epaitegi, tribunal eta bestelako toki guztietan erabil dezatela euskara agiri eta hizketaldietan. Eta Auzitegira deitua izango litzatekeen euskaldunak ez dezala erantzun euskaraz baizik.

i) LANGILE ETA UGAZABAK, lantegietan, euskara dezatela hartu-eman guztietan hizkera bakar.

j) SALEROSTE, DENDA eta bestelako garazetan, euskara bedi hizkera nagusi.

k) Orobat ITSAS-GIZON, ARRANTZALE eta NEKAZARIEN artean.

l) IZPARKARI, EGUNEROKO, IRRATONTZI, ZINEMA eta era guztietako zabalkundean, euskara erabil dezatela arduradun guztiek.

m) EUSKO ALDERDI, ERALGUNTZA eta aberri-hotsezko higikunde guztietan euskara bedi hizkera bakar.

III.— Euskal matxinada honetako bazkide guztiak, zinez behartuko dira, Euskaditik, era eta modu guztietara, analfabetoen kasta lotsagarria zeharo erauzi eta kentzeko. Horretarako beren ahalmen guztiekin saiatuko dira euskaldun guztiei euskaraz irakurri eta idazten irakasten, askatasunaren zain egon gabe.

Euskal matxinadaren etsaiak

Eralguntza honek etsaitzat joko ditu, erdara erabiliz euskarari bizibidea ukatzen dioten guztiak:

Abertzaletasunaren larrupean estalita, erdaraz ari diren idazle, hizkari eta aldizkariak oro, geuretik hasita.

. Euskara ukatzen duten Auzitegi eta Tribunalak.

. Euskara ezesten duten izparringi, aldizkari eta abar.

. Euskara ostikopean darabilten herri-agintari eta udaletxeak.

. Euskararen aurka ari diren eliz-gizonak: Obispo, apaiz, lekaide, lekaime eta abar.

. Guraso zabarrak, eta emazteki erdaltzaleak.

. Euskara laidotu eta irainduko lukeen edonor.

Aipatu etsaiak oro, gure indar guztiekin lotsatu eta isiltzen ahaleginduko gara, agerian eta estalian, erruki gabe, beldur gabe, baina gezurrik gabe.

Horra hor, odol gabeko matxinada, hala ere kementsuen matxinada, sendoena, gudari azkarrena, herri osoarena, ez txepelen matxinada, ezta euskotar salduena ere.

EUSKARA, heldu da zure garaia. Euskaldunak, jar ditzagun gure aizkorak sorbatza gora begira, gure hizkuntza ito nahi digun erauntsi izugarriari aurpegi emateko!”

Eta, hona, beste bat, garai berekoa eta aldizkari berean argitaratua, arnas literario gehiagokoa, “Astoaren gorazarre” deritzana:

“Arrantzaka ari omen gara. Hala diote behintzat, biribil-erdi honetan, agertzen den izparkaritzo batean. Eta arrantzalari gogortzat jo gaituzte astoaren izena guri ezartzeko zakartxo edo, aurkitu dutelako. Eta jakina, arrantzaka ari garenez gero asto izan behar derrigorrean, arrantzak astoa, keak sua bezala salatzen duelako, ez baitago lurbira guztian halako kantu ederrik ematen duen beste abererik.

Beharbada, ez dute gure adiskide on haiek astoa ondo ezagutzen, bestela, ziur-ziur nago, beste edozein abere arruntago batekin berdinduko gintuztena, ur-zaldi edo hipopotamoarekin, esate baterako.

Astoa lur gaineko abererik apal eta langileena izan ordea. Astoa pataririk burutsuena; astoa lauhankadun setatiena; astoa gizonaren laguntzailerik kirmenena; hitz batean esan, astoa Jaunak mendezmende gizaseme langileari eman dion ondasunik bikainena. Non zitezkeen gure errotari eta nekazariak astorik izan ez balute? Eta non arrantzaleak? Haiek ere astodunak behar izaten zituzten herri barruetan arraina saltzeko.

Hala ere zeinen zitalki erabili izan duen gizonak abere goragarri hori. Egiten dion laguntasunaren alderako, makila eskaintzen dio; lanaren alderako gosea, eta hori guztia gutxi bailitzan, era eta modu guztietara astotxoaren izen ona galtzera ekin dio. Halakoxeak gara, izan ere, gizonak; esker txarrekoak.

Izan dira, horregatik, edestira pasatu diren asto ospetsuak. Bat, antzina xamar, Balaam igarlearen asto hitzuna. Galdua igarlea, astotxo hori izan ez balitz. Beste asto bat, izen handikoa hau ere, Josu haur jaioberria arnas lurrintsuz berotu ondoren Herodes errege gaiztoaren eskuartetik askatu zuena. Beti astoa on egiten.

Asto jakitunak ere izan dira. Nork ez du Apuleius'en «urrezko astoa» ezagutzen? Baina asto bihurtutako gizon bat zen hau, benetakoa baino eskaxagoa beharrik ere. Eta olerkariak ospatu dituztenak? Oraindik bizi dela esan daiteke Platero, Jimenez'en astoa, bere bidean utzi zigun argi-litsa ez baita behingoa itzaliko. Eta Junqueiro'k olerki zoragarri batean goraipatu zuena? «A moleirinha branca, branca de luar», ilargi txuriz txuri zegoen bolu-atsotxuaren asto zoragarria. Bataiatzea ere merezi zukeela dio olerkariak, asto hark. Horra irazean bildutako astotxo argiak.

Ez uste izan gero, arrantza ere noiznahi eta noragabe egiten duenik. Ez horixe. Oihu ozen eder haiek, zergatikorik gabe ez ditu jaulkitzen. Sua dela, lapurrak direla, arriskuren bat, nahigaberen bat, gosea,

egarria... Eta zergatik ez? Zelaietako isiltasuna urratzeko ere bai, heriotzaren antzekoa den isiltasun samina, Euskadiren askatasunaren inguruan hogeitaz gero euskotarrok egin izan dugun isiltasun hilgarriaren antzekoa.

Gizon askotxok ezer ere ez lukete galduko abere on hauen antzera jardungo balute.

Balaam'ena bezala, hizketan zuhur eta eginetan setati balira, Euskadiri bere izatasunean eusteko.

Junqueiro'rena bezala, apal eta xalo, gure euskarari, bolu-atsotxo zoragarri honi, laguntzeko.

Jimenez'ena bezalakoak, ameslari, alai eta arrai ASKATASUN BIDEKIBIK ibiltzeko.

Belengoa bezala, Euskadi etsaien mendetik askatzeko.

Behar orduan arrantza egiten dakitenak, batez ere Aberria amilbera lerratzen, eta galzorian dagoenean, beste asto lokartuak esnatzeko.

Guk ere halakoxeak izan nahi genuke, eta esker onerako ez dugu nahi ez sekula-bedarrik, ez entxuferik, ez artalerik, ezta zaldalerik ere. Inoiz ez gara bizi izan askatik jaten, eta orain arte bezala jarraituko dugu aurrerantzean ere: jare, askatasun-belardi oparoetan kantari.

Artale-zaldale-sekula-belarrak, beude beste batzuentzat, ABERRIA sabelaren neurritz neurtzen dutenentzat.

Horra esan, astoaren gorapenak.”

Gehiago irakurri nahi izanez gero, hona esteka:

<https://armiarma.eus/emailuak/elkar/ibinagabeitia.htm>.

7. UPV/EHU: euskaldunon estatusaren erretratua (2020-11-10)

Berria egunkariko kazetari Irati Urdalleta Letek elkarrizketatu berri du Ekonomia Aplikatuko katedraduna den Eva Ferreira (Barakaldo, Bizkaia, 1963) UPV/EHUrako errektoregai bakarra. Botoen herenak eskuratzea aski izango duenez, itxura guztien arabera, hurrengo errektorea bera izango da.

Esan beharrik ez dago goi karguetan euskaldunak egotea garrantzitsua dela, lehenik, euskarari behar duen sona emateko; bigarrenik, Euskal Herrian euskararen premia azpimarratzeko, eta hirugarrenik, errektore euskaldun batek askotxo egin dezakeelako bere inguru hurbilean eta, erabat harturik, euskara unibertsitatean normalizatzeko. Ildo horretatik, euskaldunok gustura egoteko moduan al gaude?

Kazetariari biziki eskertzen diot euskarari buruzko galdera zorrotzak egin izana, gurean eta egun ez baita ohikoena, hark haiei emandako erantzunetatik errektoregaiaren erretratua ez ezik, euskaldunok gizarte honetan dugun estatusa azalarazten ere laguntzen digulako.

Azaltzen digu kazetariak Eva Ferreirak gaitasun mugatua duela euskaraz, eta euskararen gaineko galderei euskaraz erantzun diela, eta gainerakoetan, gazteleraz aritu dela nagusiki. Oroitarazi dio elkarrizketatuari hamabi urte joan direla azkenekoz errektoregaia gaztelaniaz elkarrizketatu zuenetik. Arazo giltzarri bat dago azpian: azken hamarkadan errektoreak euskaldunak izan dira UPV/EHUn, baina hala izanagatik, ez dago bermatua aurrerantzean hala izango dela, bermatua ez dagoen bezala, hurrengo udal hauteskundeak egiten direnean, EAEko hiriburu eta alkateak berriz ere euskaldunak izango direla (are gutxiago Nafarroan eta Euskal Herri kontinentalean). Euskarak irabazten dituen plazak ez daude bermaturik, hots, etorkizuna bermatu gabe dugu euskaldunok, eskumen politiko-juridikorik ezean.

Gatozen galdera-erantzunetara. Gaur errektoregai izanik, bihar errektore izan daitekeenak zer-nolako euskararen ezagutza du?:

Nola ikusten duzu zeure burua? Oso kontziente naiz hobetu behar dudala. Ikasten hasi nintzen duela hamar urte, errektoreorde nintzen bitartean, eta oso zaila zen. Orain, euskaltegi batean ari naiz larunbatetan, B2-C1 mailan. Nire arazo handiena hitz egitea da. Arazo handia daukat gauza oso konplexuak euskaraz azaltzeko, baina ulertzeko edo entzuteko, nahiko ondo moldatzen naiz.

Errektoreorde izateko ez zuen debeku izan euskaraz ez jakitea barakaldoarrak. Orduan sentitu zuen euskaraz ikasteko premia. Baina denbora falta. Orain ere denbora gutxi du: larunbatetan ari da. Inori ez zaio bururatzen gaztelaniaz ondo jakin gabe kargu garrantzizko batera inor aurkez daitekeenik; euskaraz jakiteke, aldiz, EAEko unibertsitate publiko garrantzitsuko errektoreordetzara hel zaitezke, eta errektoretzara ere bai, aski jakin gabe.

Hortik eratorririk, kazetariak egiten dizkion hurrengo bi galderak, eta erantzunak ere, hitzez hitz jasotzekoak dira:

Uste duzu euskaraz daukazu gaitasun horrek EHUren eguneroko jardunean eragina izango duela? Adibidez, Gobernu Kontseiluko bilerak zein hizkuntzatan egingo dituzue? Esango nuke erdia edo gehiago euskaraz egiten dela. Normalean itzulpena egoten da, eta oso erraza da euskara ez dakitenentzat.

Esango zenuke, oro har, EHUK euskaraz funtzionatuko duela? Bai. Noski, Euskal Herri osoan bezala, hobetu behar dugu.

Denok dakigu menderatzen ez dugun hizkuntzan luzeak egiten zaizkigula hitzartze ez hain luzeak ere, eta "erdia edo gehiago" esaten duenean, "erdia baino gutxiago" ulertu beharko dela, eta, dioenean, "normalean itzulpena egoten dela", esan nahi duela, batzuetan, eta ez du zertan gutxitan izan, ez dela itzulpen zerbitzua egoten, eta orduan, denek ulertzearren, bilerak erdaraz egiten direla.

Eta bigarren erantzunari dagokionez, garbi ulertzen den bakarra da hobetu beharra dutela, baina nola hobetuko ote duten? Auskalo! Beti daude arrazoiak, eta batez ere, aitzakiak eta estakuruak euskara baztertzeko, hurrengorako uzteko, hurrengotasun kate luze ezin hautsizkoan.

Euskaraldiari dagozkion pare bat galdera ere badaude, bata bestea bezain esanguratsuak:

Ba al daukazu asmorik Euskaraldian parte hartzeko? Bai, noski. Hautagaitza moduan, gainera, talde bat sortu dugu.

Ahobizi ala belarriprest izango zara?

Oraingoaz, belarriprest. Erronka da bi urtean ahobizi izatea.

Konklusioetara iraganik, Barakaldon jaiotako pertsona bat egon daiteke lasai asko 47 urtera arte euskaraz jakin gabe, eta EAeko unibertsitate publikoko errektoreorde izatera heldu. Ondarroan edo Otxandion edo Azkoitian jaiotakoa ez, erdara jakin gabe, eta are gutxiago UPV/EHUko errektoreorde izan nahi badu. Baina euskaraz aski jakin gabe ere, mintzatzeko eragozpenak izanik ere, hel zaitezke errektore izatera. Borondate ona erakustea aski euskararen alderako, eta, esaterako, Euskaraldian parte hartzea, talde moduan.

Horrelakoxea da euskaldunon estatusa 2020an, Euskal Autonomia Erkidegoan. Errealitatea hauxe esaten ari zaigu: ikas ezazu ongi espainiera, eta ingelesa ere, eta euskaraz B2n bazaude ere, hitz egiteko zailtasunekin, aski duzu borondate ona agertzea euskararen alderako, eta ikasle eta irakasle gehien dituen unibertsitateko errektore jaun edo andere izatera hel zaitezke. Ez da albiste ona baina errealitate gordina erakusten digu, planta eta itxurakerietatik harago.

8. NAPARRA kasu irekia. Jon Alonso. Elkar. 2020 (2020-11-18)

Bi gauzogatik gertatu zait oso garrantzizkoa eta hunkigarria ere argitara berri den Jon Alonsoren liburu hau; bata da Jose Miguel Etxeberria Alvarez Naparraren familia bidegabeki oinazetuari aitortza eta justizia poxi bat egiten diolako; eta, bestea, gure memoria kolektiborako pieza beharrezkoa delako.

Naparra desagertu zela berrogei urte igaro ziren ekainaren 11n. Gorpua ez da agertu, eta familiak berrogei urte hauetan era askotako ahaleginak egin ditu jakiteko zer gertatu zen, non hil zuten, eta non ehortzi edo desagerrarazi zuten, eta oraindik kasu irekia izaten jarraitzen du liburuaren egileak dioen bezala. Badaude ildo batzuk irekiak eta baliteke halakoren baten une egokia iristea zer gertatu zen jakitera heltzeko, nahiz oraingoz direlako ildo horiek geldirik dauden, behar bezalako bultzadaren zain.

Desagertu zenean, bi hipotesi nagusi egon ziren: 1. BVEko (Batallón Vasco Español) mertzenarioek hil eta desagerrarazi zutela Espainiako inteligentzia zerbitzuek agindurik eta ordaindurik, autonomo antikapitalisten lider teorikotzat jotzen zutena arriskutsutzat jorik, eta 2. ETA militarrekoek hil zutela komando autonomoekin zituzten ika-miken ondorioz, autonomoak burugabetzeko, nahiz autonomoek, teoriarik behintzat, buruzagirik ez izan.

Hipoteka politikorik gabeko familiak beti lehen hipotesia jo du sinesgarritzat. Egia da iraultzaile batentzat askoz ohoragarriago dela inteligentzia zerbitzuek ordaindutako mertzenario batzuek eraila izatea, ezen ez iraultzaileen arteko kontu-garbiketaren ondorioz.

Spoilerregia ez izateko ez dut salatuko liburu egilearen hipotesi nagusia zein den, nahiz hipotesi hori ere behin-behinekoa izan, eta ez tesia.

Familiaren desmartxak

Frantziako estatuak berehala itxi zuen kasua (1982), oso ikerketa gutxi eginda, talde armatuen arteko kontu-garbitze bat zela aditzera emanez, eta Espainiakoak 2004an, 1999an aurkeztutako kereila kriminala modu iraingarrian itxiz, esanez ez dagoela garbi desagertu zen ere; egon litekeela bizi-bizirik patxada ederrean nonbait.

Familiak laguntzaile leial batzuk izan ditu baina ez ezker abertzaletik, oro har, eta ez euskal instituzioetatik izan dute laguntzarik apenas, azkeneko bost urtera arte. Bien bitartean Naparraren gurasoak hil dira, baina Eneko anaiak, bere familiarekin batean ez du etsi, eta Genevan egoitza duen Nazio Batuen Borondatez kontrako eta Bortxazko Desagerketen Lan Taldeari esker, 2014an egoitza hartara bera bakarrik joanda, lortu zuen Nazio Batuen Erakundeak Bortxazko Desagertzearen Biktima izendatzea. Aurten berriz joan dira Genevara, iruzkintzen ari garen liburuaren egilea barne, eta berretsi diote aipatutako izendapena.

Izendapen horren garrantzia handia da. Familiari ematen dion kontsolamenduaz gain, aipatu dugun Bortxazko Desagerketen Lantalde horrek norbait bortxaz desagerrarazi dutela aitortzeko baldintza moduan jartzen du Estatu baten inplikazioa egotea, nahiz eta inplikazioa zeharkakoa izan. Horrenbestez, NBEk ez du zalantzarik egiletzari buruz. Gainera, izendapen horrek euskarri sendo bat

ematen die gaiaz arduratu nahiko luketenei, nahiz eta Frantziako eta Espainiako estatuak orain arte gai horretaz ezer jakin nahi izan ez duten.

Irakurlea 1980ra eramateko ahalegina

Hementxe dago niretzat gorago aipatutakoaz gainera, liburuaren baliorik handiena. Joera handia dago printzipio etiko orokor ustez objektiboetara jota, goresmen edo gaitzespen erabatekoak egiteko, gauzak gertatu zireneko zirkunstantzia historikoei muzin eginik, lan hori hartu barik. Hilketak eta torturak eta tratu txarrak ez ditu testuinguruak justifikatzen, baina zerbait ulertzeko edo manipulazio errebisionistei horma sendoa jartzeko ezinbestekoa da gertakarien testuinguru historiko zehatzari albait gehien erreparatzea. Eta liburu honek horretan laguntzen du. Balio literarioko zatiak ere baditu, zintzurra estu-estu egiten dizuten horietakoak, egilearen esku literario trebearen erakusgarri. Liburuko zati batzuk aldaturik amaituko dut iruzkin hau, liburua irakurtzeko gomendioa eginik:

Testuinguru historikoa:

1980. urtea Estatu terrorismoaren eta talde ultraeskuindarren ekintzarik gehien ezagutu zuen urtea izan zen. Baita ETAk atentaturik gehien egin zuen urtea ere. Komando Autonomoak eta Iparretarrak ere jardun betean zeuden. Berrogei urte pasatu dira ordutik, eta, batek atzera begiratzen duenean, denak irrealak ematen du.

Esan daiteke 1980. urtean belaunaldi oso bat zela, ia-ia, mundu hobe eta justuago baten utopian sinesten zuena. Belaunaldi hartako kide guztiek ez zuten armen hautua egin. Baina bai ehuneko esanguratsu batek. Eskuzabalenak eta gaituenak, batzuek esaten duten moduan? Odolzaleenak eta fanatikoak, beste batzuek uste duten bezala? Ez da nire asmoa hori ebazten saiatzea, ezta gutxiagorik ere. Baina iparririk gabeko fanatiko odolzale batzuk baino askoz ere gehiago izan ziren. Biktimak eragin zituzten, egia da, baina biktimak izan ziren haiek ere, ez gutxitan. Eta ez ziren biktimak eragin zituzten bakarrak, ez horixe.

Historia pendulu baten antzera mugitzen da, eta orain, ordukoarekin alderaturik, esan daiteke penduluaren ibilbidearen beste muturretik gertu-gertu gaudela. (42 or.)

Memoria inklusiboaz:

Memoria inklusiboa denbora batetik hona gure artean indarra hartzen ari den kontzeptua da, Foro Sozialak eta bestek bultzatuta. Gure herrian eraiki behar den bizikidetzak demokratiko sendo batek behar dituen oinarrietako bat omen da. Zer da memoria inklusiboa? Foro Sozialeko Agus Hernanentzat, esaterako, errelato guztiak errespetatzen dituena: gertatutakoa ahaztu gabe, errelato guztiak eroso egoteko modua eskaintzen duena.

Hernanek eta Foro Sozialeko kideek gaztigatzen dutenez, memoria inklusiboaz gain, herri honetan gertatu den guztiaren memoriari dagokionez, beste bi aukera gehiago dago: bat, errelato bat nagusitzea; eta, bi, inklusiboa ez den beste memoria bat, beste errelato bat -nork berea, bestearenetik bereiz, adostasunik gabea-, sortzea.

Beste bi aukera hauek, bizikidetzaren demokratikoaren ikuspegitik, guztiz arriskutsuak dira, aise ulertzen diren arrazoiengatik (...)

Pentsatzen hasi, eta errelato inklusibo baten falta ez da oraingoa. Mendeetakoa da. Betikoa. Egon zen errelato inklusibo bat lehenengo karlistadatik bigarrenera? Bistan da ezetz; bigarren karlistada da horren frogarik nabarmenena. Eta bigarrenetik hirugarrenera? Berdin.

36ko gerra zibilaren eta ondorengo diktaduraren errelatoa ere hala moduz itxi zen. 76an haustura demokratikoa eskatzen zutenen oihua hor dago, oihartzuna entzun nahi duenarentzat. Esan liteke errelato guztien errespetu bat dagoela? (...)

Ez alferrik, irabazleek idazten dute historia, norbaitek oso aspaldi gogoratu zuen bezala. Foro Sozialak esaten dituen gauza gehienekin, maila teorikoan, ados egonik ere.

Ez dago zertan pentsatu kasik berrehun urtean lortu ez den memoria inklusiborik guk lortuko dugunik. Errelato inklusibo bat eskatzea, gaur eta hemen, "euskaraz" deitu den (gaizki deitu, bai) horren konponbide orokorra eskatzea bezala da. Soluzio politikoak eskatzen dituen zerbait. Errealista da?

Gero, kasuak eta kasuak daude. Askok. Oso gogorak eta mingarriak. (...)

Ni kasu horietako batez arduratu naiz, pixka bat. Naparrarenaz. Eta, esan dezagun behingoz, Naparraren familiarenaz, biak bat baitira, eta aldi berean oso diferenteak, paradoxa eman lezakeen arren.(325-327).

Autokritika

Jose Miguel Etxeberria desagertu zenean, edo, esan dezagun argiago, bahitu eta hil zutenean, asko ez ginen behar bezala portatu. Fenomeno orokortu eta sozial bati buruz ari naiz, ez banakako ardura jakin bati buruz. Egia da oso urte nahasiak zirela, eta egia da batzuk gazte txoro batzuk baino ez ginela, baina piramide baten erpinetik behera botatzen den olio-zurrusta bat balitz bezala, oinarri guztia blaitu zuen sektarismo umel, lika eta erraldoi batek blaitu gintuen gu ere, orduko ezker abertzaleko oinarriok, eta ez genion kasuari merezi zuen arretaren laurdenaren laurdena ere eskaini, norbaitek nonbait, gu guztion ordeztu, "ez zela gutarra" erabaki omen zuelako. Eta guk sinetsi. Hartaraino geunden itsu: ez ginen gauza izan injustiziaren tamainaz konturatzeko, ekintzaren ankerkeriaz jabetzeko, Jose Migueli ez ezik, haren familiari eragiten zion sufrimenduarekiko enpatiaz jokatzeko. Hartaraino geunden une politikoaren urgentziak menderatuta. (323-324).

9. Borondatezkoa eta derrigorrezkoa (2020-11-23)

Euskalduntze edo berreuskalduntzearen txaluparen masta nagusian, borondatearen bandera dugu ezarria azken hogeitaka urteetan. Haren azpian, aldiz, gaztelaniaren derrigortasuna dugu ongi itsatsia EAEn, eta Nafarroan. Jakina, horrela ezin aurrera eginik dabilkigu txalupa: borondatez aurrera egiten hasi orduko, artean irabazitakoa finkatu gabe dugula, derrigortasunaren gilak galgatzen eta hondartzen baitigu aurreratutako bidea.

Baina gaztelaniaren derrigortasunaren oinarria -Hego Euskal Herriko herritarretatik %34,55ek baino ez zioten oniritzia eman Espainiako Konstituzioari 1978an. Abstentzioa %51,21ekoa izan zen. 3. artikulua: "El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla"-, eta euskararen borondatezkoarena ez dizkigute ukitu ere egin nahi aginte politiko-ekonomikoa eskuetan dutenek, eta, gainera, egoera hori legitimatzeko behin eta berriz entzun beharra dugu nazionalisten eskutik, bi hizkuntzak geureak ditugula: azken berrehun urtean bereziki, bortxaz eta mespretxuz eta irainez ezarri digutena, eta geurea.

Ahozkoa mugatzen den Euskaraldia idatzira luzatu asmoz, Joxe Manuel Odriozolaren Euskalgintzaren lekukoak (Elkar. 2004) liburu bikaina berrirakurtzeari ekin diot, eta atal ezin utzi honekin egin dut topo: "Hizkuntza-hertsapena":

Euskararen berreskurapenean hertsapenaren edo koakzioaren gaia planteatzen dugunean, zentzu demokratiko sakona duen jendeak ez du aditu ere egin nahi izaten behartu edo derrigortu adizkirik. Askatasun osoan burutu behar dugu beraz eginkizun hori, bestela laster gogoraraziko dizute frankismoaren garai beltza. Ez dezagun, otoi, inor ezertara hertsatu; euskara ez da nonbait gainerako mintzairaren antzekoa, gizarte-elkarreraginetan ainguraturik bizi dena; aitzitik, gizarte-izaeraz gaindi hegaldaturik, metafisikaren goi-hatsetan bizi da. Tira, bada.

Goazen ustezko askatasunaren bila hizkuntza-harremanen paradisura: "Me gustaría ser vasco -Joseba Arregi ari zaigu- sin que tampoco nadie me lo imponga desde fuera, como en su día me lo impuso Franco, obligándome a una lealtad para conmigo mismo y para con unos elementos culturales que formaban parte de mi personalidad. Me gustaría poder utilizar el euskera cuando lo crea conveniente, cuando quiera hacerlo, en las relaciones que me apetezca, siempre que también lo quieran aquellos con los que quisiera comunicarme en relación personal. No me gustaría que nadie me obligara a utilizar el euskera, ni que nadie me lo impidiera" (Joseba Arregi: "Deseos para el 96". Diario Vasco. 1996/1/6.)

Merezi du aipu hori birritan irakurtzea, bestela posible baita eskapatzea Joseba Arregik dioela Francok "euskara" inposatu ziola, eta ez "gaztelania". Jakina, Joseba Arregi euskaldun familia baten jaio zen Andoainen, familia nazionalistan, eta bere buruarekiko leialtasunez eta familian jarauntsitako kultur elementuei eusteko, hots, jeltzaletasunari, euskarari eutsi zion. Francok behartuta eutsi zion euskarari; harrapa ezak hori hankatik!

Euskal Herriko hizkuntza-gatazkaren ingurumarian nagusi zebilen (dabilen) ideia erakusgarri zuzena zela aipatu ondotik, besteak beste, Eusebio Osa zenaren artikulua batetik ideia hauek jaso zituen Odriozolak:

Liberalismoaren haizeak jo du eta astindu mendebaldeko lurraldea. Nola liberalismo ekonomikoak hala liberalismo politikoak eta kulturalak. Orain moderno izateko eta fanatiko, basati, intrantsigente edo diktadoretzat hartua ez izateko, liberalismoaren eta tolerantziaren eskolan ikasi behar duzu. Jakina, hori itxura besterik ez da, distira bat, berniz kapatxo bat. Azala zentimetro bat urratuz gero, behar-sorta galantaren erresuman zaude, intolerantziaren erresuman. Non ditu mugak liberalismoak? Erantzuna erraza da eta begi bistakoa: botere ekonomiko eta politikoaren interesetan. Zu mila gauza egitera behartuta zaude. Horretarako daude Konstituzioa, legeak, aginduak, dekretuak eta nahi duzun (edo nahi ez duzun) guztia. Ezker-eskuin behartuak gizarte liberal omen den honetan. Baina gero Herri txiki baten hizkuntza ikastera ezin omen da inor behartu. Zergatik muga hori? Hain zuzen ere, Herri txiki baten kontua delako. Gaztelera ikastera behartzen gaituzte, eta ardiekin basora gabe bizi nahi badugu, ikasi beharra dugu. Zergatik? Ez gaztelarak eskubide gehiago duelako, ez hizkuntza aberatsago edo ederrago delako, edo eta gaztelarak takoak botatzeko balio duelako eta euskarak ez (euskararen pobretasunaren azken teorizazioa). Ez. Gaztelera boterean dagoelako bakarrik. Beraz, botereak erabakitzen du hemen dena. Beraz, liberal eta tolerante izan behar dugu geurea ezartzeko tentazioak sentitzen ditugunean. Bestek guri bestena ezartzerakoan ez dute liberal izan beharrik.

Eta gorago esan bezala, gure botere autonomikoak, hots, Espainiako botereen eranskin txapeldunak erabakia du borondatearen haizeak bultzaturik soilik egin behar duela aurrera euskaldun-erdaldun txalupak.

Are gehiago, gizarte erdaldunduak kohesiorik gal ez dezan, botere espainiar eta autonomikoen indarrez ondo itsatsirik daramagun gila bedeinkatuari egiten dio putz, galgatze eta hondartze lana egiten jarrai dezan.

10. Euskaraldian, Odriozolaren Euskalgintzaren lekukoak berrirakurtzen (2020-11-26)

Euskaldun batzuk, erdaldun batzuk bezala, ahozkotasunean bizi dira, baina oso oker ez banago, gutxienak dira. Gehienok irakurri egiten dugu, gutxienez, egunkaria, eta horrenbestez, nola edo hala euskaldun gehienok gaude idatzizko errepublikan ere pulunpatuak.

Euskaraldiak ez du alor hori jorratzen, eta hutsune hori nolabait berdintze aldera, horrixe helduko diot lehenik, eta ondotik, EAEko 1982ko Legearen gaineko aspalditxoko eztabaida saiatuko naiz egungo egunera ekartzen, artikulua honen izenburuan aipaturiko liburua gidari.

Jose Inazio Basterretxeak 2002an, hedabide idatziak aztertutik ateratako ondorioei jarraikiz, honako baieztapen hauek egin zitakigun J.M. Odriozolak:

Euskarazko hedabide idatzietan sozializatzen ez den herria da Euskal Herria. Gizarte moderno baten ezaugarri nagusia kultura idatziaren kodea baldin bada, ezin esango dugu euskal gizarte modernorik badenik, gizarte horren informazio-iturri idatziak erdarazkoak direlako. Jakina, izan bada euskal prentsa idatzirik, baina lerro hauen irakurleak nik baino hobeki daki haren hedapena eta errotzea zenbaterainokoa den. Basterretxeak erdal prentsaren esparruan egin duen azterketak, berriz, begien bistan utzi digu euskal izaeraren eta izatearen bazterkeria eta arrazakeria. Hau guztia testuinguru jakin batean gorpuzten denez, jarrera beldurgarrien berri eman digu ikerlariak: “Erdaldunarentzat euskalduna ez da pertsona modernoa, ez da pertsona europar bat; kultura folkloriko baten partaide besterik ez da. (165or.)

Handik hona, Interneten erabilera biderkatu da ikaragarri. Azterketa berriagoen ezjakinean, irakurlearen gain utziko dut balioestea ea 2002tik hona gauzak aldatu diren ala berdin samar jarraitzen duten.

Artikuluaren sarreran iragarritako bigarren mintzagaiari helduz, oso harrigarri gertatu zait erreparatzea 1991erako jada entzun zirela gurean, 1982ko euskara normalizatzeko legea motz gelditzen zelako kritikak, eta jakina, haren defentsa sutsuak ere aditzera emanez ezen ustiatu gabeko potentzial handia zuela hark, eta luzerako langaia genuela, hura berritzeari ekin aurretik.

Eta lege motz hura luzea ari zaigu gertatzen zinez, kontu eginik indarrean dugula 2020ko urte berezi honetan ere.

Beste autore batzuek beste, Karmele Aierbek honela zioen 1991n:

Euskal Herriko Autonomia Estatutua Konstituzioaren magalean hazi eta hezitakoa denez, gaztelaniaren estatusa baino ez da bermatzen eta ziurtatzen, gaztelaniak alde aurretik daukan statu quo delakoa uneoro osoki babesten delarik, (...) Beraz, argi dago euskara legedi berri baten premian dagoela, bere bizi-iraupena eta normalizazioa bermatu eta ziurtatuko duena (“Euskarak legedi berria behar du”, Egin, 1991/10/26).

Mari Karmen Garmendiak, aldiz, lehenago, beste hau esana zuen:

Gaur egun euskararen legeak jasotzen duena gauzatzeak izugarrizko lana emango digu. Lege hori txikitxo geratzen zaigunean ni prest nago beste gauza bat lortzeko. Baina, gaur gaurkoz, euskararen legeak esaten duena hezur-mamitzeak urtetako lana emango digu (“Elkar hizketak”, Euskal Kulturaren Urtekaria-88, Argia, 24).

Eztabaida horren baranoan, Odriozolari Lluís Aracil soziolinguista katalan begi zorrotza etorri zitzaion gogora, hark ireki baitzituen hemen askotxoren begiak, jada 1982an, delako legea onartu aurretik:

Aracilek zorrotz adierazi zigun bezala, gerta dakigukeen gauzarik okerrena hizkuntza-lege motz bat luze bihurtzea da. Eta horixe bera gertatu zaigu, inondik ere, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearekin. Horixe bera gertatu bide zaie lege horren moztasuna luzetsi dutenei. Legeak izatez ez du normalizazio-ahalmenik mendeko egoera murriztuan dagoen hizkuntza bere onera erakartzeko, ez duelako gutxieneko berme-babes juridikorik eskaintzen; baina, hala eta guztiz ere, delako lege hori legitimatu egiten da, bere baitan omen dituen balizko gaitasun-iturriak agortu arte zereginik faltako ez zaigulako edo. Labur zurrean esanda: gerta zitekeen gauzarik okerrena gertatu zaigu, berez motza den legea luze gertatzea alegia, borondaterik edo/eta ahalmenik eza estali nahi izan delako aginte autonomiko jakin baten izenean (184or.).

Nik uste borondatea bakarrik, edo euskararen alderako maitasuna soilik ez direla aski; euskara normalizatzeko lege hobea behar dugu, borondate eta maitasunarekin batean, eta, jakina, botere politikoarekin batera.

Zenbat Euskaraldi beharko ote dira Lege hobea lantzeko giroa sor dadin euskal politikarien artean?

11. Eskolan euskaraz mintzatzeagatik, mihi-haria moztu eta buruan zauria egin! (2020-12-01)

Hona hemen, lehenik, Euskal Herriko bertako agintariak duela hiru mende nola jokatzeko zuten salatzen duen lekukotasuna. Beasaingo Udalak Domingo Artieda maisuarekin 1730eko ekainaren 9an egindako kontratuan, besteak beste, honako agindu hau ematen zen: maisuak ez diezaiela euskaraz mintzatzea onartu ikasleei, eraztuna jarriz, eta haiek merezi bezala zigortuz (J.M. Torrealdei: Asedio al euskera. Txertoa. 2018. 47or. Itzulpenak neureak).

Herritar xume euskaldunengandik aldentuta eta botere arrotzarekiko konplizitatean bertako elite elebidunak euskara baztertzeko ahaleginean.

Bigarrenik, Juan Antonio Mogel apaiz eta euskal idazlearen 1803ko lekukotza-salaketa laburtua. Maisua epaile zorrotz-larderiatsu eta zigor emaile bilakatua, bertako elite eta kanpoko botereekiko lankidetzan:

Heltzen da larunbata. Esertzen da epaile jarlekuan maisua (...) galdetzen du izua emateko moduko aurpegiarekin nork daukan eraztuna, eta denek akusatzen dute erruztatua; hark ezin du krimena ukatu, eta belaunak dar-dar dituela bere zoritxarreko bereizgarria ateratzen du, eta maisuaren agiraka zorrotza entzunik bere aberri hizkuntzan mintzatzeagatik eta ez atzerrikoan, eskuak hartzen dizkio maisuak eta esku-barruetan kolpeak ematen dizkio, eta erretiratu egiten da mutikoa malko bakar bat isuri gabe, zigorra bikoiztu ez diezaioten. Baina maisuak jarraitu nahi badu zorrotzasun judizialarekin, esklabo bat bezala zehatuko du, letra gaztelua "odolez sartzen dela" irudikatuz.(Aip.lib.70)

Hirugarrenik, Joxe Miel Barandiaranen lekukotasuna, Martin Ugaldek elkarrizketaturik. Kasu honetan, ikaslearen ikuspegitik, euskara baztertzeko sistema horrek nolako eraginak sorrazten zituen adingabeengan:

-Inoiz ez zizueten erakutsi testu bat euskaraz irakurtzen? -Inoiz ez.

Gure artean gure hizkuntzan hitz egiten harrapatzen zuena eraztunaren sistemarekin zigortzen zuen, orduan normala gure eskoletan.(...)

Don Manuelek [Arrese] euskaraz hitz egiten aditzen zuenari eraztuna jartzen zion; eraztun hori ikaslerik ikasle igarotzen zen, eta horrek gure artean beldur handia sortzen zuen eta eraztuna patrikan zeukanari hurbiltzeko errezeloa, ze hark eragin ziezagukeen falta, gutako edonori euskaraz eginez, eraztun iraingarria pasaraziz, eta horregatik denok ihes egiten genuen eraztuna zeukanarengandik; hartara, eraztunak helburu bikoitza betetzen zuen: norbera bakarrik sentiarazten zuen, ikaskideek baztertuta, eta halakoari jipoiaren beldurra gelditzen zitzaion; izan ere, aste bukaeran eraztuna zeukana zigortua izaten zen (79).

Eraztunaren sistema ez zen, damurik, Euskal Herriaren Hegoaldera mugatua. Euskaraz artikulua bat eta beste bat frantsesaz astero hogeitaka urtez Herria astekarian idatzi izan zuen Etienne Salaberriek, maisu frantsesaren laguntzaile-kolaboratzaile ziren ikasle euskaldun zaharrenean ikuspuntutik ematen digu

sistemaren berri, mendeak aurrera joan ahala, euskara eta euskaldunen aurkako sistema finezian eta malezian aurreratua zen seinale:

Baginuen haundienek bertze lan bat, ez pollita. Eskolarat orduko, erakasleak emaiten zaukigun "buchette" deitu erhiaren heineko abar pixka bat. Gure egitekoa, barrandan egoitea. Nork ere jalgitzen baitzuen hitz bat euskaraz, eta hari zura saka, ixil-ixila, nehor ohartu gabe. Eta orduz geroztik hura euskaldun hitzen zakur usmakor, alegia eta basurde zikin zitazkeen solas euskaldunak, Askatasunaren, Berdintasunaren eta Anaitasunaren herrian altxatuak ginen izeiteko, trebe barrandari, trebe salatari, Judasen semeak ginela iduri. Hola zen Euskal Herriko ikas-etxe guzietako ohidura. Azkenik buchetta zuena, zen gaztigatua (Prest. P. Sudupe: Etienne Salaberry (I) (1903-2003), Egan, 2003, 15or.)

Haatik, sadiko bortitza izateagatik sari nagusiaren merezidun, euskaraz mintzatzeagatik Euskal Herriko eskoletan ezarritako zigorrik ankerrenak eta krudelenak burutzeagatik hain zuzen, Jose Mari Satrustegiren lekukotasunean ageri den Nafarroako maisuarena:

Duela bospasei urte, Nafarroako maisu bat iritsi zen haur bati mihi konpas batekin heldu eta mihi-haria urratzeraino. Odoldurik, amarengana joan zen. Maisu horrek berak beste haur baten buruan erregelaren ertz zorrotz batekin irekitako zauria ez zen hiru hilabetean itxi. Eta hori egunero egiten ziotelarik sendaketa! Gertakari horiek 1969an gertatu ziren. Haur horien gurasoek kontatu zizkidaten (J.M. Odriozola. Euskalgintzaren lekukoak. Elkar. 2004. 293or.).

Kanpoko botereek bertako eliteekin elkarlanean, eta, beste arloak beste, eskolaren bitartez, beldurra eta izua erabiliz ekarri gaituzte gauden egoera kaskarrera hizkuntzari dagokionean, eta azken hogeitaka urtean, estatusak eskatzen zuen neurri erradikalagoak hartu ez izanak.

Baina, zertarako, hein baten bederen ezagunak izaki, euskaraz mintzatzeagatik eskoletan ezarritako zigor bidegabe baina iraganeko horien lekukotasun zerrenda adierazgarria tolestu, jada eraztunaren sistema, beharrik, indarrean ez dagoenean?

Irakurle, ez dakit nola erantzungo diozun galdera horri; niri neuri erantzun hauxe datorkit gogora: bi auzo herriek konkistaturiko lurraldeetan nazio linguistiko bakar izateko xedez, bertako elite arrotzuekin batean gure hizkuntza erauzteko -mihi-haria urratu eta buruan zauria irekitzeraino- eragin dizkiguten tratu txarrek euskaldunoi indar gehiago eman diezaguten euskal nazio gintzan jarraitzeko, gutako bakoitzaren eta erakundeen ahale eta arduren arabera, eragozpenak eragozpen, eta nekeak neke!

12. J.L. Vilallonga Castellvelleko markesa zenaren aitortza (2020-12-09)

Frantzian eta batez ere Espainian famatua izan zen J.L. Vilallonga aristokrata, bon vivant emakume seduzitzailea. Halaber, nobelagile, idazle (frantsesez eta espainieraz) eta zinema aktore 73 filmetan, eta ez zion fama gutxi eman Espainiako Joan Karlos I.a errege emerituaren biografoa izateak.

Elkarrizketa asko egin zizkioten oso pertsona(ia) mediatikoa izan zelako, baina haietako batean, jada adinean aurreratua, bi minutuko tartean, oso garbi kontatu zuen -kontzientzia lasai eta zigorgabearekin- nola aritzen ziren jendea fusilatzen: El confidencial: "Oficinista de la muerte". 2018-01-18; (https://www.elconfidencial.com/cultura/2018-01-18/villallonga-guerra-civil-espanamemoria-historica_1507316/). Barruak aztoratu dizkit elkarrizketa horrek eta ikerketatxoa eginik, hona hausnarketa.

Familia aristokratiko baten jaio zen. Aita katalan lur-jabe aberatsa zuen, Castellvelleko markesa, Franco eta militar afrikanistak bezalatsu, Marokon ibili zena balentria militarrek egiten, hots, sekulako gizonkeriak eta barrabaskeriak, koronel gradua lorturik. Bada, aita markes militar horrek semea militar izatea nahi zuen, eta gerra hasi orduko gomendio gutun bat idatzi zion 1936ko udazkenean, bere tropekin Arrasate aldean zebilen bere lagun Joaquin Gual de Torella koronelari -beste afrikanista bat- esanez ikastetxe batetik atera berri zela bere semea, artean 16 urte zituela, eta frontera bidaltzeko gaztetxoa izanagatik, fusilamendu pelotoi baten ohitu zitekeela tiro-hotsetara. Oso ideia ona iruditu zitzaion koronelari, eta Arrasaten, gorriak eta nazionalistak -apaizak barne- fusilatzen aritu zen eta gerran hiru urtez, erreketean Oriamendi tertzioan, alferez graduarekin lehenik; bi hilabetez Falangearen banderapean Aragoiko frontean; Valentzian eta Guadalajaran italiarrekin eta, azkenik, armada erregularrarekin Bartzelona hartu eta gerra amaitu arte (Vilallonga: La cruda y tierna verdad. Plaza&Janés. 2000. 232or).

Pariseran joan zen 1950ean, eta Bartzelonan hasitako kazetaritzari eta nobelagintzari ekin zion eta zinemako aktore ere aritu zen, eta 1971n, aurretik beste sei bat nobela idatzi ondotik Fiesta bataiatu zuen nobela idatzi zuen 1968-1970 urteetan, eta 1971n argitaratu frantsesez izenburua ironikoki gaztelaniaz zuela.

Roman gisa plazaratu zuenez, ezin da jakin bertan zenbat den autobiografikoa, baina ematen du katarsi gisa idatzi zuela, aitek beharturik 16 urtetik 19 urtera bitartean egin behar izan zituen gauzek gerora, handik urteetara sortutako atsekabea kanporatzeko. Ofizial faxisten erretratuak, fusilamenduetan parte hartzen zuten kapilauenak, fusilamenduak ikustera Donostiatik Arrasatera joandako andereño aberats morbosenak, eta batez ere kontatzeko darabilen hiztegia benetan matxista, militarista eta okaztagarria da, hain segur bizi izandakora aski egokitzen zena. Nobelaren amaieran, protagonistak - idazlearen alter egoa-, hamabost urteko neskatxa bat erailtzen du garondoan tiro bat emanda.

1983an, jada Felipe Gonzalez Espainiako presidente zela, gaztelaniara itzulita agertu zen. Eta handik aurrera hainbat kazetariri emandako elkarrizketetan, ahoan bilorik gabe salatu zuen nola fusilatzen zituzten gorriak, nazionalistak eta halaber apaiz nazionalistak fusilamendu pelotoiek erretagoardian,

bera ere fusilatzaile zela, kafea eta pattar katilukada bat gosaldurik, eta izan zitzaketen eskrupulutxoak hirugarren egunerako ezabatuak jada, untxiak edo oiloak akabatzen ari balira bezala.

Beste batzuek bulegora joaten ziren bezala, beraiek gaiztoak hiltzera joaten ziren. Orduan aitak esandakoari errespetu handia zitzaion, eta hark fusilamendu pelotoi baterako gomendatu zuenez, agindua onartu baino ezin zuen egin!

Beste bandokoez ere egiten zituzten fusilamenduak, baina bando nazionalean, kontzientzia hobearrekin, gotzain eta kapilauen bedeinkapena lagun zuten, gaiztoak fusilatzeke.

Geroago konprenitu zuen astakeria haiek erantzukizun faltagatik egin zirela edo egin zituztela: erantzukizuna kentzen badizute, abereki bat bihurtzen zaituzte, zioen. Agintzen dizutena egiten duzu eta kito, zioen. Eta agintzen dizutenera ohitzen zara. Izugarriena ez da hiltzea baizik eta heriotzaren bulegaria bihurtzea. Errutina bihurtzean, judu bat hiltzea edo milioi bat, berdin da.

Gorago aipatu dugun memoria liburuan garbi agertzen du ez dagoela batere harro egindakoaz; hori bai, hori aitortzeak 2000. urtean ondorio penalik ekarriko ez ziolako uste osoan, 1977ko amnistia legeari esker, eta trantsizioan ezker eta eskuin espainiarren artean egondako isiltasun itunaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, aitortu behar zaio izandako ausardia itsuskeria horiek, inork behartu gabe, kontatzeko.

Hark egindako aitortzek bestelako herrialde baten, amorratiozko astindu bat sortuko zuten iritzi publikoan, egia, justizia eta erreparazioaren eskea ozenduko zuten, baina Espainian ez. 1936ko gerrari buruzko kontakizunak aldaraztea ez zuen lortu, eta jendea eskandalizatzea ere ez.

Ehunka milaka hildakoren arduradun ziren militar kriminal handientzat amnistia eta ahaztura, buruzagientzat bezala haien morroi ibilitakoentzat, era askotako sariekin batean, eta, aldiz, euskal presoentzat zigor ikaragarriak eta gatazka amaitu zela kasik hamarkada bat daramagunean, oraindik mendekuzko jarrerak, sakabanaketa tantaka baino ez urratuz. Eta aldeak alde, ehun urteko kartzela-zigorra autodeterminazio erreferendumaren aldeko borroka baketsua egin duten katalan politikarientzat! Proporziorik gabeko injustizia eskierki!

Besteak beste, J.L. Vilallongaren aitortpeni esker dakizkigun gauzek oroitaraziko digute beti, Franco hil ondoan justiziarik ez zela egin, eta nago merezi duela hori transmititzea.

13. Gaizka Garitano euskaltzalea Athleticetik kanpora! (2021-01-09)

Ez dago futbolzalea izan beharrik G. Garitano Athleticetik kanporatu dutela jakiteko. Historia handia du Bilboko futbol taldeak eta UEFAko postuetatik kanpo dabilenean, entrenatzaileak ez dauka ziurtatua lanpostua, eta hala gertatu zaio G. Garitanori ere, bidaltzeko modua zakarra eta begirunetsua ez izatetik harago.

Horraino denok ados egongo gara. Futbol profesionala kirol profesionala da; entrenatzaileak ondo ordainduta daude -pribilegiatuak dira-, eta jokoa eta emaitzak zaleek espero baino kaskarragoak direnean, entrenatzaile zaharra bota eta berria hartzea, izan litekeen gauzarik ohikoena da.

Denok dakigu, ordea, futbolak, zaleentzat grina-piztaile eta denbora-pasa estimatuenetakoa izateaz gain, beste osagai batzuk ere biltzen dituela. Bilbo inguruan lan egiten duten gipuzkoarrei maiz entzun izan diet Athletic, Bilbo inguruan bereziki, erlijioa dela, sakratuetan sakratuena; askotan suertatu zait, halaber, "Vascos por el mundo" programan entzutea "Gora Athletic", identitate zeinu nabariena bezala, eta ikurrina eta Athletic lotuta daude eta baskotasuna-euskaltasuna eta Athletic ere bai. Bartzelona futbol-taldeak duen identitate balioa izatera ez dakit heltzen den, baina gertu ibiliko da, eta historian zehar Euskal Herriko futbol-talde transbertsalena ere bera izan da. Esaterako, arraroa da bizkaitar realzale bat aurkitzea, baina, alderantziz, ez hain arraroa!

Natorren, baina, artikulua idaztera jarri nauen motibazioa azaltzera. Zuzen blog honetan bertan jaso zen kontatzera noan gertaera hau: 2015eko apirilean, Eibarrek Almeria futbol-taldearen aurka jokatu zuen eta bi eta huts galdu zuen, Eibar futbol-taldeak entrenatzaile G. Garitano zuela. Partida ondoko prentsaurrekoan, ETB1eko kazetari batek euskaraz egin zizkion galderak Garitanori, eta hala erantzun zituen hark, baina Almeriako kazetariak kexu azaldu ziren ez ziotelako ulertzen. Prentsa-arduraduna Garitanoren alde paratu zen, baina prentsaurreko hartan giro txarra sumatuta, Garitanok altxa eta alde egin zuen.

Bartzelona futbol-taldearekin ez ziren berdin portatu Almeriako kazetariak, nahiz eta Bartzelonako entrenatzaileak Garitanok egindako gauza berbera egin, hots, lehenbizi, katalanez erantzun katalan kazetariei. Katalanfobia baino euskarafobia gehiago erakutsi zuten, Espainian ohi samarrekoa denez.

Oraindik orain adierazi zigun, bestalde, Andoni Egañak Berria egunkarian idazten duen zutabearen (2020-12-01), Euskaraldi garaian, Getaferen aurka Athleticcek jokaturiko partidaren, erdaraz izanik telebistako emankizuna, zelai ertzean zegoen kazetariari galdetu ziotela bi entrenatzaileen jarreraz. "«Garitano

aginduak eman eta eman ari da bere jokalariei. Baina zer esaten dien ezin dizuet kontatu, gehienei euskaraz zuzentzen zaie eta». Egia. Zertxobait entzun genezakeen guk ere etxetik. Tentsio betean, zinez ahobizi ari zen Gaizka.”

Badu beste goresgarri bat ere deriotarrak: entrenatzaile euskaldun mordoxka dago, eta emakumeen futbol-taldeetako entrenatzaileen hizkuntza-gaitasunaren berririk ez dudan arren, G. Garitanoren gorazarretan esan liteke euskara batu aski txukunean mintzo ohi dela jokaturiko partiden berri ematean -onentsuenetakoa izango da euskaraz mintzatzeko orduan, onena ez bada-, eta horrenbestez, etsenplu ona ematen digula euskaldunoi.

Zilegi bekit neure dolutxo agertzea Athleticetik kanporatu duelako, eta pentsatzen dut kazetari euskaldunak eta Zuzeuko irakurleak ere lagun izango ditudala dolutxo honetan. Laster aurkituko du lana berriz ere, ez dut dudarik egiten, eta zortetik onena opa diot bere ibilbide profesionalean, eta noski, jarrai dezala euskaltzaletasunean fin eta kontsekuente, eskertuko diogu eta!

14. Telesforo Monzonen heriotzatik 40 urtera (2021-01-26)

Plazaratu zuen azken artikuluan (Egin, 1981-02-12), azken nahiaren erakusgarri, gure aberriaren lehenbiziko oinarri gisa lurraldetasuna aipatu zigun:

Beti ohitu behar dugu Euskal Herria oso osorik ikusten. Euskal Herria aipatzen dugularik, osorik ikusten ez baldin badugu oker handi bat dugu honetan. Gurez etorri behar zaigu osorik ikustea. Euskal Herria, gaur, Adurren hasi eta Ebroraino doa. (...)

Hegoaldeari begira gauza bera esango nuke. Hau nire iritzia da, baina nik ez nuke sekulan ere onartuko politikazko irtenbide bat Hego Euskadirentzat Nafarroa ez baldin badago barne.

Bost urte pasatxo ziren Franco diktadorea ohean, ohore guztiekin eta politikaren bridak ondo lotuta hila zela. Gerra irabazi zuten militar matxinatuek Errepublikak ordezkatzeko zituen balio demokratikoen aurka finkatu zituzten ordena berriko zutabeak, eta Franco buruzagia hilda ere, atxiki zituzten: monarkia, Espainiaren batasun zatiezina autodeterminazio eskubiderik gabe, gaztelaniaren derrigortasuna, TOPen oinordeko Auzitegi Nazionala...Mugimenduan gidari izandako Suarezek gidatu zuen trantsizioa, bereziki PSOEn eta gainerako ezkerreko indarrek amore eman zutelako.

Dakizuenek, Espainiako 1978ko Konstituzioa, ez EAEn, bai Espainian onartua izan zen, eta Nafarroako indar frankistek eta PSOEn aldaketa itzelak ahalbidetu zuten Nafarroa EAetik kanpo gelditzea.

Horren aurka, Herri Batasunak eta erakunde armatuak estrategia politiko-militarra eraikia zuten euskal estatu independentea sortzeko, eta Telesforo Monzon itxaropentsu hil zen, eta ukazina da hegoaldera itzulirik, azken lau urteetan dena eman zuela bere aldetik, amets hori egia bihur zedin.

Abertzaleon gogoan jarraitzen du Euskal Herriaren ikuspegi osotasunak, baina estrategia politiko-militarrak porrot eginik, praktikan, politikoki hiru subjektu politiko garelakoak onarpena du gizartean. EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko arrakalagatik asko sufrituko zuen Telesforok. Eta sufrimendua ez zion gozatuko abertzaleak Madrilen negoziatzen ikusteak. Errepublika garaian ezagutu zuen berak parlamentu espainiarra, eta gogoan iltzatua gelditu zitzaion han esaten zutela: "espainiarra bazara, joka ezazu espainiar moduan; eta, ez bazara, zer egiten duzu hemen?". Denok bezala, egokitu beharra ere izango zuen, baina zenbat kostatuko zitzaion!

Bigarren oinarri gisa, Euskal Herrian bizi diren biztanleen osotasuna aipatu zigun. Euskal gizartea bitan zatitua zegoela esatea -bertakoak eta kanpotik etorriak- tranpa bat zela zioen; gu zatitzeko inperialistek erabilia. Baieztapen hori adibideekin argitzeko, egia esan, aspaldiko kontuak gogorarazten zizkigun:

Euskal Herriko nagusiek, oligarkek, bai Sabino Aranaren denboretan eta gerotxoago, eta gero ere lanerako esku merkea behar zuten eta han-hemenka bilatu zuten. Horra hor nolako jendetza multzo izugarria etorri zitzaigun Euskal Herrira. Jauntxoek politika hau begi onez ikusi zuen Estatuak ere, politika ona zela iruditu baitzitzaion. Honela, oligarkei lagunduz batera bertako hizkuntza eta kultura zapaldu eta ito. (...)

Baina dena gaizki atera zaie. Kanpotik etorritako horien haurrak, horien seme-alabek (...) Euskal Herria sentitu dute, eta gaur, urte batzuk pasatu ondoren, kanpotik etorritako horiek Euskal Herriari laguntza izugarria eman diote. Horretarako ikustea baino ez dago 36garren guda denborako gure gudarien arteko zerrendetan agertzen diren kanpotarren abizen piloa.

Aspalditxoko adibideak dira. Telesforo Monzon hil ondoan, kanpotiko beste migratzaile batzuen etorrerak ere izan ditugu eta euskal mintzairan eta kulturari integrazteko eskumen eta baliabiderik aski ez izaki, duela berrogei urte bezalatsu, jarraitzen dugu euskaldunok gutxiengoan geure herrian.

Hirugarren eta azken oinarri gisa, euskararen balio integratzailea aipatu zigun.

Biharko Euskal Herria euskalduntzen ez badugu, (.) esan dezakegu hori ez dela Euskal Herria. Euskal Herriari lokarri bat eman behar diogu. Zein lokarri emango diogu? Arraza? Denok dakigu gure geroko Euskal Herriari ezin diogula arraza eman. Erlijioa? Honetaz ere denok dakigu Euskal Herrian badirela erlijio gabekoak, beraz ezin diogu eman. Dantzak eta ohiturak? Beno, honekin ere kontsola gaitzke, baina sasi-folklorezko Euskal Herri bat egingo dugu eta hori ez da nahiko. Beraz, benetako Herri bat sortu nahi baldin badugu eta bere buruaren jabe izan nahi baldin badu oinarri nagusi bat behar dugu eta oinarri hau Euskara da.

Alde horretatik, zer esango ote zuen, Ertzaintzaren lehen burua izan zenak egungo ertzainen euskara mailaren berri izan balu? Jakingo duzue Monzonek baldintza ezinbesteko gisa ezarri zuela ertzain izateko euskalduna izatea. Zer jokabide izango ote zuen ertzainekin gaztelaniaz egin beharra suertatuz gero, edota Osakidetzan edo Lakuan, edota ikusi balu, bera hil eta laster sortutako EITBn aurrekontu gehiena erdal kateak eramaten duela eta maizenik espainiarren eskola dela, erreferentzia espainiarrez mukur.

Telesforo hil zenetik berrogei urtera, autonomismoa eta erdaltzaletasuna daude boladan. Euskara hegemoniko bilakatzeko xedea eta euskal abertzaleen batasuna tabu ditugu, bereziki PNV-PSEren Eusko Jaurlaritzaren erabakiz eta aginduz.

Zenbat dugun eginkizun oroitarazteko balio dezake Telesforo Monzonen borroka abertzalearen berri izateak, martxoaren 9an, utzi gintuela berrogei urte beteko direnean!

15. Hizkuntza-berdintasuna: ipuina eta ametsa! (2021-03-02)

Oraindik orain izan dugu “Ama-hizkuntzak: denon ondarea” deritzan artikulua irakurtzeko parada prentsan. Valentziar Gorte, Galiziako eta Balear Uharteetako eta EAE eta Nafarroako parlamentuetako presidentek sinatua, Unescok otsailaren 21ean Ama-Hizkuntzen Nazioarteko Eguna ospatzen duela profitaturik. Esanguratsua begitantzen zait Kataluniako parlamentuko presidentek sinatu ez izana. Zergatik ote?

Baina gatozen artikulua mamira. Aipatzen dute idazkiaren sinatzaileek erantzukizun publikoak dituztela bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia-erkidegoetan, eta horregatik, bi hizkuntza ofizialak berdintasunean eta inolako diskriminaziorik gabe gero eta normalizatuago erabiltzen saiatzen direla. Aldi berean, babes berezia ematen omen zaie hizkuntza mendeetan gutxitutakoei:

“Izan ere, herri-administrazioek bermatu egin behar dute herritarrek bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko duten eskubidea, bai eta hizkuntza horien ezagutza bermatuko duten hizkuntza-politikak gauzatzeko ere. Esparru horretan ere esperientzia handia dugu hizkuntza koofizialen normalizazioan eta hizkuntza horiek ikastea bermatuko duten hezkuntza-sistemak sustatzen”.

Zer pentsatuko eta/edo sentituko ote dute nafar euskaldunak aldatu ditugun hitz autokonplazentziako horiek irakurrita? Eta EAEko euskaldunok? Gure eguneroko bizitzan zenbat aldiz utzi behar izaten dugu ama-hizkuntza edo hitz egin nahiko genukeen hizkuntza alde batera, eta gaztelaniara igaro?

Euskal Herriko zenbat etxepetako bilera egiten dira euskaraz?, zenbat euskaldun gaude behartuak euskara baztertzerantz, bestela, berehala esaten digutelako ez gaituztela ulertzen, eta ezin delako aurrera egin?

Etxepetik beste era bateko jendaurreko bileretara iraganik, Euskal Herriko zenbat bilera publikotan baztertu behar izaten dugu euskara eta gaztelaniara jo, bilera-antolatzaileek ez dutelako hizkuntza-neurririk hartzen euskaldunok eroso mintza gaitzeen geuk nahi dugun hizkuntzan?

Batzuetan, gertatzen da bilera-antolatzaileak euskaldunak direla, baina jakinik bilera-partaide guztiak ez direla elebidunak izango, euskararen erabilera gutxi-asko sinbolikoa egin ohi dute; azkenean, denak “natural-natural” gaztelaraz mintzatzeko. Ez dakit zer den hobe: elebarrak gaztelaniaz antolatutako bilera publikoak -orduan, badakigu nora goazen-, edo elebidunek gaztelaniaz antolatutakoak. Bi elebidun dira hizlariak, eta galderak euskaraz edo erdaraz egin daitezke; teoriarik, baina antipatiko gertatzen da, ze badakizu askok ez dizutela ulertzen, eta tentsioa sortzen duzula.

Horrelakoetan, bi bide egoki ikusten ditut euskaldunok Euskal Herrian gaztelaniara igarotzeko beharrik ez izateko: bata da bi talde egitea, euskaldunena eta erdaldunena. Bestea, aldibereko itzulpena jartzea. Azken aukera hau guztiz egingarria da eta, egungo teknologia mugikorrei esker, inoizko merkeena, baina borondate apur bat eskatzen du, eta alde aurretik barneratzea interpreteak kontratatu beharra.

Gehienetan, errazena delako, jendaurreko bilera gaztelaniaz egiteko hautua egiten da. Kohesio-hizkuntza gaztelania. Gaztelaniadun elebarrak ez dute euskara ikasi beharrik. Euskaldunak onartu

behar du gaztelania dela jendaurreko hizkuntza, eta praktiko izanik hobe duela gaztelaniaz erraztasuna lortu, eta ahal badu, ama-hizkuntza erdara dutenek baino hobeki egin, oratoria dohainak gaztelaniaz landurik, eta, jakina, erabiliena da egokien ezagutzen dena, eta erabiltzen ez dena gutxi landua gelditzen da, hizkuntza nagusiaren premia tristean. Non dago hizkuntza-berdintasuna? Auzoan! Ama-hizkuntza gaztelania dutenen aldean.

Noiz izango dugu posible euskaldunok Euskal Herrian, jendaurreko bileretan, euskaraz egitea natural-natural, erdaldunek egiten duten bezala, pentsatu beharrik izan gabe batzuek ez digutela ulertuko, batzuek bekozkoa jarriko digutela edota modu onez edo txarrez hizkuntzaz aldatzeko eskatuko digutela, bizikidetzat linguistiko harmoniatsuaren izenean?

Horri buelta emateko agintariek, besteak beste, parlamentuetako presidenteez, bai diskurtso publikoan, eta batez ere erabaki politikoetan, euskararen unibertsalizazioaren beharraz hitz egin behar dute behin eta berriz, eta hura lortzeko plangintza zorrotzak burutu, jarraipen estua egin eta jendaurrean horren berri eman, euskal herritarrek argi ikus dezan euskalduntzearena serio doala Euskal Herrian, eta euskara ikasteko betebeharra duela euskaraz egin nahi duena ez oztopatzeke, eta euskaldun osoa sentitzeko, behingoz, kontxo!

Abiapuntutzat hartu dugun artikulua honela amaitzen da:

“Ama batek alabari bere sentimenduak bere hizkuntzan adieraztea munduko gauzarik naturalena da, gehiegitan horrela izan ez bada ere. Europako ezein lurraldetan inor ez dadila gehiago bere ama-hizkuntzari, altxor handi berezi eta denona den horri, uko egitera behartua sentitu”.

Oso mezu kuttuna da, baina Euskal Herrian bertan, Euskal Herrian bakarrik, ehun bat ama-hizkuntza dituzte bertako herritarrek, eta horietatik gaztelania eta frantsesa bakarrik eskubide guztiekin, bakoitza bere lurraldean, eta euskaldunoi dagokigunez, hizkuntza-berdintasuna 2021ean, ipuin samin-sumina da. Noiz arte jarrai dezake, onenean, etorkizunerako ametsa izaten?

16. Arnasguneak gogoetagai. 2021-03-22

Dakizuen bezala, oraindik orain Nafarroako eta EAEko erakundeetako ordezkariak Etxarri-Aranatzen izan dira, nagusiki edo behintzat modu nabarian euskaraz bizi diren herriek duten garrantzia aitortzeko eta balioztatzeko, eta halakoek erreferentzia izaten jarrai dezaten bultzada emateko. Zergatik ikusi da horren beharra?, arnaseguneetako euskararen erabilera-datuak okerrera egiten dihardutelako. Egin dezagun gogoeta poxi bat arnaseguneen garrantziaz.

Hasteko, aitortu behar dut arnaseguneen kontu honek aspalditik irudi desatseginak sortu izan dizkidala gogoan: Ameriketako indio erreserbak, Hego Afrikako bantustanak... Bai, badakit ezberdinak direla hiru errealitateak, eta horien artean lotura arrazional handiegirik ez dagoela, nire garun irrazionalaren irudikeriaren ondorio baino ez direla, baina ez dezadan azkarregi gogoeta bertan behera utzi.

Etxarri-Aranatzek bi mila eta bostehun bat biztanle ditu. Kontsultaturiko informazio-iturriek engainatzen ez bagaituzte, horietatik euskaldunak lautik hiru edo dira, hots, bi mila inguru, eta erabilerari dagokionez, bi solasalditik kasik bat, euskaraz egiten da. Bistan dagoenez, ezagutza horrekin erabilera hori altua da. Datu zehatz gehiago beharko genituzke egoera soziolinguistikoaz erretratu osatuagoa izateko. Pare bat mila euskaldun horietatik zenbatak egingo ote dute bizitza nagusiki Etxarri-Aranatzen? Batzuk Altsasura joango dira lanera, beste batzuk Iruñera. Uste izatekoa da euskaldun horiei egunaren buruan maiz gertatuko zaiela gaztelaniaz egin beharra, eta, beharbada, bizi diren baldintza soziolinguistikoetan, askoz gehiagotan ere ezin dute euskara erabili. Eta baliteke, beharturik, erdaraz egiteko ohitura hartu izana -gurean erdaraz ondo ez dakiena, benetan errukarria da-, eta euskara gero eta atzenduago eta kamutsago izatea eta horregatik gutxiago erabiltzea.

Orduan, gauzak horrela, arnaseguneetako euskaldun batek baino gehiagok pentsa dezake: zergatik esaten ari zaizkigu instituzioetatik, mendeetan gutxietsiak eta baztertuak eta jazarriak izan garen euskaldunon hizkuntza hau atxiki dugulako pribilegiatuak garela, eta horregatik erantzukizuna ere badugula euskara gehiagotan erabiltzeko, euskaldun txarrak izan nahi ez badugu! Zergatik ez dituzte baldintza egokiagoak bermatzen euskara gehiagotan erabili ahal izan dezagun?

Euskaldunok erdara derrigor ikasi behar izan dugu, eta gaurko egunean ere derrigor erabili beharrean gara hainbat instituzio publikotan, eta zer esanik ez pribatuetan, eta gainera instituzioek berek aditzera ematen digute, gehienetan, era batera edo bestera -esaterako, ETB2ren bitartez, euskaraz hobeki moldatzen diren elebidunak ere erdaraz mintzatzera gonbidaturik-, biak ditugula gureak, eta horrenbestez, biak erabili behar ditugula, udalerrri euskaldunetan eta ez direnetan, eta orain zer da-eta,

arnasguneek gero eta arnas euskaldun gutxiago dutela eta, euskaraz egitera adoretzen gaituzte!
Kontraesanak?, hipokrisia?

Batzuek nahiago dugu euskaraz hitz egin eta euskaraz idatzi erdaraz baino, eta ez daukagu inork esan beharrik euskaraz egiteko, eta halakoak badaude udalerrri euskaldunetan eta ez euskaldunetan ere, eta hala jarraituko dugu/dute, baina ez zait koherentea iruditzen helmuga bezala guztiz ezinezkoa den elebitasun orekatua duten erakundeetako ordezkariak udalerrri euskaldunetako euskalduneri koherenteak izatea galdegitea.

Koherentzia gehiago ikusiko nuke udalerrri ez euskaldunetan -denok dakigu zenbat erdal arnagune dauden!-, eta batez ere gure lau hirietan -Euskal Herri penintsularraz ari naiz-, benetako kanpaina eraginkorrak egingo balituzte instituzioek, haiek gero eta euskaldunagoak izan daitezzen, eta kanpaineekin batean, baliabideak eta neurriak hartuko balituzte, euskararen erabilerak behera egin beharrean gora egin dezan.

Hala egitera, ziur egon, egun euskal arnasa galduz doazen arnaguneak ere arnasberrituko lirateke erabilera areagotuz, eta euskararen ardura arnaguneetako euskaldunen gain egotetik denon bizkar gainean egotera igaroko litzateke.

Euskal udalerrriak ez dut uste behiala, Errenazimentuaren hasmentan, Italian errepublikak izan ziren bezalatsuko udalerrri aske euskaldunak izan daitezkeenik, egun indarrean dauden legeekin; denak ere, 1978ko Konstituzio espainiarrentzat sakratutik eratorritakoak, eta egungo joan-etorri guztiz hedatuak kontuan harturik, eta halakoak gero eta euskal arnas gutxiagorekin gera litezke, pixkanaka lurralde osora hedatuz joan ezean.

17. Larrialdi linguistikoaren aroan (2021-04-28)

Oraindik orain jakin dugu Arrue ikerketaren 2017ko txostenaren berri, duela lau urtekoa izanagatik. Eraitza nagusia: LH4ko eta DBH2ko ikasleek eskola eremu guztietan egin dute atzera euskararen erabileran. D ereduko gaztetxoaren artean, handiagoa izan da jaitsiera.

Azkenaldian, ohikoak bihurtu dira gisa horretako berriak, eta ez gaituzte jada harritzen –zorionez, halere, ez gaituzte axolagabe uzten–; eta, apenas, erantzunik sortzen duten erakunde eta alderdi politikoaren aldetik. Zer gertatzen ari zaigu?

Euskarak balio digu euskaldunak garelako berresteko. Ez da nahikoa euskaraz jakite hutsa, ingeles jakite hutsa aski ez den bezala ingelesez izateko, baina ezinbestekoa da. Ez da nahikoa bi hitz jakitea euskaraz, eta zein lurraldetan bizi zaren, hango futbol taldeko zalea izatea. Ez da nahikoa hemengo janariaren eta hemengo klimaren hutsunea nabaritzea kanpoan zaren; ezta bizi-maila hobexeari dugulako hemengo sentitzea ere, ez, euskaraz jakin beharra dago euskalduna izateko, bestela erdalduna izango zara Euskal Herrian. “Eta zer?”, pentsatu eta esaten ere dute hemengo askok: lasai ederrean bizi liteke erdaraz Euskal Herrian. Eta arrazoi dute, noski! Eta gure anormaltasunaren seinale garbiena da.

Ondo etortzen da irakaskuntzan edo administrazioan edo hedabideetan lan egiteko euskaraz jakitea. Batzuetan beharrezkoa da, baina gehienetan, nahikoa da ezagutza apal bat, erabili beharrik izan gabe. Eta dudarik gabe garrantzizkoa da irakaskuntzan, administrazioan eta hedabideetan, batzuetan beharrezkoa izatea, eta ezagutza apalagoa edo handixeagoa behar izatea, nahiz eta erabili beharrik ez egon, gutxiz gehienetan. Baina hiru arlo horietan ere, leku zabala izan dezakezu euskaraz jakin gabe, edo apenas jakin gabe, eta halakoak esan dezake bost axola zaiola euskararik ez jakitea, erdaraz lan egiteko arlo horietan ez duela batere arazorik eta.

Erdara, aldiz, euskalduna izan edo ez, behar-beharrezkoa dugu Euskal Herrian bizitzeko. Aldamenekoarekin hitz egiteko beharrezkoa izan dezakegu, edota etxepeko batzuekin, edo askorekin, mintzatzeko. Beharrezkoa izan dezakegu ertzainen batek lanera bidean baimena eskatzen badizu; beharrezkoa izan dezakezu ospitalera edo anbulatiora zoazenean; postetxe gehienetan, merkataritza-establezimendu eta taberna edo jatetxe askotan, edo gehienetan. Beharrezkoa duzu polizia nazionalekin, guardia zibilekin... Ezinbestekoa duzu filmak ikusteko telebistan edo zinema-aretoetan. Askok aukera zabalagoa duzu arlo askotan erdaraz euskaraz baino...

Egoera honi jendartean buelta ematen hasten ez garen bitartean, sarreran adierazi dugun bezalako albisteak entzuten eta deitoratzen jarraitu beharko dugu honi buelta eman nahi diogunok. Eta erakunde eta alderdi politikoetako buruek zer diote?, bost axola, herritarrok jarrera gogorragoa eta kontsekuenteagoa hartu zain?

Herritarren ahalegina axola handikoa da, noski, baina guztion dirua kudeatzen dutenena are axola handiagokoa. Irakaskuntza, administrazioa bere arlo guztietan eta hedabideak eta Internet euskalduntzeko neurri eraginkorragoak hartu ezean, eta euskarak burujabetzarako ere duen garrantzia azpimarratu ezean, beharrezko joango da euskararen erabilera goraka joan daitekeen eta joan behar lukeen lurraldean, hots, Euskal Herrian.

Urte asko (gehiegi) daramatzagu esaten “bidegurutze” batean gaudela; ohartarazten oraingoa berebiziko “inflexio puntua” dela; “paradigma aldaketa” bat behar dugula lehenbailehen; errotiko aldaketarik ezean euskararenak egin duela... Eta aldaketarik ez dator. Urteak joan, urteak etorri, lehengo inertzien eta jokabideen mendeko gaude, bai makropolitikaren jokoan –euskararen lege xaharkituak berritzeko kontsentsu falta beti–, bai norbanakoen eta taldeen hizkuntz portaeren mailan ere.

Eta esan gabe ere, garbi ikusten da euskarak bere kaskarrean lege aldetik baldintzarik onenak dituen erkidegoaz ari garela batez ere, zeren Nafarroa Garaia gehienez, eta Euskal Herri kontinentalean, kontraktotasunak are handiagoak dira, Frantziako Asanblea Nazionalean ustekabean onarturiko hizkuntza gutxituen legerari, berehala helegitea jartzeak aditzera ematen duen bezala.

Gustatu zein ez gustatu, osasun eta ekonomia eta klima larrialdiei, gurean euskaldunon larrialdia erantsi behar. Ageriko dramatismoak gabe, jakina, ikusezintasuna da-eta hizkuntzak desagertzeko prozesuen ezaugarri bitxiak. Osasun larrialditik txertoak salbatuko omen gaituzte; klima larrialdiak luze joko du, eta, gure larrialdi linguistikoak ere bai. Txerto eraginkorrik ez izanik, noizko euskara Euskal Herrian ezinbesteko bihurtzeko gailurrak eta neurriak eta araberako diskurtsoa?, beranduegi izan baino lehen bai?

18. Autodeterminazioaren beharra (2021-05-12)

Egungo 78ko erregimenarekin kontent dauden historialari eta intelektual eta alderdikide espainiar eta euskotar-euskaldunentzat ere, Franco hil ondoko trantsizio espainiarra (aski) eredugarria izan zen. Juan Carlos erregeari, Adolfo Suarez, Felipe Gonzalez eta Santiago Carrillori esker, frankista ohi eta opositore ohien arteko ituna tarteko, baketsuki igaro ginen Francoren diktaduratik monarkia parlamentaria eta "Movimiento Nacional"-etik bi alderdi estatuen alternantziara, AEBetan edo Europako estatu gehientsuenetan bezalatsu.

Badakigu Euskal Herrian errepresioa basatia izan zela, inondik ere ez baketsua, eta alderdi-bitasunik ez dela egon, baina gurean ere, Espainiako Konstituzioa eroldaren %35ak bakarrik onartuagatik, autonomi estatutuari emandako baitzarekin, nolabaiteko zilegitasuna eman zitzaion, estatutuak askatasunera errazago iritsiko ginelakoan edo, eta kontra soilik HB eta talde armatua(k) posizionatu zirela.

Alabaina, Trantsizioarekin kritiko agertu diren hainbat autore espainiarrentzat, eredugarri ez baizik eta posible zenaren frustrazioa izan zen --A. García-Trevijano, J. Navarro Estevan, J. Vidal-Beneyto, G. Puente Ojea, A. Guerra Gil, Gregorio Morán, etab.--. 1976-1978 bitartean ez zen prozesu eratzaile demokratikorik egon. Horretarako, behin-behineko gobernu bat osatu behar zen, sufragio unibertsalez hautaturiko Gorte Eratzaileak osatzeko eta hark Konstituzioa idazteko; eta hauteskundeak demokraziaren aurkako murrizketarik gabe eta askatasun publikoen araubidean burutu behar ziren. Ez zen betekizun horietatik bat bakarra ere bete.

Felipe Gonzalez Manuel Fragaekin 1976ko martxoan elkartu zen --1974an izan zituen lehen harremanak alderdi klandestinoak frankistekin--, Gasteizko hilketen ondotik, eta urte hartako abuztuan, birritan bildu zen Adolfo Suarezekin, afaria barne, frankismoak erreforma politikorako jartzen zituen baldintzak ikasteko, eta, funtsean, haiek onartu beharraz, bere gogaideekin batean, alderdiko militanteak konbentzitzeko. Monarkia edo errepublika hautatzeko plebisziturik ez, lehendabizikoa. Handik eratorri ziren laster, indar armatuek inposaturiko estatuaren zatiezintasuna; autodeterminazio eskubiderik eza, eta autonomien Espainia; gaztelania derrigorrezkoa; beste hizkuntzak ez; merkatu ekonomia, eta NATOn sartzea, eta Eliza katolikoaren pribilegioen berrespena.

Ahaztu beharra zegoen kolpe militar faxista, klase menderatzaileek herri-klaseak menperatzeko gerra, haren ondoko 40 urteko diktaduran gertaturiko errepresioa eta eskubide zibil-politikoaren urraketa larri-iraunkorrak, kontsentsuaren eta espainiarren arteko berradiskidetzaren izenean. Eta, horretan, paradoxikoki, frankismoan oposizioan egondako indarrak nabarmendu ziren: PSOE eta PCE bereziki, eta halaber beldurra ereiten ere; frankistei beren marra gorrietan amore eman ezean, berriz ere matxinada armatura joko zutela eta. Ahaztu Errepublika, ahaztu planteamendu konfederalak eta autodeterminazio eskubideak, eta 1977ko ekainean egingo ziren hauteskundeetarako prestatu behar zen, horrek ekarriko zuen eta aldaketa.

Alemaniko alderdi sozialdemokratik --Willy Brandt buru zela-- eta AEBetako alderdi errepublikanoak ere zerikusi handia izan zuten --Henry Kissinger eta Gerald Ford--. Juan Carlos Borboikoa Kapitolioan izan zen 1976ko ekainaren 2an, zer egin nahi zuen azaltzera joanda, eta hango eliteen oniritzia lortzera.

Suarezen gobernuak ezkerreko poltsikotik ateratako Ponentzia Konstituzionalean, Puente Ojearen arabera –frankismoan eta PSOErekin ere diplomatiko izana zenez, ongi ezagutzen zituen--, honako profileko politikariek ordezkatu zituzten espainiarrak –euskaldunok ez genuen ordezkariarik izan--: bi frankista eta katoliko irmok (Gabriel Cisneros eta Manuel Fraga); hiru monarkikok (Miguel Herrero, G. Peces Barba, eta Miguel Roca, katalanista, katoliko eta kontserbadorea) eta José Pedro Pérez Lorca transfugak eta Jordi Solé Tura, PSUC eta PCEren morroiak.

Euskal Herrira etorrita, eta zehazkiago PNVrengana, Mixel Unzetak dio eztabaida konstituzionalean PNVk ez zuela autodeterminazioaren gaia planteatu. Letamendiak eta Goyo Monrealek bai. Letamendiak zioen Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1966ko abenduan onartu eta 1976ko martxoaren 23tik indarrean den Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunari jarraikiz –169 estatuk berretsia; tartean, Espainia--, Euskal Herriak eskubidea zuela autodeterminatzeko, eta horrenbestez, hori nola egin azaldu zuen bigarren zatian. Goyo Monrealek zioen gorago aipaturiko itun hori legedi espainolaren parte zenez gero, besterik gabe, har zitekeela autodeterminatzeko erabakia.

Kongresuko Batzordean PNVk onartu zuen Letamendiaren zuzenketa, baina gainerako bozketetan abstenitu egin ziren. Zergatik? UCDek esaten omen zien xedapen gehigarriaz hitz egin zitekeela, baina autodeterminazio eskubideaz ez –J. Ugarte (Ed.): La transición en el País Vasco y España. UPV/EHU. 1998. 190-191orr--. Itun foralaren bitartez autodeterminazio modu batera iritsi zitezkeela pentsatu zuten, eta foruen aurrekari historikoa egoteaz gainera, “politikoki salgarriagoa” zela. Orduan, autodeterminazio-eskubidean amore eman zuten, eskubide historikoen gaineko xedapen gehigarria adostu zuten, eta ibili-ibili eginda, orduan egindako amore emateek eta erabakiek PNV-PSOEn Euskadi foralera ekarri gaituzte.

Pandemiak erakutsi digu, besteak beste, gure menpekotasun politikoa --eta politikoarekin batera, sozioekonomikoa eta linguistiko-kulturala--, zenbaterainokoa den eta zein egoera urrikgarrian gauden alde askotatik. Ondorio gisa, inoiz baino beharrezkoagoa dugu euskaldunok autodeterminazioa eta euskal errepublika berri bat sortzea.

19. Selektibitatea eta hizkuntza-literaturak (2021-06-07)

Egunotan, dakizuen bezala, adinaren lorean daudenak selektibitateko azterketak egiten ari dira Euskal Herri penintsularrean. Zientzia eta Letretako gaiez gain (Matematika, Fisika, Historia...), Euskara eta Literatura II, Gaztelania eta Literatura II, eta Ingelesa –ingelesa soilik--. Seme gazteenari galdeturik hizkuntzen lanketa nola ari den prestatzen, duda-mudarik gabe erantzun dit: euskara eta ingelesa ez dago errepasatu beharrik, baina gaztelania bai. -A, bai?, noan iazko azterketa ikusmiratzera!

Interneteko bilatzaileak berehala narama iazko ohiko azterketara (<https://www.ehu.es/documents/1940628/23172319/Euskara+eta+Literatura+II.pdf/>). Euskara eta Literatura II-n, Karmele Jaioren honako artikulua hau, irakurriaren ulermeneko galderetarako (aukera anitzekoak: a, b, c, d; egia ala gezurra, eta abar), eta idazlana egiteko ere bai. Hona testuaren laburpena, eta idazlana egiteko aukeretako bat:

Erraza

Zerbitzari hori, barrara iritsi aurretik zuri begira dagoena, itxaron beharrik izan ez dezazun; lankide hori, lanez lepo zaudenean zure telefonoa berera desbideratzen duena; oportetara zoazenean etxeko landareak ureztatzen dizkizun auzokidea; ikasgaia berriz azaltzeko pazientzia duen irakasle hori, modu batera ulertzen ez baduzu beste modu batera azalduko dizuna (...)

Denok ezagutzen dugu pertsona horietako bat. Bizitza errazten diguten pertsonak dira. Bizitzaren makineria koipeztatzen duen noizbehinkako oparia dira. Izan ere, bizitza berez zaila da.(...)

Idazlana egiteko bi aukera eskaini zituzten iaz; bata, gutuna, eta, bestea, iritzi-artikulua. Ziur hamarretik hamarrek ez bada bederatzik gutuna hautatu zutela. Gaia, gorago aldatu dugun testuarekin erlazionatua:

Testuak dio, besteak beste, denok ezagutzen dugula bizitza errazten digun pertsonaren bat. Zuk ere inguruan izango duzu zeure bizitza errazagoa egiten ahalegintzen den norbait. Idatz iezaiozu gutun bat pertsona horri, eskerrak emanez bizitzak hainbat unetan pasarazi dizkizun une zail horietan hor egoteagatik eta zuri laguntzeagatik.

Oso gai polita gutuna egiteko eta azterketa gainditzeko ere. Egia da gisa horretako azterketarako ez dagoela estudiatu beharrik. Maila ona duenak ederki egingo du, maila erdi-bitartekoa duenak erdipurdiago, eta txarra duenak txarto.

Gatozen Gaztelania eta Literatura II-ra, labur-zurrean. Hasieran Milagros Hervadaren testu bat, eta euskarakoan bezala, galderak eta erantzunak eta idatzia egiteko gaia, testuarekin lotua. Baina azterketariari gehiago eskatzen dioten galderak. Hona lagintxo bat:

5B. Indique qué registro predomina en el texto <<Combatir armas con armas>>. Argumente su respuesta, indicando, al menos, dos características de dicho registro. Ejemplifique su respuesta

con citas del texto. (80 palabras: no se incluirán en el cómputo de las 80 palabras las citas del propio texto) (1 punto)

Secuencias

1. ¿Qué hacer para que los fuegos no acaben con los árboles?
2. Entran en las escuelas y disparan a todo lo que se pone por delante.
3. No se concibe que un profesor pueda ir armado.
4. Cuando algunos proponen en sus programas electorales poder llevar armas se me hiela la sangre.

Elige una de estas opciones de respuesta:

- a. 1. Subordinada final. 2. Coordinada disyuntiva. 3. Subordinada de relativo. 4. Subordinada temporal.
- b. 1. Subordinada final. 2. Coordinada copulativa. 3. Subordinada sustantiva. 4. Subordinada temporal.
- c. 1. Subordinada concesiva. 2. Coordinada adversativa. 3. Coordinada ilativa. 4. Subordinada temporal.
- d. 1. Subordinada sustantiva. 2. Coordinada disyuntiva. 3. Subordinada consecutiva. 4. Subordinada temporal.

Horretaz gain, beste bi testu, bata, Isabel Allenderen "La casa de los espíritus"-etik aldatua, eta, bestea, Antonio Machadoren bertso batzuk, eta haien gaineko galderak. Ez luzatzearren, Machadoren bertso eta galderetara mugatuko naiz:

I

El ojo que ves no es

ojo porque tú lo veas;

es ojo porque te ve.

XV

Busca a tu complementario,

que marcha siempre contigo,

y suele ser tu contrario.

LI

Demos tiempo al tiempo:

para que el vaso repose

hay que llenarlo primero.

Esan egia ala gezurra diren:

- a. Los versos de I se refieren a la pérdida de identidad del ser humano.
- b. Los versos de XV muestran la complejidad del ser humano.
- c. Los versos de LI hablan de lo esencial del tiempo en el desarrollo de la vida.
- d. En todos los poemas predomina el carácter íntimo y emotivo y el poeta muestra sus propios sentimientos y conflictos.

Ingelesekoari ere begiratu bat emanik, ikusi dut euskarakotik askoz hurbilago dagoela gaztelaniakotik baino. Esan liteke euskara eta ingelesa maila bertsuan daudela azterketan -euskaran gehiago eskatzen da, beharbada-, eta, gaztelania, aldiz, gorago. Euskara eta ingeleserako ez bezala, gaztelaniarako errepatatu beharra dago, gehiago eskatzen delako. Zergatik eskatzen da gehiago? Erantzuna zure esku irakurle!

20. Heribert Barreraren ikuspegi jeniala (2021-06-21)

Gurean ez da ezaguna Heribert Barrera. Labur-zurrean, katalan politikari eta kimikaria izan zen, eta ERC alderdikidea (Bartzelona, 1917-2011). 1977tik 1980ra diputatu Espainiako Kongresuan; 1980-1984 artean, Kataluniako Parlamentuko lehenbiziko presidentea, eta 1991-1995 artean, ERC alderdiko burua. Zientzialari gisa, artikulu ugari idatzi zuen, ohore franko bildu ere bai, eta politikari gisa; erreferente, batetik, eta bestetik, polemikoa izan zen.

Haren esan batzuk polemikoak dira, berez hala direlako, eta manipulatu egin direlako, eta beste batzuk ikaragarri argiak eta oso gogoan hartzekoak, eta, autore egia izan zen dudarik gabe, sinesten edo pentsatzen zuena aditzera emateko indarra izan zuena, unean uneko komenientziak eta “zuzentasun politikoak” bazter utzirik.

1978ko maiatzaren 5, 8 eta 9an, Konstituzio Gai eta Askatasun Publikoen Batzordean konstituzio proiektuaren debate orokorra egin zen. Hitzartzeetatik zati bat “nazionalitateen” aferari eta “nazio espainiarraren” izaerari eskaini zitzaion. Zer zegoen eztabaidaren muinean? Bada, ea nazio bakarra zegoen Espainiako estatuaren lurralde barruan, hots, espainola, eta hiru nazionalitate berezi, galego, katalan eta euskalduna; eta, zer esan nahi zuen “nazionalitate” hitzak, ea estaturik ez zeukaten nazioak izendatzeko balio zuen, eta, horrek autodeterminazio eskubidea berekin zekarkien hiru nazionalitate horiei, eta, horrela izatera, Konstituzioan, nola jaso behar zen errealitate hori.

Frankismoan nagusi izan zirenek eta nagusi izaten jarraitu nahi zutenek –Licinio de la Fuente, kasu, Lan ministro ohia frankismoan, eta Alianza Popular alderdiko liderretako bat--, ukatzen zuten posible zenik batasun nazionala aniztasun nazionaletik planteatzea, eta nahi ziren interpretazio doktrinalak egin zitezkeela zioten, baina Espainiako herriei nazio izaera aitortuz gero, hortik ondorio logiko gisa autodeterminazio eskubidea ezagutzea zetorrela. Horretan Heribert Barrerarekin bat zetorkien, katalanak justu kontrako helburua izanagatik.

Orduko alderdi politikoen ordezkarien zentralitateak –UCD, PSOE, PCE, CDC, PNV eta abar--, zentralitatea marko espainolaren barruan noski, bakoitzak bere ñabardurekin, zioen funtsean, “nazionalitate” kontzeptuak orduko hartan autonomia izateko eskubidea esan nahi zuela, hots, Galizia, Katalunia eta Euskadiri autonomia zegokiela, eta, horrek ez zuela autodeterminazio eskubidea inplikatzeko.

Testuinguru hartan, Heribert Barrera izan zen ahots katalan bakarra konstituzio proiektu osoari ezezkoa ematea aldarrikatu zuena. Zergatik? Beste eragozpenak beste, Espainiako estatuak albo batera uzten

zuelako estatuaren benetako izaera. Espainia osoari ezin zitzaizkion Nazio eta Aberri kontzeptuak aplikatu, zeren eta Espainiak Estatuaren egungo lurralde guztia hartzen badu, Espainia ez da nazio bat, baizik eta Estatu bat zenbait nazioz osatua. Aspaldiko garaipen militarrek eta 1939ko garaipena ez ziren aski Nazio espainola eratzeko. Konstituzioa benetan Espainiaren neurrira egina izatera, hark adierazi behar zuen burujabetza Espainiako nazioen herrietan zetzala, eta herri haiek bereizita burujabe izanik, elkartu egiten zirela Estatu amankomunean, guztien mesederako. Estatu zen bere funtzioak legitimatuak ikusi behar zituen hura osatzen duten nazioek hari espresuki eta partzialki egindako burujabetza-lagapenen bitartez (Molinero, Carme; Ysàs Pere: La cuestión catalana. 2014, 238-245).

Jakina, Heribert Barreraren ikuspegi konfederala ez zen aurrera atera. Hargatik daukagu harlauza moduan buru gainean, aske izan nahi genukeenok, Konstituzioaren 2. artikulua:

La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, y reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que la integran y la solidaridad entre todas ellas.

Hori 1978ko eztabaidan. Gatozen orain mende honen hasierara. Enric Vila kazetariari adierazitakoaren arabera, trantsizioari buruz honela zioen:

La transició va ser un desastre perquè no s'hauria d'haver acceptat de cap manera que les primeres eleccions les convoqués un franquista com en Suárez, amb un govern format per franquistes o simpatitzants del règim. Jo sempre he estat contra aquesta idea de la reconciliació i que hem d'esborrar la Guerra Civil i ja no n'hem de parlar mai més. No, no, no! L'oposició s'hauria d'haver mantingut ferma i no hauria d'haver acceptat de cap de les maneres que les primeres eleccions democràtiques les fes un govern de franquistes; com a mínim havia de ser un govern meitat-meitat. I amb totes les garanties i sense la monarquia com una cosa prèvia (què pensa Heribert Barrera, entrevistat per Enric Vila. Deria. 2001, 52 or.)

Liburu berean, honako adierazpenak egin zituen beltzei buruz:

Alguns pretenen que els negres són, de mitjana, una mica menys intelligents que els blancs, però la intelligència és el resultat de factors molt diversos arbitràriament escollits i per tant estem en un terreny científic mal definit. (...)

El quocient intel·lectual dels negres dels Estat Units és inferior al dels blancs. Ara, això no és una prova, perquè els tests utilitzats per determinar-lo no poden corregir prou la influència del medi en què es viu, l'entorn familiar, etcètera. D'altra banda, és absolutament segur que si hi ha diferències són inferiors a la variabilitat individual. És a dir, suposant que col·lectivament fossin una mica menys intel·ligents això no voldria dir que una persona negra determinada no pogués tenir un quocient superior al dels blancs. En tot cas, de la mateixa manera que físicament s'accepta que els negres tenen més aptituds en la cursa de velocitat, per exemple, no hi ha cap raó científica per creure que hi poden haver diferències en la intel·ligència, cosa que no necessàriament implica superioritat o inferioritat perquè, com he dit, el que anomenem intel·ligència és el resultat de components diversos (96-97).

Erantzun horretatik, begitan zutenek hau bakarrik jaso zuten: "En América, los negros tienen un coeficiente inferior al de los blancos", eta hala dakar gaztelaniazko wikipediak.

Urte berean, El periódico de Cataluña egunkariak egindako elkarrizketan, honako iritzi hauek agertu zituen: "antes hay que salvar a Cataluña que a la democracia", uler bedi "demokrazia espainola" eta Katalunia nazio gisa; eta, halaber: "el bilingüismo implica la desaparición de Cataluña como nación". Beste artikulu bat beharko genuke tesi horiek nola zurrizten zituen azaltzeko.

Gustura irakurri izan dudanez autore egia da, ausarta eta originala oso. Pena, bere idatzi edo adierazpenak eskura errazak ez izatea gurean.

21. Gaztelaniaz idaztea, banitate kontua! (2021-06-28)

Izenburuko esaldi hori, lau urtez ezker abertzaleko kideetan inoiz inork izan duen botere instituzional handiena izandakoak emandako erantzuna da, Berria egunkariko kazetariak galdetuta (2021-06-27), ea zergatik aritu den gehienetan gaztelaniaz eta ez euskaraz. Zer-pentsa ematen du, ezta?, gure barneko kolonizazio onartuaren tamainaz.

Kazetari zaildua da erantzun hori eman duena, Egin, Euskadi Información eta Gara-n aritu da, irratian halaber, eta Gipuzkoako diputatu nagusi izan zen 2011tik 2015era. Bergaran jaioa, eta ez edonon, baizik eta leku enblematiko batean: monzondarren Olaso dorrearen hirugarren solairuan hain zuzen. Txikitatik izan zuen harremana abertzale eta euskaltzale handiarekin, eta hark galdeturik ea zer ikasi nahi zuen, eta Martin Garitanok kazetaritza erantzunik, Monzonek esan omen zion Euskal Herriak aske izan arte poetak eta kazetariak behar zituela; geroago beharko zirela ingeniariak eta gainerakoak. Nonbait ez zion espresuki aditzera eman euskaraz lan egingo zuten kazetariak behar zituela Euskal Herriak, edo ez zion kontuan hartu behinik behin.

Dena den, ikuspegi hori ez da diputatu ohiarena bakarrik –berak egiati jokatu du--, da hari boterea eman zion koalizioaren aparatuarena, eta da elebidun askorena edo gehientsuena segur aski.

Telesforo Monzonek bere azken artikuluan, “Hiru oinarri” izenburupean, zazpi euskal lurraldeen eta bertan bizi diren euskal herritarren batasunaren premiari, euskararen balioarena erantsi zion:

Biharko Euskal Herria euskalduntzen ez badugu, Euskal Herriaren hizkuntza, mintzaira, hizkera, bene-benetan, beheko mailetatik hasi eta goiko mailetaraino egiten ez baldin badugu, esan dezakegu hori ez dela Euskal Herria (...) Beraz, benetako Herri bat sortu nahi baldin badugu eta bere buruaren jabe izan nahi baldin badu oinarri nagusi bat behar dugu eta oinarri hau Euskara da.

Beste batzuk ere izan ditugu Monzon baino lehen: Jokin Zaitegi, Andima Ibinagabeitia, Txillardegia eta abar –Txillardegia kronologikoki beranduago noski, eta ideologia ezkertiaragoarekin--, oinarri horren ezinbestekotasunaz hitz egin eta idatzi izan dutenak, eta horretarako abertzaletasuna, estatu independente bat osatzeko nahi sendo baten behar noraezekoa aipatu dutenak behin eta berriz, baina oraindainokoa, ez du behar bezalako bidea egin, eta, horretan, esan beharrik ez dago honako ikuspegi honek zer kalte egin duen eta egiten ere jarraitzen duen:

-Gehienetan gaztelaniaz aritu zara. Zergatik ez euskaraz?

-Euskaraz idazten eroso sentitu naiz, baina hobeto idazten dut gaztelaniaz. Banitate kontua izango da. Garai bateko semea naiz. Gaztelaniaz irakurtzen dut batez ere, eta horrek ematen dit erraztasuna. Nire mugak ezagutzen ditut.

Hitz horietatik honako ondorio hau ere atera daiteke: ba, euskaraz edo erdaraz, ez du hainbeste axola, edukia da inportanteena; ez dute horrela pentsatzen eta jokatzeko hainbeste kritikatzeko ditugun arduradun politiko espainiar eta frantsesek eta!

Gaur egun, Telesforo Mozon edo Martin Garitano bera ere gazteak zirenean baino baliabide gehiago dugu euskaraz, geure burua janzteko eta erdaraz bezain eroso sentitzeko, baina egia da asko falta zaigula euskaraz eta erdaraz baliabide eta aukera berdintsuak izateko, eta arlo horretan gobernatzen gaituztenek ez dutela aski egiten inondik ere, eta oposizioak ere, gehienbat ahuleziagatik, ez, aldeak badiren arren.

Gobernua direnen eta are independentista zenbait edo askotxoren pipi horixe dugu gure euskaltasunaren minbizietarik bat, elite politikoaren desertzioa edo atxikimendu aski eza, eta koherentzia eskasa.

Eta nola tratatu gaitz hori? Batzuek pentsatuko dute erremedioa izan ezean, hobe dela horrelakoak ez haizatzea; ez natorkie bat. Pipiak jota gaude, minbiziak, eta presazkoa da tratamendu on batekin sendabide onak jartzea, eta banitateak alde batera utzita, euskaltasun koherentean aurrerapausoak ematen joatea.

22. SPD eta PSOE Espainiako trantsizioan (2021-07-05)

Euskaldunok garrantzi handia ematen diogu aspalditxoko historiari, eta ez dut esaten ez duenik, baina azken berrogei-berrogeita hamar urtekoak ez du gutxiago, eta hor Espainiako trantsizioa deritzona giltzarri da eskierki, haren ondorio izan baitzen 78ko Konstituzioa. Bost artikuluko eskainiko dizkiot gaiari, eta hau da lehenbizikoa. Hasteko, zergatik PSOE? Ez al da agintzen ari Madrilan?, eta EAEn, EAJrekin batean?, eta NFEn, Geroa Bairekin? PSOEren trantsizioko arrakastaren gainean argibide batzuk eskainiz ekingo diot artikuluko sorta honi.

1975eko apirilaren 18an, Bonnen izan ziren PSOEko Felipe Gonzalez, Nicolas Redondo eta Carlos Pardo, eta Alemania Federaleko alderdi sozialdemokrata SPDtik (Sozialdemokratische Partei Deutschlands; SPD) zuzendaritzakoak, famatuena Willy Brandt (Antonio Muñoz Sanchez: El amigo alemán. RBA. Barcelona. 2012). Felipe Gonzalezek konbentzitu egin zituen, aleman sozialdemokraten estrategiarekin erara zetorrelako Gonzalezek trantsizioaz zuen ikuspegia, eta hiru eratako laguntza ematea erabaki zuten: ekonomikoa (liberatuen ordainketa, lokalena; laguntza inportantea), pedagogikoa (ikastaroak koadroak hezteko) eta diplomatikoa (Espainiako gobernuarengan eta Internazional Sozialistan PSOEren alde eraginez), eta hein handi baten laguntza horren guztiaren ondorioz, PSOE igaro zen 1975ean testimonial izatetik, bi urteren buruan, 1977-06-15eko bozetan, oposizioko alderdi nagusia izatera – PSOEek botoen %29, eta PCEk %9--.

Alemania Federaleko alderdi sozialdemokratak 1959an baztertu zuen marxismoa, eta 60ko hamarkadan, Ekialdeko estatu komunisten aldera bezala Europa Hegoaldeko diktadurenera –Grezia, Portugal, Espainia--, errotikako oposizioa baztertu eta hurbilketa politika jarri zuen abian, eta Europako mendebaldeko Internazional Sozialistan bera zenez nagusi, haren estrategiek pisu handia zuten gobernu komunistetan, eta halaber, diktaduretan ere.

Okzitaniako Tolosan bizi ziren PSOEko militante zaharrak, Francoren matxinadaren aurkako gerra galdurik, eta haien burua Rodolfo Llopis zen. Hasiera batean harekin izan zituen harremanak SPDk, baina ohartzean haiek Franco eraistea beste xederik ez zutela distantzia hartu zuten aleman sozialdemokratak, eta Tierno Galvan irakaslearen PSI-PSPra hurbildu ziren. 1972an, Felipe Gonzalezek eta Alfonso Guerrak eta, Llopis eta haren sokakoak baztertu zituztenean, hasiera baten aleman alderdi sozialdemokratak ez zien kasu handirik egin, baina Portugaleko 1974ko apirilko “krabelinen iraultza”-k ezkerreko jo zuzenean, Spinola jenerala bazterturik, Portugaleko alderdi komunistak nagusi zela, Mario Soares politikariaren Alderdi Sozialistari laguntzen hasi ziren eta Espainian gorago esan bezala, 1975eko apirilko bilera hartatik aurrera ekin zioten PSOEri laguntza handia emateari. Aleman sozialdemokraten helburua Europa Hegoaldeko diktaduretan alderdi komunistari indarra kentzea, eta alderdi sozialdemokratak sustatzea. Gogora Gerra Hotzaren aroan zirela, eta Alemania bitan zatitua zela. Nola konbentzitu zituen Felipe Gonzalezek SPDko liderrak?

Laburkiro, Gonzalezek esan zien Espainiako egoera eta Portugalekoa biga zirela: Espainiako egoera soziopolitikoa egonkorra zen, Espainiak ekonomia indartsua zuen eta armada leiala gobernuarekiko, eta Franco hil ondoan ere ez zen iraultzarik gertatuko, eta beraiek ere ez zeuden prest bazterrak nahasteko, hots, baztertzen zuten diktaduraren amaiera bat-batekoa, eta haien nahia zen monarkiaren Gobernu izatea Francoren erregimena desmuntatu eta oposizioarekin batera, Espainian demokrazia burgesa zentralista eraikiko zuena. Komunistei buruz aditzera eman zien PCE alderdi lehiakide nagusizat jotzen

zutela eta garaitu beharrekotzat trantsizioan, eta euren alderdiaren egiturak sendotzeak Santiago Carrilloren alderdiaren ahultzea ekarriko zuela berekin. Ezkerrean hegemoniko izan behar zuten. Komunistek 100 liberatu baino gehiago zituzten, eta berak bi baino ez. Era berean, UGT indartu behar zen, CCOO ahuldu eta hegemonia sindikala lortzeko.

Aleman sozialdemokratei transmititu zien inpresioa izan zen, funtsean, gizon nazionalista zela –erabat asmatu zuten--, dogmatismo orotatik askea eta ez-marxista, eta ausarkeria zeritzola Espainiako ezkerre batzeari; horrek, 1936an bezala, polarizazioa ekarriko zuelako. Kaleko mobilizazioak ere ez zituen aipatu Gonzalezek; haren asmoa zen posizio pribilegiatua lortzea oposizioan, goitik, alderdi aparatuetatik demokrazia burgesera heltzeko, eta gizartean zegoen presioak erradikalizaziora jotzea saihesteko. Aleman sozialdemokratek, diruz, hezkuntzaz eta diplomaziaz lagundu behar zuten, PSOEk Batzorde Exekutibo indartsu bat eduki zezan, alderdian oinarriak ez baizik eta buruek agindu zezaten, eta monarkiaren gobernuarekin negoziatzea zezan trantsizioa.

Eta, dakigun bezala, lortu ere lortu zituen bere xedeak Felipe Gonzalezen PSOEk. Arrazoi horiengatik baztertu zuen Junta Democrática delakoa, komunisten menpean zegoelakoan, eta eratu zuen Plataforma, eta abar. Luzeegi joko liguke 1975etik 1977ra aleman sozialdemokraten eta espainolen arteko harremanen berri emateak; azpimarratu nahi nituzke ildo nagusiak: PSOEren xede nagusia ez zen izan trantsizioan oposizio demokratikoa batu, indartu eta gizartea mobilizatuz frankismoa eraistea eta oinarri demokratikoekin errepublika berria eraikitzea, baizik eta Francok hautaturiko Juan Carlos erregeak marrazturiko erreformari babesa ematea, hasteko, beren aurkari nagusi PCE eta Carrillo deklaratu –beste eskala baten, ardatz nazionalean, EAJ eta ezker abertzalearen artekoa ekartzen dit gogora--, eta frankista erreformistei armadaren eta frankista porrokatuen aurka laguntza emanez, eta horretan, erabakigarri gertatu zitzairen SPD alderdi sozialdemokrata aleman indartsuaren laguntza hirukoitza: ekonomikoa, pedagogikoa eta diplomatikoa. Hurrengoan, 1977ko hauteskundeetan garrantzia.

23. Espainiako 1977ko hauteskundeak Konstituzioaren atariko (2) (2021-07-12)

Sanchez egungo presidentea eta Zapatero atzokoa, eta Felipe Gonzalez herenegungoa, eta XIX. mende amaieratik honainoko sozialisten belaunaldi kate luzea inposizio espainol berari lotuak, eta ez gutxiago eskuin espainiarra, noski, bat-bat eginda: autodeterminazio eskubiderik ez, nazio-estatuaren batasun zatiezin txit santua, Eliza katolikoak guztiz bedeinkatua. Kate horren mugarrietako bat 1977ko ekaineko bozak. Errepara diezaiegun laburkiro.

Francok izendatu eta Juan Carlos erregeak eraturiko lehen gobernuan berretsia izan zen Carlos Arias Navarro presidentea ez zuen lortu sinesgarritasunik frankismotik demokrazia espainolera, legerik lege, erreforma bidez heltzeko, baina haren ondotik, 1976ko uztailean izendaturiko Suarezek bai. Nola lortu zuen hori, 1976ko uztailetik 1977ko ekainera?

Axola handiko mugarri bat Gorte frankistek 1976ko azaroan onartutako Erreforma Politikoaren Legea izan zen (531 prokuradoreetatik 425ek onartu zuten), eta abenduko erreferendumean, eroldaren %77k botoa emanik, %94,17ren aldeko boto izan zituen. Garaipen horrekin eta orduko hedabideak berak kontrolaturik, bereziki RTVE, Suarezek ez zuen zaila zentralitate itxura ematea, bunker frankistaren eta oposizio demokratikoaren artean kokatzea, eta azak ontzeko, presidente izanik, hots, botere instituzional garrantzi(tsu)enak bere esku izanik, hauteskundeetara aurkeztea, eta irabaztea, noski!

1976ko uztailean arte, frankistak eta oposizio demokratikoa zeuden, bi polo politiko, eta handik laster, Suarezek oposizioa zatitzeko eta bunkerra arrastoan edukitzeko (106 prokuradore, nolabait kuantifikatuz) egindako saioen ondorioz, Suarez bera erdian kokatu zen, eta bunkerra eta oposizioa bi izkinetan: bozak irabazteko kokapen ezin hobean.

Suarez presidentea Francok oinordeko izendaturiko Juan Carlos errege-estatuburuarekin batean, bunkerra nola kontrolatu zuen, eta frankista erreformistak UCDn nola bildu zituen aztertzea interesgarria izan daiteke, baina are interesgarriago azaltzea nola lortu zuen oposizio demokratikoaren programa guztia suntsitzea, eta behialako aurkarien helburu guztiz nagusi 1977ko ekaineko bozak irabaztea izatea, eta batez ere, oposizioaren hegemonia lortzea, hots, PSOEk PCERi aise irabaztea.

Honen aurreko artikuluan aipatu nuen nola Felipe Gonzalez 1975eko apirilean elkartu zen Alemaniako alderdi sozialdemokratako lider boteretsuekin, eta nola konbentzitu zituen haiek esanez Espainiako egoera eta Portugalekoa ezberdinak zirela, Franco hil ondoan ez zela iraultzarik gertatuko Espainian, eta gainera baztertzen zutela diktaduraren amaiera bat-batekoa, eta haien nahia zela monarkiaren Gobernu izatea Francoren erregimena desmuntatu eta oposizioarekin batera, Espainian mendebaldeko demokrazia eraikitzea. Eta PCE lehiakide zutela, ez aliatu. Horrekin erara, errepublikanismoaren memoria historiko antifaxista ahanzturaren leize sakonera bidali behar zen -PCEk zeukan nagusitasuna frankismoaren aurkako borrokan-, kale mobilizazioak eten behar ziren -alderdien aparatuek negoziatzeko erreforma-, betiere 1977ko ekaineko bozetan oposizioko indar hegemonikoa bilakatzea xede.

Suarez laster bildu zen Felipe Gonzalezekin, eta hura urduri jartzeko Llopi historikoaren PSOE legalizatu zuen, baina aldi berean garbi utzi zion PSOERI bera zela oposizioko bere begiko ninia, eta PCE deabrua, sozialista europarrak eta bunker espainola xaramelatzeko, eta halaxe egin zuen. PSOE 1977ko otsailean legalizatu zuten, Erreforma Politikoaren Legeak ekarri zion arrakasta eta autokonfiantzaren ondotik. Alderdi bakar frankista "Movimiento" delakoaren bunkerra desegin zuen, eta, azkenik, alderdi politiko handietatik azkena, PCE legalizatu zuen, 1977ko apirilean. PCE asko estutu zuen jakiteak PSOE prest zegoela hauteskundeetara aurkezteko nahiz eta berak ez legalizatu. Monarkia, eta hark izendatutako gobernuaren erreforma, nabarmen gosestera heldu zen Carrillo, legalizazioa xede, eta hauteskundeak giltzarri nagusi. Beste hainbat alderdi ez zituen legalizatu, kasu, Kataluniako ERC, eta Euskadiko hainbat, jakina denez; bakarrik alderdi historikoak, esan dezagun. Katalunian Jordi Pujolen CDCri eman zion lehentasuna, eta Euskal Herri penintsularrean, Xabier Arzallus eta Carlos Garaikoetxearen EAJri.

Hauteskundeak irabazteko ikaragarri garrantzitsua Hauteskunde Legea izan zen. Ezin dugu pentsatu Adolfo Suarez azti edo igarle orojakilea zenik, eta, lege hori lantzean dena kontrolatu zuenik – aurreikusizko faktore zehazgaitz ugari egon ohi da--, baina kontua da UCDk eta PSOEk, botoen %62,7rekin, %80,2 eserleku lortu zituztela Kongresuan, eta PCE, AP, eta Tierno Galvanen koalizioak %21,8 botorekin %12 eserleku. Sistema proportzionala landu zuen Suarezren gobernuak, D'Hont sistema famatua, hots, boto gehien lortzen duten alderdiak mesedetzen dituen. PSOEk botoen %29,32 lortu zituen, eta PCEk %9,33. UCDk %34,4 boto, 165 eserleku eta 106 senatari; PSOEk 118 eta 35, PCEk 20 diputatu eta senataririk ez. Senatarien %20 errege-estatuburu Juan Carlosek izendatu zituen "behatzez".

Frankismoaren aurka borrokatu zirenak ahanzturara kondenatuak izan ziren; hauteskunde demokratikoak egiteko ezinbestekotzat jotako behin-behineko gobernu inpartzialaren noraezekotasuna ipuin gertatu zen; Suarez gobernuburuak prestatu zituen hauteskundeak, botere guztiak eskuan, eta bera aurkezturik UCDrekin, berak irabazi zituen. Eta parlamentu hura jo zen eratzailerik, eta horrenbestez, boz haietako emaitzek baldintzatu zuten erabat 1978ko Konstituzioa, berrogeita hiru urtez inposatu zaiguna. Konstituzioa idazteko ponentzian, zazpi gizon, UCDko hiru, PSOEko eta APko bana, eta bi katalan; euskaldunik ez. Baina hori beste artikulua baterako gaia da.

24. Nazioa eta nazionalitateak (3) (2021-07-)

1977ko ekaineko bozen emaitzen ondorioz eraturiko Diputatuen Kongresuak Konstituzioaren zirriborroa idazteko, esan liteke, gehiago edo gutxiago diktadura frankistarekin lotutako lau gizon hautatu zituela: APko Manuel Fraga (Francoren ministro ezaguna) eta UCDko Gabriel Cisneros (Gorte frankistetan 1971tik, Soriatik, kontseilari nazional), Miguel Herrero (1976-1982 UCD, 1982-1989 AP, eta 1989-2004 PP), J. Pedro Pérez Llorca (Puente Ojearen arabera, transfuga, FLPtik --Frente de Liberación Popular-- UCDra, eta Suarezen gobernuan ministro izatera); eta, oposizio antifrankistako hiru: PSOEko Gregorio Peces-Barba, eta bi katalan, Talde Parlamentario Komunistaren ordezkariak PSUCeko Jordi Sole Tura, eta, Kataluniako Konbergentzia Demokratikoko Miquel Roca, nazionalista katalan eta euskaldunen ordezkari gisara. Beste batzuek ere kolaboratu zuten, baina zazpi horiek izan ziren Konstituzioaren idazle, hein batean behintzat, zeren beste batzuek ere idatzi edo finkatu baitzituzten artikuluko garrantzitsu batzuk jarraian ikusiko dugun bezala.

Konstituzioaren bigarren artikulua polemika handia sortu zuen parlamentuan bezala handik kanpo. “Nazionalitateak” kontzeptua sartu behar zen edo ez, hori zen eztabaidaren muina. Hiru posizio nagusi agertu ziren, eta posizio horietako bakoitzaren barruan ñabardurak. Lehen posizioa, nazio bakarra espainola zela defendatzen zutenena, termino esentzialistetan; bigarrena, Espainia nazioa ez baizik eta Estatu zela eta estatu horrek bere baitan nazioak zituela defendatzen zutenena, lehen posizioek nazioaz zuten kontzeptu berbera izaki bigarren posizioek ere; eta, hirugarren posizioek defendatzen zuten Espainian elkarrekin bizi zirela nazio edo nazionalitate ezberdinak, eta Espainia Estatu ez ezik “nazioen nazioa” zela¹.

Alderdi katalan gehientzat, Katalunia nazio bat zen Espainia plurinazionalaren baitan. Nazionalismoaren beste zati batentzat, Katalunian bezala Euskal Herri penintsularrean edo egungo EAEn, Espainia ez zen nazioa, baizik eta Estatu.

Baina definizioak definizio, alderdi bakoitzak etorkizun politikorako zer defendatzen zuen? Orduan EE alderdian zegoen F. Letamendia eztabaida hartan izan zen, eta haren lekukotasunaren arabera, nazioen arazoa sakontasunean azaldu zutenak, hain zuzen ponentziaren markotik noranzko ezberdinetan ateratzen zirelako Fraga eta Arzallus izan ziren². Fragaren iritzian, nazionalitateak terminoa ez zuen Konstituzioak jaso behar, zeren hortik bidea irekitzen zen nazionalitateen printzipioari, eta ustezko autodeterminazio eskubide eta Estatu propioari. Eta Arzallusek?

Hura nazionalitateak terminoa sartzearen alde, noski, baina hortik autodeterminazio eskubidea defendatzera igaro gabe, auto-mugatuz termino horren norainokoa. Besteak beste, Arzallusek gogora ekarri zuen nazionalitateen printzipioa agertu aurretik Euskal Foruetan bazela Koroarekin ituna hausteko aukera, eta haren arabera: “babestuko gaituena eta ondo tratatuko gaituena bilatzea zehazki formula sezesionista zela” baina amaitu zuen esanez, Monarkian bazuela konfiantza: “guretzat, Koroaren balio berezi eta berriazkoa da beren burujabetza mugatzen duten herri askeen elkargune eta batasun lotura izatearena³. Aurrerago, Arzallusek berriro lasaitu zituen Espainiaren batasun zatiezinen aldekoak: “Ez dugu bilatzen ez ‘nazionalitateak’ terminoan, errepikatzen dut, ez autonomian, sezesiorako tranpolina”⁴.

Letamendiak izan ezik autodeterminazio eskubidea ez katalanetatik inork --ñabartu beharra dago ERCKo Heribert Barreraren posizioa--, ez eta euskaldunetatik inork argi eta garbi ez defendatuagatik, eta Espainia nazioen nazioa edo nazionalitateen Estatua zela aitortuagatik, hortik autonomiarako eskubidea baino ez zela ondorioztatzen argitu eta azaldu arren, agintari militar espainolak ez ziren lasai gelditu "nazionalitateak" terminoa Konstituzioan jasotzearekin, eta Miquel Roca eta Jordi Solé Turaren testigantza ez gezurtatuen arabera, beraiek izan ziren, 1978ko Konstituzioaren 2. artikulua egun dagoen bezala finkatu zutenak, 8. artikulua finkatu zuten bezalatsu:

La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, y reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que la integran y la solidaridad entre todas ellas.

Jakina, agintari militar espainolen injerentziak Konstituzioa zehaztu eta finkatzeko orduan ez ziren izan, noski, onartezinak espainiar erako demokraziarentzat, eta frankismoaren hautsi ez izanak ekarritako beste hainbat eragozpen ere ez.

Espainiako Kongresuan autodeterminazio eskubideari buruzko debatea nola joan zen zehaztea falta zaigu, bereziki katalan eta euskal ordezkarien parte-hartzeari dagokionez, eta halaber, Konstituzioaren 3. artikuluari buruzkoa, hots, hizkuntzei dagokiena.

25. Autodeterminazio erreferendum proposamena Konstituzioaren debatean (4) (2021-07-26)

Pernandoren egiekin hasita, Katalunian egun autodeterminazio erreferendum loteslea eta Estatuak onartua nahi dute, eta Estatuko botereek ez dute nahi. Euskal Herri penintsularrean, batez ere EAEn, badago erreferendum nahia, eta erreferenduma nahi duten gutxiz gehienek independentzia nahi dute. Madrilgo Kongresuan, 1978ko ekainaren 16an, Francisco Letamendia Ortzik autodeterminazio eskubideari buruzko zuzenketa bat aurkeztu zuen. Une hartan Euskadiko Ezkerra taldean zegoen Letamendia, eta handik laster Herri Batasunera igaro zen.

Letamendiak zioen Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1966ko abenduan onartu eta 1976ko martxoaren 23tik indarrean den Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunari jarraikiz –169 estatuk berretsia; tartean, Espainia--, Euskal Herriak eskubidea zuela autodeterminatzeko, eta horrenbestez, hori nola egin azaldu zuen --Goyo Monrealek, berriz, zioen gorago aipaturiko itun hori legedi espainolaren parte zenez gero, besterik gabe, har zitekeela autodeterminatzeko erabakia--. Zein zen Letamendiaren proposamena?

Erreferendumera deitzeko proposamenak Autonomi Erkidegoko Biltzarretik abiatu behar zuen, haren laurdenak proposatu eta Biltzarraren gehiengo osoak onarturik. Erreferendumak garaile ateratzeko gehiengo osoaren aldeko botoa behar zuen Euskadiko lurralde bakoitzean, ez lau lurraldeetako biztanleria osoa kontuan; hots, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian, gehiengo osoa. Eraitza baiezkoa izatera, Espainiako Estatuak aitortu beharra zuen Estatu berria, eta haren burujabetza osoak barne hartzen dituen funtzio guztiak eskualdatu behar zizkion¹.

Gaur egun EAE eta Nafarroa Garaia hartuko genituzke subjektutzat seguru asko, baina azpimarratu beharrekoa iruditzen zait batere anbigutasunik gabe adierazi izana erreferenduma Estatu berria sortzeko zela.

Esan beharrik ez dago alderdi espainol guztiek, bakoitzak bere ñabardurekin, aurka egin ziotela eta iraindu ere egin zutela eskuindarrek, nork gehiago nork gutxiago. Eta katalan eta euskaldunek? Roca Junyent salatik atera omen zen bozketa baino lehen. Sole-Turak aurkako botoa eman zuen esanez komunista katalanek ezberdin ulertzen zutela autodeterminazio eskubidea. Ez omen ziren konstituzio ideologista testimonial bat egiten ari, gehiengoak onartzen ez zituen proposamenak alde batera utzi behar omen ziren, halakoek zatiketa eta urradura ikaragarriak eragin zitzaizketelako. Eskuin espainolak irainak eta ezker espainolak Sole-Turaren antzeko anbigutasunak; teoriarik, nolabait bai, baina praktikan inola ere ez.

Eta EAJK? Marcos Vizcayak zuzenketa-proposamenari baiezkoa eman zion, baina honela azaldu zuen bere botoa:

el PNV ha votado sí al derecho de autodeterminación como tal derecho teórico, pero no a su 'constitucionalización', y añade que 'me gustaría que los aquí presentes sepan valorar y entender el sentido de nuestro voto, y se abstengan de interpretaciones distintas a las que acabamos de dar².

EAJren anbiguotasun ezagunak. Autonomi estatutua nahi zuen, eta eskubide historiko foralak xedapen gehigarri batean jasotzea Konstituzioan. Handik urte batzuetara Mitxel Unzetak azaldu zuen ezen eztabaida konstituzionalean EAJk ez zuela autodeterminazioaren gaia planteatu. Letamendiak eta Goyo Monrealek bai. Kongresuko Batzordean EAJk onartu zuen Letamendiaren zuzenketa, baina gainerako bozketetan abstenitu egin ziren. Zergatik? UCDk esaten omen zien xedapen gehigarriaz hitz egin zitezkeela, baina autodeterminazio eskubideaz ez³. Itun foralaren bitartez autodeterminazio modu batera iritsi zitezkeela pentsatu zuten, eta foruen aurrekari historikoa egoteaz gainera, “politikoki salgarriagoa” zela.

Letamendiaren autodeterminazio eskubideari buruzko proposamena bozkaturik, bost aldeko boto eta 11 abstentzio egon ziren. Boto horiek katalanenak ziren. Trías Fargasek azaldu zuen diputatu katalan gehienek ikuspegia:

Nosotros ya nos hemos autodeterminado. Nosotros somos partidarios de esta Constitución (...) No hemos votado la enmienda del señor Letamendia por razones obvias, porque nos ha parecido que su autodeterminación llevaba un objetivo final separatista, que evidentemente no es el nuestro⁴.

Trías Fargas EDCKo (Esquerra Democràtica de Catalunya) diputatu izan zen Bartzelonatik 1977an eta 1979an CIUtik. Hark adierazi zuen ikuspegiaren gainean, Letamendiak zioen oker zegoela. Ezker abertzalearen helburua ez zen separatismoa, baizik eta independentismoa; eta autodeterminazio eskubideak ez zuten derrigor esan nahi independentzia, baizik eta aukera berdinak eman nahi zitzaizkiela independentziaren aurka zeudenei, eta alde zeudenei. Jakina, hori demokrazia defendatzea bada, edo izan liteke, baina espainiar erako demokrazian ez da kabitzen, orain arte behinik behin ez.

26. Hizkuntzen hierarkia Espainiako Konstituzioan (eta 5) (2021-07-30)

Denok dakigu espainiar orok duela Madrilen bezala Abaltzisketan edo Amoroton, gaztelaniaz bizitzeko eskubide osoa, eta eskubidea ez ezik jakin beharra ere 78ko Konstituzioko hirugarren artikulua –ez ahaztu Konstituzioaren atarikoan dagoela, hots, artikulurik funtsezkoenen barruan hirugarren–, hala agintzen duelako. Beste hizkuntzak, onenean, beren berezko lurraldean erabil litezke, baina, kontuz, ez dakitenak molestatu gabe. Nola joan zen artikulua horren debatea ponentzian, batzordean eta kongresuan? Ez zuen “nazionalitateak” kontzeptua sartzeak eragin zuen lurrikararik sortu, eta militarrek ez zuten parte hartu, era agerian behintzat, baina bere ibilbidea izan zuen.

Azken berrogei urteko dinamika ezaguturik uste izatekoa denez, autodeterminazio eskubidean Letamendia bezala, hizkuntzen gainean katalanak nabarmendu ziren. Jakina, eztabaidaren puntu nagusia hizkuntzen arteko tratamendu ezberdina izan zen: espainiarren ikuspegitik nazio espainol bakarrari hizkuntza derrigor jakin beharreko bakarra espainola dagokio, eta nazionalitateetako hizkuntzak beren lurraldean ofizial izan daitezke baina espainiar hiztunak molestatu gabe. Zer proposamen aurkeztu zituzten katalanek?

Konstituzioaren “gurasoek” proposaturiko artikulua lehen idatzaldiari zuzenketa aurkeztu zioten Gutxiengo Katalana talde parlamentarioko kideek. Lehen paragrafoa honela aldarazi nahi zuten:

Todas las lenguas nacionales serán oficiales en sus respectivos territorios. El castellano será la lengua oficial de los órganos del Estado, sin perjuicio de lo que dispongan los Estatutos de autonomía que se establezcan¹.

Garbi ikusten da zer nahi zuten: Katalunian (eta Euskadin eta Galizian) katalana (euskara eta galegoa) ofiziala izatea, gutxienez gaztelaniaren hein berean, eta onarturik Estatuko organoen hizkuntza gaztelania izango zela. Bigarren paragrafoari dagokionez, Gutxiengo Katalanaren zuzenketa ezartzen zuen gaztelaniaz besteko hizkuntza zuten lurralde autonomoetan, autonomi estatutu bakoitzak zehaztuko zuela “el carácter oficial exclusivo o transitoriamente cooficial con el castellano de la respectiva lengua”.

Zuzenketa horrek aurrerabiderik ez zuela eta, Konstituzio Gaiaren Batzordean erretiratu egin zuten, eta beste bat planteatu zuten, erreserban zeukatena, lehenbizikoak atarramentu onik ez bazuen:

Las demás lenguas de España serán también oficiales en los territorios autónomos de acuerdo con sus respectivos Estatutos. Todos los residentes en dichos territorios tienen el deber de conocer y el derecho a usar aquellas lenguas.

Zuzenketa zurrizko orduan argudiatu zuten ezen ofizialtasunaren aitortza: “quedaría minimizado si no se correspondiera con la obligación que tienen cuantos residen en territorios autónomos, con lenguas también oficiales, de conocerlas”.

Euskal Talde Parlamentarioak berriz, proposatu zuen “gurasoen” artikulua lehen bi paragrafoak batzea eta honela idaztea: “el castellano es la lengua oficial del Estado y las demás lenguas de España son también oficiales en los territorios autónomos, de acuerdo con sus respectivos Estatutos”. Gaztelaniarekiko eskubidea, eta batez ere betebeharra, kentzea.

UCDrentzat (diskretuago) eta APrentzat (zakarrago) hizkuntzen (hots, hiztunen) arteko desberdintasun argia aditzera eman beharra zegoen, hots, gaztelaniaren eta gainerakoen artean: “con argumentos que iban desde la universalidad de la lengua de Cervantes a la protección de los castellanoparlantes residentes en territorios con lenguas propias que podían ver amenazado el uso de su lengua materna”.

Batzordeko debatean, Trías Fargasek, autodeterminazio eskubidearen ez bezala, Gutxiengo Katalanaren zuzenketaren defentsa sutua egin zuen. Lehenbizi, baieztatu zuen katalanek elebitasuna onartzen zutela baina gaztelaniaren eta katalanaren arteko ezberdintasunak beharrezko egiten zuela neurriak hartzea bi hizkuntzen berdintasuna lortze aldera, bereziki katalanez mintzatzen jakitea Katalunian derrigorrezkoa izatea, eta katalanari Katalunian zenbait abantaila ematea ofizialtasunari zegokionez. Hori beharrezkoa zen beraren iritzian, bi hizkuntzen arteko parekotasuna eta oreka lortze aldera.

EAJko diputatu Iñigo Agirre Kerexetarentzat, gaztelania espainiar lurralde guztian ofiziala izateak berekin zekarren hura jakitea eta erabiltzea eta

la reiteración puede interpretarse como una imposición de una lengua sobre otra, en un claro atentado contra el espíritu de igualdad y respeto que el reconocimiento del hecho cultural de las nacionalidades y regiones del Estado debe inspirar, a no ser que precisamente se pretendiera una cláusula defensiva para el castellano. (...) La Constitución debía propiciar una política reparadora de situaciones de prolongada injusticia y prolongada discriminación.

Eztabaida betean, Socialistes de Catalunya taldeko Felip Lordak zuzenketa bat proposatu zuen, zehazki, honako esaldi hau: “los poderes públicos pondrán los medios para que todos los residentes en los territorios autónomos conozcan la lengua respectiva y garantizarán el derecho a usarla”. Haren iritzian, ezin ziren

satisfacer los deseos de los catalanes, si no aseguramos desde la Constitución unas condiciones de existencia y desarrollo iguales para el catalán y el castellano en Cataluña”. (...) en modo alguno contiene elementos de coacción para los incorporados a las comunidades autónomas procedentes de otras áreas lingüísticas, a los que se asegura, en cambio, el aprendizaje y uso de la lengua de la comunidad de adopción, si libremente deciden aprenderla y usarla.

Zuzenketa posibilistak ere ez ziren onartu, eta hizkuntza nagusi menderatzailea betiko finkatu nahi zutenek irabazi zuten. Hala gabilta, gabiltzan moduan. Gure estatus politiko-linguistikoa aldatu nahi dugunontzat behintzat, interesgarria da begi bat edukitzea Espainiako trantsizioari, frankismoaren auto-erreformari, handik baitatozkigu aje eta eragozpen askotxo.

27. Hitanoa (2021-08-02)

Hika hitz egiteko erak --toka eta noka alegia--, alde batera, galbidean dagoen espezie baten trazak ageri ditu. Ekialdeko euskalkietako zutanoaren antzera¹, gero eta gutxiago erabiltzen da euskaraz aski natural mintzatzen den herri eta herrixketan; eta handik kanpo ez da entzuten eta, jakina, ez da transmititzen.

Euskaldunok, bai, nahi baduzue, baditugu aurretiagoko kezka, euskararen beraren erabilera orokor apala, eta halaber, erabileraren kalitate sarri askotan hala moduzkoa, bi nagusiak aipatze aldera, baina kontxo, lagunarteko giro berezian, mendez mende mamitu eta helarazi zaigun jardun bat -ez bakarrik lagunartean erabiltzekoa--, hain egokia lagunarte-hizkera berezi eta adierazkorrak modu naturalean lantzeko, tristea da galbidean ikustea, eta, zorionez, banaka batzuk hitanoa suspertu nahi txalogarrian dabilzan honetan, merezi du mugimendu osasungarri honen aitzakian gaiaz gogoetatzea².

Bi ezaugarri nagusi ditu nik ezagutzen dudan hitanoak: ahozko jardunari lotua da gehienbat, eta eskualdekoa da. Bere orain arteko ingurune naturala ahozkoa izan bada ere, idatziz ere berdintsu erabil liteke, ahozkoan bezala, konfiantza giroan, lagun edo ezagunekin, eta pertsona bati zuzendurik bereziki; eta, usa liteke egun erabiltzen den baino gehiago, antzerkian, ikus-entzunezkoetan, telebistan eta sare sozialetan; telebistan eta sare sozialetan ere bai, eta esan beharrik ez dago gaur egun telebistak eta sare sozialek zer-nolako hedadura eta indarra duten.

Eta irakaskuntzan? Tartetxo bat egin dakioke ezta?, azterketarik gabe, baina ahalik eta txukunen eta adierazkorren erabiltzen ikasteko, eta agian prestigioa ere emateko.

Ez dut hagiografiarik egin nahi, eta horregatik aje(txo)ak ere aipatuko ditut. Batez ere transmisio eskasak eta erabilera urriak, eta zabarkeria linguistikoak sorrarazten dituelarik, bi aipa litezke: bata, nesken artean edo neskei zuzentzean, noka erabili beharrean toka erabiltzea, eta forma alokutiboak esaldi nagusietan ez ezik menpekoetan ere erabiltzea, hots, “joango *naukela (naizela) esan dinat”, “ikusten *baninan (banuen), emango niola esan ninan; “ez *diatelako (dutelako) euskara bizia...; “ea suspertzen *diagun (dugun)”.

Zergatik galdu ditu erabiltzaileak eta transmititzaileak? Bastotzat jo delako, jende finarentzat ezegokitzat. Ergelkeria, ezta? Gaingitu beharreko aurreiritzi txepela, nire iritzian. Egia da hitanoa erabiltzeko arau sozial sotilak egon direla. Urola aldean, esaterako: gurasoek euren artean zuka – gehienek behintzat--, gurasoek seme-alabei hika, baina seme-alabek gurasoei zuka; ezezagunekin zuka, eta ezagun norbera baino zaharragoekin gehienbat zuka, eta adin bertsuko edo gazteagokoekin hika. Arau gehitxo? Guretzat ez ziren, eta ez daukate zertan izan, eta laxatu ere egin litezke, ezta? Batzuek gura garaian ere laxatzen zituzten bezala, kasu, senar-emazte artean hika eginda elkarri.

Ajeak eta zailtasunak gaindi daitezke dudarik gabe, eta gorago esan bezala, ez al du merezi lagunarteko giro euskaldun berezi hori, ondorengoei ere helaraztea, ahalik eta txukunen eta adierazkorren? Euskaldunok hain beharrezkoak ditugunean deskribatu ditugun bezalako giroak! Horretan dabiltzanei txaloak jo eta laguntza pixka bat ere eman diezaiegun, geure eta euskaldun guztion onerako.

28. E. Hemingway: Fiesta (Itzul.: Koro Navarro) & A. Kollontai: Erle langileen amodioak (Itzul.: Aroa Uharte) (2021-08-10)

Irakurri ditudan hurrenkerari jarraikiz, Iruñeko sanferminak lau haizeetara zabaltzeko ekarpen handia egin zuen E. Hemingway estatubatuarraren Fiesta Eguzkia jaikitzen da nobela komentatuko dut laburkiro lehenik, eta ondotik, Aleksandra Kollontai errusiar feminista-marxistaren Erle langileen amodioak.

lazko abenduan argitaratu zen emakume errusiarrarena, eta oraindik orain gizon estatubatuarrarena. Biak ala biak euskaldunontzat itzuliak, eta euskal literaturan bete-betean sartzen direnak; hala izanagatik, oker ez banago, euskal hedabideetan propaganda gutxiago egin zaie erdarazko literaturak gizentzen dituzten euskaldun batzuen lanei baino. Gustu handiz leitu ditut, eta merezi dute aipatuak eta goraiatuak izatea.

Oso errealista, eta oso zehatza da 25 bat urte zituela Hemingwayek idatzi zuen testua. Pelikula bat egiteko erraztasunak eta xehetasunak ematen ariko balitz bezala kontaktzen ditu Jake Barnes narratzaileak bere lagun amerikar kazetarien zurrutak eta festa gogoak. Beti zurrutean dira, ez dago edari alkoholdunik dastatzen ez dutenik -sanferminetan eta sanferminetatik kanpo-; bitalismoa, besteak beste, alkoholarekin lotzen dute, eta festarekin, jakina; eta, narratzaileak, Hemingway pertsonak bezala, heriotzarekiko, beren burua hiltzeko arriskuan jartzen duten toreroen alderako interes eta miresmen berezia erakusten du, eta korridako zenbait trantze; batez ere, zezenak pikadorearen zaldia erasotzen duenekoa (zaldiaren heriotza-arriskua), eta zezenketaria zezena hiltzera doanekoa (toreroarena), konkretutasun osoz eta karga emotibo handiz kontaktzen ditu.

Bestera etorri, narratzaileak Baionatik Iruñera egitean, Frantziatik Espainiara egiten du, eta bereziki Iruñeko bazterrak, kaleak eta tabernak xehe-xehe marrazten dizkigu, eta euskaldunekiko topadarik kontaktzen du? Bai, Iruñetik Auritzera arrantzan egitera joateko autobusa hartzen dute Iruñean, eta dena betea doanez, goiko teilatuan egokitzen dira eta han mendialdera zihoazen euskaldun baserritar xalo, jator, adeitsuekin egin zuten topo. Bateko ardoz beteriko zahagia, hurrengo zahatoa eskaintzen diete euskaldunek amerikar turista aberatsei -aberatsak euskaldun baserritarren aldean-; gaztelaniaz egiten diete noski; eta bidean, herri bateko ostatu baten gelditurik, han euskaldunek kopa batera gonbidatzen dituzte, eta ingelesez pixka bat egiten zuen indiano batek ingelesez hitz egiten die, eta beste euskaldunak harriturik ingelesez ari delako beren moduko indiano hori, harik eta ingelesez egiteaz nekaturik, isilik gelditzen den arte. Horiexek dira narratzaileak euskaldunei buruz ikusiak, bizitakoak eta jasoak. Bi hitzetan: mendialdeko baserritar jatorrak.

Emakume protagonista bat dago nobelan: Brett. Edalea da, bere gizon lagunak bezala. Beraz enamoratua den judu bat baztertzen du -lagunek ere ez dute judua maite-; torero gazte on eta eder batekin maitemintzen da..., ez nadin spoilerr(egi)a izan! Gizon ikuspegitik trazaturiko pertsonaia da.

Atentzioa eman dit itzultzaileak zenbat hitz arrunt, ahoz maiz erabiliak baina idatziz gutxiago erabiliak usatu dituen: leitu, entenditu, enamoratu-desenamoratu, mostradore, baso (edalontzi), korriden inguruko hiztegi berezituaz gain: korrida, pikadore, banderillero, eta hitz etzanetan: paseo eta abar.

Baten bat oraindik Euskaltzaindiak bere hiztegian onartu gabea, bihar onartuko dituenak seguru asko, kasu: pisu ("etxebizitza" adieran). Aparta da hitanoko formak ikasteko. Gustura leitzen da.

Aroa Uhartek itzulitako liburuan, berriz, narratzailea orojakilea da eta protagonistak emakumeak dira; garai historikoa Errusiako Iraultza da, eta gizonak emakume ikuspegiz kontatuak dira. Emakume horiek iraultzaile dira, kolektibitatearentzat lanean dihardute, jendarte berria sortzeko beren alea jartzen, eta iraultza ez da politikoa eta ekonomikoa bakarrik, baizik eta bete-betean harrapatzen ditu gizon eta emakume arteko harremanak (LGTB kolektibokorik ez da ageri).

Hiru istorio ditu liburuak eta lehenbizikoan, emakume iraultzailea da protagonista eta ahaldun; ideologikoki gizon batekin esposatua da, baina sentimendu edo bestelako irrikeri men egirik maitalea du, eta tirabira horretan ez du batarengana edo bestearengana egin nahi, amak diotson bezala; hiru belaunalditako emakumeengan, istorioak tirabira hori du ardatz; eta, azkenean, ematen du pasiozko maitasunaren alde egiten duela.

Bigarren istorioan, emakume protagonista iraultzaren eta gizon "desleialaren" biktima da; eta hirugarrenean, luzeen eta landuenean, emakume protagonista errusiar indiano –Ameriketako urte batzuetan egona-- anarkista batez maitemintzen da; iraultzako lanean bereizten dituzte eta bereizketa horretan errusiar amerikanoa desleiala zaio, eta horretaz gainera, ustelkeriaz akusatzen dute, eta emakume protagonistari bi nahigabe sortzen zaizkio: maitearen desleialtasunarena eta iraultzaileak injustuak izan daitezkeenarena. Merezi du bilakaera jarraitzea.

Ez dakit errusieratik ongi itzulia dagoen baina bai euskaraz gustura irakurtzen dela.

Liburu batean, gizon estatubatuar bat, duela kasik ehun urte Iruiñeko sanferminetan, festaren eta heriotza-arriskuaren artean; eta, bestean, Errusiako Iraultzaren ingurumarian, emakume aske bat, narrazioen bitartez harreman ekonomiko-politikoetan ez ezik iraultza gizakien arteko harremanetan ere jokatzeko dela esanka, emakume ikuspegitik. Biak euskal literatura. Biak gomendagarriak.

29. Euskal Osakidetza (2021-08-13)

Oraindik orain lagun-min batek esandakoa laburtuko dizuet, zer-pentsa emango dizuelakoan. Proba bat egitera joan zen berriki Donostiako Onkologikora –dakizuen bezala, erabat zentro publikoa den zalantzan dago--.

Beheko solairuan egiten dira proba horiek, eta lehen leihatilan, informazioan zegoenarekin, euskaraz egin zuen. Itxaroten egon eta jada barrura sarturik, ziztada eman zionak erdaraz baino ez zekien, eta bi orduz itxoin behar zuela esan zion. Kate espainol bat jarria omen zegoen itxaron-gelan, eta hiru emakume eta bi gizonezko zain. Ordu laurdenean denak isil-isilik telebistari begira edo. Guadalajarako herri batean entzierroak bertan behera utzi eta mehatxuak egon omen ziren, eta horren inguruko elkarrizketak eta iritziak eta abar errepikatzen omen zituzten, behin eta berriz.

Baina isilik ezin etsirik, laster hasi omen zen bost laguneko talde horretako berritsuena, gizon bat, hitz eta pitz, bere bizipenak eta abenturatxoak kontatzen. Salamankakoa zela esan omen zuen, Tolosan bizi eta inguruan ibiltzen zena igeltsero-lanean, lurzoruak eta jartzen. Hasieran, gizon berritsu horri beste emakume batek bakarrik laguntzen omen zion solasean, eta gerora nire laguna ere sartu omen zen elkarrizketan. Jakina, denak erdaraz, eta bizkitartean, telebistan, zezen eta entzierro kontuak.

Itxarote-gelan batzuk irten eta beste batzuk sartu egiten omen ziren, baina beti berriketan gai-jartzaile salamankarra, eta gizon adintsu bat, isilik, solasa berarekin ez balihoa bezala. Zergatik ote dago gizon hori isilik, pentsatzen omen zuen, bere artean, nire lagunak. Halakoren batean tokatu zitzaion nonbait mutu egondako gizon horri itxarote-gelatik proba egiteko makinara joatea, eta lehenbiziko hitzak orduantxe entzun omen zizkieten. Erizainak erdaraz egin zion, eta gizonak ere hala erantzun zion. Solasean ari zirenen artean komentatu omen zuten gizon hori gaixo txarra izango dela, bere gaixotasuna umore txarrarekin hartzen duena. Beharbada, euskalduna zen, pentsatu omen zuen nire lagunak – abizena euskalduna bide zuen--: solasaldian parte hartzeko behar zibikoa urratu zuen!

Lagunaren esanetatik neure hitzetara etorririk, Donostiako ospitaletan –Euskal Herriko edozein ospitaletan, salbuespenak salbuespen, eta euskaldun kontsekuenteak gorabehera--, euskaraz egiteko aukera loterian saria tokatzea baino zertxobait errazagoa izan daiteke baina alde handirik ez: suertea alde baduzu, euskaraz harekin edo honekin egin dezakezu, jendearen arretan, lehen leihatilan batez ere, baina barrura sartzean, eta medikuekin eta, askoz nekezago, eta gerta dakizuke bi orduz itxaron beharra Espainiako edozein ospitaletan bazeunde bezala, igual-igual, telebistan kate espainola eta erdaraz egin beharra, betebeharrak zibikoa dela medio.

Ez zaizue inoiz gertatu atean honako errotulu bat ikustea: "Euskaraz egin, nahi baduzu!" eta bertako langileek erdaraz baino ez jakitea? Niri bai.

Baina, noski, hori ez da ezer mundu honetan, eta Euskal Herrian ere gertatzen diren hainbat miseriarekin alderaturik, eta komentatzea ere merezi ote du? Ez dute zerikusirik gisa horretako gertakari aski arruntek gure ongizatearekin? Diru faltak edo arrazak edo genero aferek bakarrik dakarkioite norbanakoari gaizki izatea edo gaizki sentitzea?

Euskaldunok beharturik gaude erdal munduan murgiltzera; eta alderantziz, berriz, ez; gutxiz gehienetan, guztiz borondatezkoa da. Eta ez Eusko Jaurlaritzak, eta are gutxiago Nafarroako Gobernuak, dute plangintza errealik horri buelta emateko. Gaztelaniaz jakitera legez derrigorturik, eta euskaraz, aldiz, norbanakoaren borondate huts-hutsalaren mendean gaude. Ez da harritzekoa asimilazioak, ordezkapenak, jarraitzea. Baina gauden lasai!, politikari abertzaleek berehalakoan emango diote buelta hizkuntzaren aferari, legegintzaldia amaitu aurretik, apika, edota independentziaren biharamunean!

30. Abertzaletasun *zibikoa eta *etnikoa: nazionalismo frantsesa eta alemana (I) (2021-08-19)

Gurean, mendizale asko dago, kirolzalea ere bai; bertso eta kantuzalea ere, baina euskarazko saiakerak irakurtzeko zaleak askoz gutxiago. Euskarazko saiakerak irakurtzeko aukera ere ez da zabalegia, irakurleen eskasiarekin erara, orain enplegatuko ez naizen arrazoiak eta aitzakiak tarteko direla. Saiakera onak leitzeko aukera eskaini digun bat, handiena, nire iritzi apal edo harroan, Joxe Azurmendi. Haren bi liburu ederretan oin harturik, honako artikulua hau, eta hurrengo beste bat, eskaintzen dizkizuet.

Une honetan ez dago boladan, baina kluxe bezala oso finkatua dago estatudun nazionalisten abertzaletasuna goresleko, eta estaturik gabekoon abertzaletasuna txarresteko, gertakari politiko edo aitzakiaren batek berpiztu ahala. Bestela formulatuta, abertzaletasun zibiko frantsesa goresgarri, arrazionala, moderatua, eta abertzaletasun etniko alemana txarresgarri, emozionala, eta biolentoa, eta bereizketa horren iturburutzat Ernest Renan bretoaia jotzen da, haren Qu'est-ce qu'une Nation?, Sorbonan, 1882an egindako hitzaldia.

Bereizketa hori zein faltsua den, eta batez ere nola interpretatu behar den erakusten saiatuko naiz artikulua honetan. Berez, onena, Joxe Azurmendiren Historia, arraza, nazioa liburuak (Elkar, 2014) irakurtzea da, baina egungo egunean liburu mardul hori irakurtzeko astirik ez izanagatik, biharko egunean izan dezakeenarentzat, aurrerapen bat izan daiteke hau.

Hasteko, Renan ez zen teorialari politikoak izan, eta "Zer da nazioa?" ez da nazioari buruzko ikerketa teoriko ikaragarri baliotsuren bat, objektiboa, distantziatua, inpartziala, baizik eta aldarrikapen patriotikoa, gero politikari eta eskoladun frantses askok, patriotikoki eta interesatuki, arrakasta handiz, teoria eta doktrina bihurtua.

Noiz eta zertarako idatzi eta egin zuen hitzaldi famatu hori Renanek? Erantzun baino lehen, ohartxo bat "noiz" eta "zertarako" galderen axola handiaz: definizioak eta eztabaidak bere testuinguru historikotik erauzten baditugu, ez da ezer ulertzen. Prusiak Frantziari --edo Alemaniak Frantziari, zeren Alemaniako estatu guztiak batu zituen gerra horrek--, gerra irabazi eta hamaika urtera.

Gerra hori deskalabru ikaragarria izan zen Frantziarentzat, eta Alemania batzeko giltzarri. Wikipediako datuen arabera, gerrak iraun zuen hamar hilabeteetan (1870ko uztaila-1871ko maiatza) Frantziak 909.951 soldadu mobilizatu zituen, eta Alemaniak 1.200.000. 138.871 frantses hil ziren; zauritu 143.000, eta preso hartu 474.414 (756.285); 28.208 aleman hil ziren, eta 88.488 zauritu (116.696). Aldea alimalekoa! Frantses nazionalismo kolpatuaren herra alemanekiko konpreniarazten laguntzen du. Gizaki frantses askoren hondamendi erabatekoaz gainera, lurraldeak ostu zizkion Alemania batu garaileak Frantzia galtzaileari: Alsazia eta Lorena; batez ere Alsazia.

Renan bretoiak ezagutzen zuen aleman kultura, eta estimu handitan zuen 1870eko gerraraino, baina harrezkero, esan dezagun frantsesen artean sortu zen giro nazionalista beroarekin erara, nazionalismo frantsesaren aitzindari abantailatu moduan agertu nahi izan zuela, eta hitzaldi famatu hartan Alsazia kulturalki, ezaugarri objektiboei doakienez alemana izanagatik, borondate zibikoz, frantsesen destino

bera partekatu nahi zuelako frantsesa zela defendatu zuen arrakasta ikaragarri, gorago esan bezala, nazionalismo frantses zauritu eta goritu hartan.

Zinez, Alsaziak edo alsaziarrek frantsesak izan nahi al zuten, euren jatorrizko hizkuntza, alemanaren dialektoa izanagatik? Ez naiz ausartzen galdera horri erantzun biribila ematen. Han eta hemen irakurri dudanez, Frantziako Iraultza ongi heldu zitzaien alsaziar burges eta are herritar xumeei ere, eta erlijioz katoliko izan dira alsaziarrek, eta ez Alemanian bezala, iparraldeko prusiar gehienak protestante eta hegoaldeko bavariar eta bestelako gehienak katoliko, eta ziur alsaziarren artean gorabehera ugari egon dela nazio kontzientziari zegokionez, eta garbi dago oraindainokoa behintzat, frantsesek irabazi dutela partida. Euskal idazle Jean Saint-Pierre Cartagoko apezpiku izanari irakurria diot Lehen Mundu Gerrako kroniketan, alsaziarrek beren borondatez eta beren katolikotasuna zela kausa, frantsesak zirela eta aberkide zituztela.

Renanengana itzuliz, ez zion garrantzirik ematen hizkuntzari, kulturari, arbasoei? Bai, dudarik gabe, eta frantsesek ere bai, noski; baina, alemanekiko gerra galdu ondoko giroan, alsaziarren frantses izan nahia zen nabarmendu beharrekoa, ezin baitzuen ukatu alsaziarrek hizkuntzaz alemanak zirela.

Liburu berean dio Joxe Azurmendik nazioaren kontzeptu alemana arraza, hizkuntza, etc., berdineko jendearen komunitatearena dela esan ohi den arren, de fakto gaur Alemania izendatzen dugun Nazio/Estatu alemana ez dela arrazoi "objektibo" horiengatik batu, egitate horrek lagundu duen arren, baizik eta batasun alemana hiru gerraren ondorioa izan dela. Lehenbizikoa, 1864an, Austriak eta Prusiak Danimarkaren aurka egindakoa; bigarrena, 1866an, Prusiak eta Italiak Austria eta haren aliatu Saxonia eta Bavariako erresumen aurka, eta azkena, eta garrantzitsua, Frantziaren aurkakoa, non estatu aleman guztiek bat egin zuten.

Halaber, Frantziari buruz esaten da, borondatean oinarrituriko nazioa dela, subjektiboa, nazio aleman kultural edo etnikoaren kontrara, baina Frantzia ez da sortu jendearen gogozko nazio bezala baizik eta, lehenik, erregearen, eta gero errepublikaren armek nahi izandako eta inposaturiko nazio (Estatu) bezala baizik, bortxak ezarrita alegia, Alemania eta Europako beste guzti-guztiak bezalaxe, bakanen bat ez bada.

Hau da, lotura kultural-linguistikoaren sentimendua baztertu eta gutxietsi gabe, bortxak egin ditu estatuak. Eta bortxak atxiki ditu. Espainiako egungo 1978ko Konstituzio famatuaren oinarrian, 1936ko kolpe militar garailea dago, eta haren ondorioz, errepublikaren porrot erabatekoa, eta era berean monarkiaren eta batasun "nazio-estatal"-aren inposizio erabatekoa, eta gure autodeterminazio politikoaren ukoa.

31. Jainkoa izan, “errealitatean” pixka batetik askoraino izan liteke (eta II) (2021-08-)

Zer esan nahi du esaldi horrek? Jainkoaren kasuan, dikotomia antagonikoa ez al da, bada, honela planteatzen: sinesten duzu Jainkoa badela edo ez duzu sinesten, baina Jainkoa pixka batetik askoraino izan daitekeela esanda, nola ulertu behar dugu?

Joxe Azurmendi ondorio horretara iristen da Azken egunak Gandiagarekin liburuan (352-361orr.), batez ere B. Russel eta A. Einstein zientzialari eta intelektual handien sinesmen edo sinesmen gabezien bilakaerak aztertu ondotik. Eta hain zuzen, konplexutasun horixe da batzuetan Azurmendi idazle zaila bihurtzen duena, eta aldi berean ikaragarri erakargarri eta aberasgarria.

Labur-zurrean, B. Russell handiaren Jainkoarekikoetara etorririk, lehenik eta behin, ateista zen. J-Paul Sartrek bezala gizakiaren askatasuna aldarrikatzen zuen: gizakiaren eta giza adimenaren gaintetik ez dago beste instantziarik, ez intelektual eta ez moralik. Gizakiak bere buruarekin nahikoa izan behar du, eta bere patuaren erantzule eta jaun edo andre bakar altxatu mundu honetan.

Baina aldi berean, erlijiotik askatu ondotik, B. Russellek suposatzen duen gizon-emakumea sentimendurik kristauenez jantzia ageri da hurkoen alderako: bihozbera, solidarioa, etab.

B. Russellentzat erlijioa, gizadiaren lehen aroko pentsaera eta ezjakintasun primitiboaren ekarpena da, gizakiaren ahuleziaren adierazpide hutsa, beldurrarena, funtsean. Heriotzaren edo ezinaren aurrean zeruetako ilusio eroetan kontsolamendua bilatzeari edota egitate moral debekatua infernuaren beldurrez alde batera lagatzeari koldarkeria irizten zion eta halaber, ausardiarik eza, hil ondoko sariaren esperantzagatik hurkoari on egitea eta laguntzea.

Ongia desinteresatuki egin behar da, ongiagatik beragatik. Zergatik? Ez dago zergatirik. Gure egitekoa da bizitza hau behar bezala bizitzea, ametsik gabe. Jakinda mundua injustua dela, ankerra; hain da gaiztoa ezen errazago baita sinestea mundu injustu honen kreatora, inor izatekotan, deabruen bat izango zela eta ez aingeru onbera bat.

Edgar.S. Brightman amerikar filosofoak Russellen erlijioaren filosofiari buruzko azterketa bat burutu zuen eta B. Russellek azterketa hori irakurri ondotik, hiru plano hauetan zehaztu zuen erlijioari buruzko bere jarrera: erlijio pertsonala, erlijiozko erakundeak, eta teologia(k).

Erakunde erlijiosoei buruz aritzea soziologo eta historialariei dagokie; B. Russellek berak ez zuen batere iritzi positiborik haietaz. Filosofo gisa, teologiak interesatu izan zitzaizkion, eta haiei buruzko iritzia suntsigarria zen. Erlijio pertsonalari zegokionez, honela argitzen du bere postura:

What makes my attitude towards religion complex is that, although I consider some form of personal religion highly desirable (...), I cannot accept the theology of any well known religion, and I incline to think that most churches at most times have done more harm than good.

Jainkoaz denaz bezainbatean, haren pentsamenduan Edgar. S. Brightmanek interpretatu duen "jainkozko" sentimendua baduela irizten zion, mugagabekoaren egarria, baina inola ere ez kristauek aipatzen duten Jainkoa. Sentimendua edukitzeak ez du frogatzen sentimenduaren objektuak sentimendutik kanpoko existentziarik duenik. Paradoxikoki, ordea, pasarte berean, sentimenduak justifikazio baliozkotzat jotzen zituen balio gorenentzat: "In the realm of value, I admit the significance of religious experience". Beraz, erlijio lauso bat, bazuen B. Russellek; balio absolutu batzuk ere bai (pertsonaren duintasuna-eta); jainkozkoatasun edo infinituaren desira ganduzko bat ere bai. Horrenbestez, Jainko pixka bat ere bai?, galdetzen du Joxe Azurmendik. Eta berehala, berak egindako galderari honako erantzun hau erantsi zion:

Azkeneko itaun hau euskaldun gehienei funsgabeko boutadea begitanduko zaie. Haatik, Jainkoaren arazoa ulertzeko, agian funtsezkoena da ulertzea Jainkoa izan, "errealitatean" pixka batetik askoraino izan litekeela, bai pertsonetan eta bai kulturetan, erlijioetan.

B. Russellengandik beste zientzialari handi batengana etorri, A. Einsteinengana, haren erlijioari buruzko bilakaera aztertutik, honela amaitzen zuen Azurmendik:

Einstenek guri zerbait elementala oharrarazten zigun, Einstein bera baino harago joateko, eta merezi du hori xehatzea: erlijioa ez da berdin erlijioa nahitaez, eta Jainkoa ez da berdin Jainkoa. Hasteko, erlijioa gabe, erlijioak dago; eta Jainkoa gabe, Jainkoak (Jainko bataren barruan ere). Izan ere, gizon-emakumea gabe, dagoena gizon-emakumeak dira; kulturak, historiak, tradizioak; geure barruko arima diferenteak.

Irakurketan pixka bat aurrerago egiten badugu, lerro estonagarri hauekin egiten dugu topo:

Beharbada ateismoa –ateismo bat-- ez da abiapuntu desegokiena, paleolitoan hasi eta, erlijioaren fenomeno konplexu guztiaren birpentsaketa positibo baterako, enpatikoa, librea, orain artean ateismo "nihilistak" egin izan duen negatibo soilaren orde: "bera inoiz ez balio-sortzaile!", besteren balioen parasito hutsa baizik (Ik. Nietzsche, Genealogia, & 25). Azkenean, bada, Sartre eta Russell soiletan ezin zara gelditu –beharbada baita ere, horiek proklamatu duten gizabanako guztiz bere buruaren jaun harro hori, lehenago ilustrazioaren ametsen esnatze goyatarrean bezalaxe, berriro XX. mendean zehar fidagarriegia agertu ez delako. Erabat ulertzen ez diezuna da, nola izan litekeen gaur osoki "fede" bakar batekoa, hori kasik hutsa izanda ere. Aukeran Einstein nahiago: egon, erlijioak, Jainkoak dago. Denak "egiazkoak". Baina orduan Jainkoak, erlijioak, ezerlijioak, ateismoak, etengabe bata bestea transfiguratu ari dira (andre-gizon guztiak eta kultura guztiak euren artean bezalaxe). 361or.

Horra Joxe Azurmendi meditatzen, gizadiaren pentsamenduaren historia zabalarekin enpatizatzen, aintzat hartzen. Autore zaila eta oso erakargarri eta aberatsa aldi berean.

32. Andorran, katalana hizkuntza ofizial bakar (2021-09-08)

Jeneralean, 85.000 herritar inguruko mikro-estatu hori famatua da bere dendengatik; paradisu fiskala izateagatik, eta Pirinioetako mendien artean kokatua egoteagatik; ez, ordea, 1993ko Konstituzioan ezarri bezala --%75 andorrtarrek onartua--, eskubide politikoak izateko, hots, botoa emateko eta hautagai izateko, Andorrako naziotasuna izan beharzagatik, eta horretarako katalan hizkuntza jakin beharzagatik. Kopuru aldetik, ohiz katalanez mintzatzen direnen eta ohiz gaztelaniaz mintzo direnen artean aldea txikia da; halere, eskubide politikoak izateko derrigor jakin beharreko hizkuntza ofizial bakarra katalana?, hori posible da? Bai, halaxe da ba! Nola lortu dute hori andorrtarrek?

Ibili naiz Andorrako historiaren zertzelada nagusien bila, eta hizkuntzarena ere; emaitza nik nahi baino apalagoa izan da, batez ere hizkuntzari dagokionez, eta horrenbestez lan hau behin-behinekotzat jotzen dut eta hobegarri, jakina!

Hein baten Suitzaren Alpeetako bailaren elkartze politikoaren historia oroitarazten du Andorrakoak, kronologikoki ere. Pirinioetako Andorrako bailaren buru gisa, 1278an sinatu zuten lehenbiziko Tractat de pareatge Lleidan, Foixeko kondeak eta Urgelleko gotzainak, bi printzeen arteko subiranotasuna ezarriarik, eta zazpi mendetako historiaren ondotik, delako burutza politiko bikoitz hori 1993ko Konstituzioak berretsi zuen: Frantziako presidentea eta Urgelleko gotzaina dira estatuburuak egun Andorran, baina orain Konstituzioak andorrtarrei aitortzen dizkien eskubideen menpean.

Urgelleko gotzaina Espainiako erregeak hautatzen zuen --Aragoiko-Bartzelonako kondeak lehenik eta XVI. mendetik aurrera Espainiakoak, eta Foixekoa Frantziako erregearen mendekoa zen XVII. mendez geroztik behinik behin; beraz, bi auzo erresuma handien oniritzia lortzen zuten bietako baten menpean ez erortzeko, biekiko izan zitzaketen edo zituzten mendekotasunak gorabehera.

XVIII. mende hasieran, Kataluniaren Gaztelarekiko mendekotasuna ekarri zuen Ondorengotza gerran, neutral jokatu zuen Andorrak. Simeon Guinda Apeztegia --Zaraitzuko Espartzan jaioa; euskalduna izango zen segur aski-- 1714an Urgelleko gotzain bilakatu zen, eta borboizale hotsekoa zenez, bazirudien Espainiako erresumarekin bat egin zezakeela, baina ez, Andorraren mendeetako independentziari eutsi zion agindua emanez ezen Frantziako erregearen manuei baino ez obeditzeko. Urgelleko gotzainak elizbarrutiaren interesak eta jabetzak lehenetsi zituen, eta burujabetza atxikitzeko Frantziako erregearengana jo zuen. Bi handiren artean, baina aske edo --bertako jauntxoek aginduko zuten hain segur--.

XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran krisi sozioekonomiko larria izan zuten Andorrak eta Pirinioetako bailarek eta andorrtar askok Bartzelonako metropoli-eremura emigratu zuen, eta beste askok Okzitaniako Béziersera. Eta modernizazio prozesua XX. mendeko 30eko hamarkadan hasi edo areagotu zen, Forces Histroelèctriques d'Andorra enpresa eratzearekin (FHASA). Milaka langile ekarri zituen enpresa hark, asko CNTri lotuak, eta horrenbestez, ideia politiko eta sindikal berriak. 1933an Kontseilu Orokorrari sinadura andana bidalirik, gizonen sufragio unibertsala onartu zen --emakumeena, Suitzan bezalatsu, 1970ean--. 1936-1939ko gerran eta II. Mundu gerran ere neutral iraun zuen Andorrak, eta XX. mendearen bigarren erdian populazioa hamarkoiztu zuen, 85.000 biztanlera heldurik (Ikus: Història d'Andorra en onze claus. Oliver Vergés Pons. 2016).

Gorago aipatu dugun enpresa hidroelektriko handi hartara lanera etorritakoetatik gehienak espainiarrak batez ere, eta portugesak ziren. Ez dakit 1993ko Konstituzioa baino lehen Andorrako herritar izateko baldintzak zein ziren, baina garbi dago etorkinen etorrera handia hastean, arriskua ikusi zutela katalan izaera eta burujabetza galtzeko eta agintariek neurriak hartu zituztela andorratarren oniritziarekin, eta 28 urte dituen lege nagusi horrek berretsi egin dituela. Nola?

Neurri bat izan da naziotasun bikoitza ez onartzearena. Andorratar naziotasuna eskuratzeko, zure aurreko naziotasuna galdu behar duzu, eta horretarako estatu handi(ago)etan kontuan hartzen diren betekizunak hartzen dira kontuan: andorratarrekiko ezkontza, bertan urte askoan bizi izana eta katalanaren ezagutza. Andorratar ez denak urte luzez bertan bizi behar du andorratar bilakatu eta eskubide politikoak lortzeko eta katalana ikasi beharra dauka. Andorran bizi arren andorratar bilakatu beharrik ez duzu, baina andorratar izan gabe eskubide politikorik ez duzu izango.

Wikipedian agertzen denez, 2015eko datuen arabera, Andorrako populazioa espainiarra (% 32), portugaldarra (% 16) eta frantziarra (% 6) da; eta andorratarrak % 38 dira. Ekonomiari dagokionez, turismoa da %80, eta horregatik eta merkataritza-harremanengatik, espainieraren eta frantsesaren erabilera handia da.

Ama-hizkuntza edo lehen hizkuntzari dagokionez, eta hizkuntza erabilienari dagokionez, hona 2005eko datuak:

Ama-hizkuntza Ohiko hizkuntza

Katalana 38,8% 58,3%

Espainiera 35,4% 37,3%

Portugesa 15% 3,5%

Frantsesa 5,4% 2,2%

Besteak 5,5% 0,5%

Urte berean, Institut d'Estudis Andorrans egindako inkestaren emaitzen arabera, %80k uste du katalana beharrezkoa dela Andorran integratzeko eta %18k uste du ezetz.

Irakaskuntzari dagokionez, ez dute eskubide politikoekin bezala egin: irakaskuntza katalanez eta kito. Hiru sistema daude: andorratarra, espainola eta frantsesa, eta sistema bakoitzean, irakaskuntzako hizkuntza ezberdina da: katalana, espainola eta frantsesa hurrenez hurren. Hona Andorrako Estatistika Sailaren datu batzuk:

Hezkuntza sistema 2004 2005 2006 2007 2008

Andorrako sistema 3.328 3.612 3.800 3.911 4.002

Espainiako sistema 3.499 3.541 3.434 3.390 3.326

Frantses sistema 3.650 3.636 3.570 3.549 3.468

Guztira ikasleak 10.470 10.789 10.804 10.850 10.796

Ikusten da gutxigatik Andorrako sistema nagusitzen doala.

2006an, Victor Alexandrek salatzen zuen Andorrari, NBEen aulkia eta bandera dituenek, estatuekin "hi bahaiz ni banauk" jokatzeari gustatzen zaiola eta estatu gabeko Katalunia bezalako nazioak gutxiesten dituela, nahiago zuela Espainiako ministroekin negoziatu katalan kontseilariekin baino. 2010etik aurrera katalanismoa asko hazi dela ere irakurria dut.

Gorago adierazi bezala, Andorrako historia bereziki linguistikoaren berri zehatzik ez dut; halarik ere, honako ondorio hau ateratu daitekeelakoan nago: kontzientzia linguistiko jakina duen nazio txiki batek har dezake immigrazioa handia bere hizkuntza eta izaera nazionala galbidean jarri gabe, baldin eta estatua edo burujabetza politikoa badu.

Gurea oso bestelako historia da eta ezin estrapolatu, tamalez, baina jakingarria iruditzen zait. Andorra estatu demokratiko bat da, eta bertako naziotasuna populazioaren %38k du, eta katalana du hizkuntza ofizial bakarra.

33. Espainiako indar faktikoengatik bereziki (2021-09-15)

Ez da Katalunia independente 2021eko Diada honetan. Hedabideetan entzuten eta irakurtzen ari gara alderdi independentistak zatituta daudela, eta katalan independentistak haserre daudela horregatik – badakigu hala dela--, baina katalanak independenteak ez badira 2021eko Diada honetan da 2012tik 2017ra katalanek autodeterminazio erreferendum demokratiko loteslearen alde osatzen jakin zuten tsunami demokratikoa indar faktiko espainolek suntsitu zutelako. Nola? Errepresio antidemokratikoa baliatuz: herritar xumeen aurkako polizia-bortizkeria fisikoa –mila lesionatu inguru--, agintari politikoen aurkako errepresio juridiko-politiko eskerga, CDR eta beste hainbat militante independentistaren aurkakoa halaber –guztira lau mila inguru, Vincent Partalek oroitarazi bezala, errepresaliatuei katalan parlamentuak eskaintako aitortzan-- bi alderdi politiko espainol nagusien babes eta bultzadarekin; enpresari espainol indartsuenen eta haiek diruz kontrolatzen dituzten hedabideen laguntza alimalearekin; eta hierarkia erlijioso katoliko espainolaren bedeinkapenarekin; erregea ororen buru zela.

Gu ere ez gara independenteak Euskal Herri penintsularrean –kontinentalean, frantses jakobinismoagatik, noski--, batez ere espainiar indar faktiko armatuen ukazioagatik. Egia da Espainiako indar armatuen aurkako borroka armatuak ez zuela garaile ateratzeko beharrezkoa zuen herri-indar aski bildu, eta alderdi abertzaleen artean –abertzaleen zakua gurean askotarikoagoa da: independentistak, federalistak, autonomistak--, arrakala ezin gaindituzkoa sortu zuela, denboran aurrera eta are handiagoa, espainiar errepresio itzel-bidegabeaz gainera, baina gurean ere aterabide demokratikoen aurkari handienak –gogora Ibarretxeren plan moderatu eta uste onekoak izan zuen errefusa eta mespretxu negargarria-- gorago aipatu ditugun indar faktiko horiexek berak izan dira, eta izaten jarraitzen dute.

Noiz lortuko dute katalanek, 2012tik 2017ra, alderdi independentista eta herritar independentisten artean lortu zuten batasuna berritotzea? Espainiako Gobernuaren eta Generalitatearen arteko elkarrizketa mahaia bertan behera geratzean?, zer paper jokatu dute ANCK eta Omniumek eta herritar subiranista-independentistek delako bi gobernuen arteko mahai hori amnistia eta autodeterminazio edukiz bete dadin, edo bestela alderdi independentistak hortik alden daitezen, denbora galtzeko baino balioko ez duelako?

Benetako etsai antidemokratikoa zein den beti garbi edukitzea garrantzitsua izan daiteke, haren amarru eta trikimailuetan ez erortzeko. Horrekin batera, katalanek euren balio eta indarretan uste osoa izatea eta Espainia ez bezalako estatu eta gizarte bat sortzeko konbentzimendua sendotzea. Zergatik ez dira

gai izanen, gauden hamarkada honetan bertan, atzera berriz indar handiagoz bigarren tsunami demokratiko katalan espainiar errepresioz suntsiezina osatzeko?

Horretan guztian, katalan hizkuntzan eta katalan herriaren historian bermaturik katalan identitatea sendotzea lagungarri handia izan liteke, ikus-entzunezkoak eta batez ere ikus-entzunezko espainiarrak gailentzen diren honetan zaila izanagatik.

Esan beharrik ez dago, guretzat ere balioko lukeela gorago esandakoak, oraingoz heldugabeago eta urrunago hautematen badugu ere. Gogoratzea komeni da 2005era arte edo, Espainiatik askatzeko bidean, euskaldunak aurreratutako sumatzen gintuztela katalanek. Orain, alderantziz da. Bihar edo etzi? Zaila bai. Ezinezkoa ez!

34. Natural-natural? (2021-10-02)

Feminismoak bultzaturiko “desnaturalizazioa” kontzeptua hizkuntzaren eta kulturaren esparrura eramanez gero, pentsatu behar omen dugu emakume edo gizon inor jaiotzen ez den bezala, euskaldun ere ez dela inor jaiotzen, euskaldun norbera egiten dela ingurune kultural eta baldintza jakin batzuetan (Itziar Nogeras: “Euskalgintzaren eta feminismoaren arteko elkarlana”, Berria, 2021-09-26).

Buruan iltzatuta gelditu zait. Nire uste xaloan, natural-natural jaio nintzen euskaldun edo jaio ninduten. Nire jaioterrian arruntena zen jaio nintzen garaian euskaldun jaiotzea. Eta natural eskuraturiko izaera euskaldun horri geruza kulturala erantsi nion, kontzienteki egindako hautuaren ondorioz. Bai, baina euskaldun jaio ote nintzen?

Lehenbizi, gurasoek, osaba-izebek –aitona-amonengandik nortasuna jasotzeko aukera handirik ez dut izan--, eta senide eta lehengusuek eta transmitituriko eta partekaturiko hizkuntzak eta kulturak egin ninduten euskaldun, eta lau urterekin eskola erdaldunean abiatu banintzen ere –egia esateko ez nuen traumarik bizi izan erdal eskolan, segur aski gehienok euskaldunak ginelako eta gure artean hala egiten genuelako--, gure egoera politiko zapalduak hartaraturik, naturalki euskaldun jarraitu nuen, laguntaldean eta abar. Gutxiren kasua izan dela hori Euskal Herrian?, bai, badakigu, baina, gutxi edo asko, ez al gara naturalki jaio euskaldun eta izaera euskaldun natural horri geure borondate kontzientez erantsi geruza kulturala, erantsi diogunok. Baina, berriro, gatozen lehenago egindako galderara? Euskaldun jaio nintzen ala familia eta gizarte baldintzek egin ninduten euskaldun hasiera baten, eta neuk osatu dut jaiotza “natural” itxurako baina, finean, kulturala den hori?

Hizkuntza bezain natural, kontzientzia dudanetik, mutil sentitu izan naiz. Testosteronagatik edo fisiologiagatik edo naturagatik mutil ikusi dut neure burua, eta ingurune hurbilak ere hartara bultzatzen ninduelako mutil jokatzen saiatu naiz. Arrebek baino muskulu gehiago nuela konturatzen nintzen, indar fisiko gehiago, eta hamabi urtez gero, neskek erakartzen ninduten fisikoki, ez mutilek. Badakit beste hainbati ez zaiela hala gertatzen eta nire modukoak bezain errespetagarriak direla. Alabaina, sexu ezaugarri ezberdinak, lehen mailakoak eta bigarrenekoak, naturalak dira, baina, esaterako, neskak ikasketa eta lanbide batzuetara bideratzea eta mutilak beste batzuetara, ez, ezta? Sexua ez bezala, generoa eraikuntza psikosoziala baita, labor esanda. Sexu ezaugarri natural ukaezinak badaude, baina generoa eraikuntza da.

Oraindik orain irakurri dut berriz Joxe Azurmendiren “Gizaberearen bakeak eta gerrak”. Honela dio hitzaurrean: “Niretzat, gizona, lehen-lehenengo, animalia bat da. Hain datu sinplea eta elementala iruditzen zait hori, ezin bait dut konprenitu, zergatik, holakorik testuinguru politikoan, edo, berdina da, teologikoan eta erlijiosoan ere, ateratzea, inori probokaziorik iruditu behar zaion” (Elkar, 1991, 13.or.).

Joxe Azurmendik hitz horiek 1975 urte inguruan idatzi zituen. Orduan, bere belaunaldiko askok uste zuten iraultza posible zela, euskal estatu sozialista posible zela; aski zela gizakiari buruzko teoria bereziki marxista on batekin, eta teoriari zegokion praxia aurrera eramatea. Iritzi orokortu horri kontrapuntu jarri nahi zion zegamarrak: kontuz, gizakia –artean, “gizona” idazten zen-- beste ezer baino lehen, aberea da, eta iraultza handi-perfektuetan sinestea baino hobea da helburu apalagoak ezartzea gizakioi, eta beti inperfektua izango den munduan, askatasuna eta justizia pittin bat lortzeko bide ez-ziurra

egiten ahalegintzea. Nik, berriz, aipu hori dakart hona aditzera emateko feminismoak ez duela gizakiaren alderdi naturala ukatzen, baizik eta genero inposizioak.

Seguru nago ezen, Euskal Herritik kanpo biziko banintz, neure ingurune natural-kultural propioetik at, laster galduko edo urardotuko nukeela neure izaera euskalduna, bestelakoak gaina hartuko lidakeelarik, eta hori berori dago esaten zirkunstantziek egiten gaituztela geure hautu propioez gainera. Era berean, baldin eta lehen mailako sexu osagaiak erauziko balizkidate, nire izaera naturala ere aldatuko litzateke, baina generoa ez, eta gainera naturak ez gaitu erabat baldintzatzen; horixe baitugu gizakiok abantaila animaliekiko, baldintzapena erabatekoa ez izatea.

Horra nola elkartu zaizkidan Joxe Azurmendiren aspaldiko idatziak eta oraintsu Itziar Nogerasi irakurritakoak, sexua-generoa eta hizkuntza-kultura kontzeptuen paralelismo iradokitzaile batez.

35. Basque Culinary Centerrek hamar urte (2021-10-05)

Gurean jan-edanaren poza eta prestatzeko artea beti izan dira garrantzi handikoak; ez al dugu merezitako fama gastronomiaren arloan munduan barena, eta garbi dago Guggenheim dena arte plastikoentzat dela BCC gastronomiarentzat. Hamar urte bete berri dituenek, gisa da zuzendariei eta elkarrizketak egitea. Hala egin dio oraindik orain Berria egunkariko kazetari Enekoitz Telleria Sarriegik BCCko zuzendari nagusi Joxe Mari Aizegari (2021-09-28). Galdera batek eta hari emandako erantzunak bildu du nire arreta:

Izenean ez, baina euskara presente dago BCCn?

Noski, gure identitatea, euskal identitatea, oso errotuta dago hemen. Komunikazioan, menuetan, afixetan... Nazioarte mailan jokatu nahi dugu, baina bertakoak gara eta bertan gaude, nahiz eta uztarketa hori ez den beti erraza izaten. Hori da gure erronka.

Komunikazioan, menuetan, afixetan, agertzen omen du euskal identitatea. Aurrez adieraziko dut: gure identitatearen parte handiena eta inportanteena, niretzat, euskara da.

Irakurle, Internet bilatzailean "Basque Culinary Center" idatzi, eta informazio guztia gaztelaniaz aterako zaizu. Klikatu eta webgunera bazoaz, gaztelaniaz agertuko zaizu aurrena. Goian ikusiko duzu beste bi hizkuntza badituzula aukeran: euskara eta ingelesa. Euskarazkoan –irakurleak, nire moduan, pentsatuko du gaztelaniatik itzulitakoa dela--, ez da garbi ikusten ikastaroak zein hizkuntzatan izango diren, euskaraz ageri baitira; alabaina, ingelesezkoa bazoaz, informazio orokorra ingelesez aurkituko duzu, baina ikastaroen izenak gaztelaniaz ageri dira. Adierazgarria, ezta? Ikastaroak gaztelaniaz dira, ez euskaraz eta ez ingelesez. Zinez Basque Culinary Center zentro espainiar bat da Gipuzkoan kokatua?

Menuetan, euskal identitatea du, ordea! Hau da, Euskal Herrian, Donostia pinpirinean prestatzen direnez gero menu eraberritzaileenak, zentroa kokaturik dagoen lurra emanen diona kontuan izanik, eta, besteak beste, gure amonen errezetak eta biltzen edo lantzen dituztenek gero, ezin bada ukatu euskal identitatea duenik zentro horrek. Menuen espiritu eta tradizio eta lanketazatik da euskalduna zentroa, ezen ez hizkuntzazatik.

Afixetan, karta, eta gainerakoetan euskara ere erabiltzen dute?, zein neurritan? Ez dakit.

Dakizuen bezala, Mondragon unibertsitatearen fundazio bat da BCC. Zaila izanagatik, jar gaitzen une batean fundazioaren nondik norako nagusiak ezarri zituzten erabakitzaileen larruan, eta demagun nazioarteko txapelketan jokatu duen erakunde gastronomiko bat sortu behar dugula. Hizkuntzari dagokionez, badakigu hizkuntza ere axola handikoa dela, zeren plater finak egiteko eskuak eta burua erabili beharra egoteaz gain, landutako plater goxoen berri emateko eta eskoletako azalpenak emateko eta hizkuntza behar-beharrezkoa baita.

Orduan, demagun, erabakitzen dugula %50 euskarari eskainiko diogula, %25 gaztelania eta frantsesari, eta gainerakoa ingelesari. Beno, niri ulergarria egingo zitzaidakeen. Eskola erdiak euskaraz, laurdena gaztelaniaz eta frantsesez, eta beste laurdena ingelesez. Horren arabera egin taldeak; kontratatu irakasleak... hizkuntza aldetik hizkuntza-banaketa itxurazkoa irudituko zitzaidakeen: errealista eta aldi

berean Donostian kokaturik egonik, euskarari dagokion lekua egitea edo, baina hala gertatzen al da egun BCCn?, eta hurrengo hamarkadarako ba al dago alde horretatik aldatzeko asmorik?

Berriako kazetariak egindako galdera orokor samarra da: aukera ematen du erantzun zehatz-zintzo bat emateko, eta aukera ematen du ihes egiteko ere, eta nire inpresioa da BCCko zuzendari nagusiak ihes egiten diola.

Ba al dago BCCn euskaraz ikasten duen talderik?, zenbat taldetan ematen dira eskolak gaztelaniaz?, zenbat ingelesez? Menuetan, afixetan, euskaraz ezer sortzen da?, gaztelaniaz sortutakoa itzuli egiten da?

Nire usteak konfirmatuz gero, gure hizkuntzari dagokionez, gauzak ezkutatzearen eta errealitatea mozorrotzearen beste erakusgarri bat gehiago da BCCko zuzendariaren erantzun hori. "Euskal identitatea? Bai noski" esan, baina ezer zehatzik argitu ez hizkuntzari dagokionez.

Ez al da Basque Culinary Center Donostian kokaturiko zentro gastronomiko bat euskara bazterturik duena, oso erabilera apalera zokoratua?

Gezurtatuko ote naute?, euskarari presentzia duina emateko asmorik ba ote dute?

36. Independentziarako bidea “alde bakarrez” hasteko proposamena (2021-10-12)

Nork proposatu du?, zein alderdi politikok?, Puigdemonten alderdiak Kataluniarako? Ez ginen batere harrituko; oso ulergarria egingo zitzaigun. Baina ez, ELA euskal sindikatuak proposatu du Euskal Herrian independentziarako bidea alde bakarrez hastea, azaroan egingo duen XV. Kongresurako txostenean (Ikus Berria-n, Ion Orzaiz-Paulo Ostolazara-ren erreportajea. 2021-10-05).

Berehala datozkit galderak: 78ko Konstituzioaren aginduz, alderdi politikoei esleituriko arloa eta eginkizuna lehiatu nahi ote die ELA sindikatuak? Alderdi politikoen gabeziak salatu nahi izan ote ditu? Bietarik?

Historia hurbilari begira, nire akorduan, Franco hil ondoko urteetan, diskurtso ideologiko-politikoak baztertu, delako iraultza nazional eta sozialaren amets urdinak errepikatzeari utzi, eta langileen patrika gizentzearen aldeko diskurtsoa eta praxia burutzen ahalegintzeagatik nabarmendu nahi zuen ELAk. Honela laburbil liteke orduko ELAren goiburua: hemengo langileak soldata eta lan-baldintza hobekak behar ditu; eta guk, sindikatu gisa, horretan jarri behar dugu gure ahaleginaren ardatza, eta ez helburu politiko handietan; horretarako daude alderdiak. Denok dakigu hori iragan zela, eta beranduenez, 1997an, Elorrietak autonomi estatutua hilda zegoela aldarrikatzean, ELAren gurari politikoa argiro aditzera eman zuela: gure lan-harremanen esparrua Euskal Herria da, eta horrenbestez, euskal errepublika independentearen premia dugu.

Handik hona, ETA desegin da, baina autonomi estatutua beti hortxe da, erabat bete gabe, eta horren erabateko betetzeak, Espainiako gobernuarekiko nolabaiteko bitarikotasunaz gainera, EAJren xede nagusi izaten jarraitzen duela; eta hara non agertzen zaigun orain ELA, ez bakarrik baina bereziki Puigdemonten jokabide politikoarekin identifikatzen dugun alde bakarreko independentziarako bidea aldarrikatzen.

Autonomi estatutuarekin zer gertatu den jakinik, aldarri horrek ere antzeko patua ez ote duen izango etortzen zait lehenbizi burura; bestalde, atsegina gertatzen zait aldarrikapena. Gurean, ez dugu, tamalez, ANC bezalako erakunde indartsurik, indar abertzaleak euskal errepublika sortzearen batu eta biderei ekin diezaioten bultzada emateko, eta halakorik ezean, 100.000 afiliatu inguru omen dituen sindikatuak hartu nahi luke eragile papera.

ELAk alderdi abertzaleei egindako kritika, zorrotza bezain sinesgarria da. Honelatsu dio: bozetan arrakasta izan arren, indar abertzaleetan aldaketa ideologiko eta programatikoak gertatzen ari dira. Aldaketa handienak “agintean den nazionalismoan” sumatzen ditu ELAk; EAJrentzat autonomismoa da gaurkoz hipotesi politiko bideragarri bakarra, eta autonomismoa eta neoliberalismoa txanpon beraren bi aldeak dira.

Ezkerreko indarrei, berriz, nazio eta klase auzian, 2017ko irailean ELAk eta LABek sinatutako Alde bakarreko prozesu subiranista sozial baten alde izeneko agirian zehaztutako eskarrietatik urruntzea leporatzen die; zehazki, Uxue Barkosen gobernu osatzeko ituna, Maria Txibiteren gobernuari egonkortasuna emateko akordioa, Eusko Jaurlaritzari aurrekontuak adosteko egindako proposamenak

eta Madrilen Pedro Sanchezen aurrekontuei eta Europako Funtsen Errege Dekretuari emandako babesak, besteak beste.

Eusko Ikaskuntza ez da Omnium Cultural; "Gure esku dago" ere ez ANC; eta hemengo alderdi abertzaleak ere ez Kataluniako alderdi independentistak, eta horrenbestez, alde batetik, gure egoera soziopolitiko anormalaren erakusgarri da ELAren aldarri hori, eta, bestetik, ELA bera ere horren oso jakitun da, hots, gaur-gaurkoz ez dagoela gehiengo instituzional nahikorik estatus politiko berri bat lortzeko, aski indar ez dagoela estatuarekin hausteko, ez eta gure aitortza nazionala iristearren negoziatio politiko bat lortzeko ere, eta hortik aldebakartasuna aldarrikatzea, atxikimendu zabalagoa lortze aldera eta beste eragile batzuen posizioa mugiarazteko. Ildo horretatik, diote, alde bakarreko prozesu subiranista sozial batek klaseko bektorea, euskararena, bektore feminista, ekologista, dekoloniala...bilaka ditzakeela indarrak metatzeko funtsezko bektore.

Zer deritzozue? Eszeptiko uzten zaituzte?, bektore horien aktibazioarekin, aldebakartasunak izan lezake ibilbiderik epe ertainean? Indar abertzaleen batasun eta herritarron aktibaziorako presio moduan balio ote lezake?

37. Komunikazioaren eta transmisioaren garrantzia (2021-10-20)

Altsasun, 1936an, gehienak errepublikazaleak ziren; egon ziren, baina, falangean sartu zirenak ere. Alberto Barandiaran Amillano kazetari altsasuarrari amaginarrebak beraren anaia zaharrenarena izandako libreta bat eman zion; falangistekin gerra eginik Lemoaitzen hil zuten Luis Fernandez Arregirena zen. Falangista horren gerra-kronika da, batetik, berriki Susa argialetxearekin plazaratutako "Gurea falangista zen" liburua; baina hori baino gehiago ere bada, liburu horren azken kapituluan: aitortza ausart bezain eskergarria. Oso bakan gertatu dira horrelako aitortzak; milatik bederatziehun eta laurogeita hemeretzi tan isildu egin baitira. Zer aitortu du, ba? Kazetariaren Pablo Amillano aitona falangista Altsasuko herritarren kontrako epaiketetan deklaratzeko aritu zela, eta haren deklarazioak erabakigarri gertatu zirela zigor larriak ezartzeko.

Familian orain arte inork ez omen du jakin. Lehengusu zaharrenek esaten omen zuten aitona "Francoren aldekoa" zela, baina besterik ez zietela azaldu etxean. Lehengusuren batek inoiz aipatua omen zuen Falangeren aldekoa zela aitona, baina "Falangeko inozoena", ez zuelako inoiz erabili bere posizioa aberasteko edo karguren bat lortzeko. "Ondradua izan zen, muturreraino ondradua".

Beno, bada, ez! Ricardo Urrizola Uhalde ikerlariak "Consejo de guerra: injusticia militar en Navarra (1936-40)" liburua argitaratu zuen 2017an, eta horretarako Errepublikaren alde aritutako ehunka pertsonaren aurkako gerra-kontseiluen dokumentazioa arakatu zuen, milaka orritako dokumentazioa. Zentratu zen lekuko, abokatu, fiskal eta epaileen babesarekin burutu zen errepublikazaleen aurkako errepresioan, eta hortik iritsi da jakitera Barandiaran lekukotasun erabakigarriak eman zituela bere aitona hogeitaka altsasuaren aurka, eta beste lekukotasun batzuekin batera haiek axola handikoak izan zirela herrikide errepublikazaleak injustuki zigortuak izateko.

Baina gauza bat da jakitera heltzea, eta bestea kontatzea, gorago esan dugun bezala. Eta hori ez da guztia. Zenbateraino zabalduko dira bi liburuok; bata, Ricardo Urrizola Uhalderena, eta bestea Alberto Barandiaran Amillanorena? Ikastetxeetan ez; argialetxeetan lan itzela egiten ez badute, oso zaila da. Batez ere, gazteengana heltzea. Sare sozial, plataforma digital, mugikor, eta tableten aro honetan, ikaragarri zaila da. Eta aldi berean, zein axola handikoa den; are gehiago, gurea bezalako herri baten, burujabe ez izaki.

Oraindik orain argitaratu den liburu horrek duela urte mordoxka irakurritako beste bat ekarri dit gogora: Iñaki Irasizabalen "Burua txoriz beterik" (Elkar, 2004). Alde batera, oso ezberdina da. Alberto Barandiaranen liburuan, gerraren atzeguardian egindako izugarrikeriak eta haien isiltzeak; Irasizabalen liburuan, aldiz, etxe barruko kontuak. Aita eta semearen arteko inkomunikazio arazoak; protagonistaren alaben eta senarren artekoak, hainbat gorabehera tarteko; eta, komunikazio kaskarraren ondoriozko banaketa mingarriak; eta, halere, badute zerbait amankomunean. Zer? Isiltasun eta komunikazio falta, barruko gauzak hurbilenekei ez transmititzea.

"Burua txoriz beterik" liburuko protagonista semearekin bizi den gizon alargun bat da. Senar-emazteek hiru ume izan zituzten: bi alaba eta semea. Banatu egin ziren, eta banatu ondotik, istripuz hil zen emaztea. Semearekin bizi da. Bi alabak ezkonduak eta familiatuak dira, eta era berean, bananduak.

Protagonistak ez daki ezer berarekin bizi den semeaz; ez dute komunikaziorik; eta zer da-eta, ustekabea, bere buruaz beste egiten du semeak. Hainbeste banaketa eta arrakala nolabait josteko amaiera oso bitxia du nobela laburra, baina ez naiz espoilerra izango. Inkomunikazioa du ardatz. Idazlea ez da inkomunikazioaren arrazoieta enplegatzen; bakarrik erakutsi egiten ditu ondorioak.

Nobelatik egunerokora etorri, guraso garenok badakigu zenbat kostatzen den seme-alabekin harremanak izatea. Haiek beren munduan bizi ohi dira eta gu geurean; seme-alabak errealitate digital-birtualean askoz barneratuago eta haien menpekoago; eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak betiere zailak izan badira, arrakala teknologiko-digitalarekin ez dira ez errazagoak!

Nola hobetu komunikazioa eta transmisioa? Kontua ez da errua eskolari botatzea, edo lagun-taldeari. Hezkuntza-sistemak dagoen bezala, ez duela aukera handirik uzten, esango dizute, eta arrazoi pixka bat izango dute. Curriculuma ezartzean, estatuaren aldetik mugatua egoteak ez du lagunduko; hala eta guztiz ere, ikastetxeek ez al dezakete gehiago egin?

Familian –jakitun naiz era askotako familia unitateak daudela egun--, komunikazioa eta transmisioa zailak badira, ez da errazagoa belaunaldien arteko transmisio pertsonal eta politiko-kulturala. Izango al dute Ricardo Urrizola Uhalderen “Consejo de guerra: injusticia militar en Navarra (1936-40)” liburuak, eta Alberto Barandiaran Amillanoren “Gurea falangista zen”-ek merezi duten zabalkundea? Gomendatuak dizkizuet.

38. Espainolak izateari utzi dioten katalanak (2021-10-29)

Josep Costa eivissarra da horietako bat, Kataluniako Parlamentuko lehendakariorde izandakoa. Urriaren 27an atxilotu zuten Kataluniako Auzitegi Nagusiari men ez egiteagatik; hango magistratu Alegret andreak mossoei agindua eman zien Costa auzitegi horretako kalabozora eramateko, eta Costak txiokatu zuen ez zuela auzitegi horren autoritatea onartzen Kataluniako parlamentuaren ezein erabaki epaitzeko. Alegretrek Costaren aurkako ikerketa desobedientziagatik abiarazi zuen, hark Kataluniako Parlamentuko lehendakariorde gisa, 2019ko azaroan, autodeterminazioaren alde eta monarkia gaitzesteko onartutako akordioak tramitatzeagatik. Beste batzuek ere deklaratzera joateko deiak jaso zituzten eta joan ziren, baina bera ez. Desobedientzia kolektiboagoa espero zuen berak, herri desobedientzia. Goiza kalabozoan igaro zuen, eta arratsaldean kalean zen; hoge minutuko deklarazioa egin eta magistratuaren aurka kereila jarrita atera zen, ilegalki atxilotzeagatik.

Gertakari errepresibo judizial hori dela eta, Vilaweb-eko zuzendari Vincent Partalek editorial batean idatzi du berriki, gaur egun izan zaitezkeela eivissarra eta gutxiago edo gehiago espainola, baina aldi berean eivissarra eta katalana ez. Zer esan nahi du horrekin?

Printzerrian, Katalunian, hautu politiko arrazionala eginda, gaur egun izan zaitezke independentista, nahiz eta sentimentalki edo erreferentzia nagusiei doakienez, hizkuntza eta gainerako, espainola izan. Jakina, independentista asko dago Printzerrian katalana soilik sentitzen dena, eta hautu horrekin kontsekuente, espainol ez izaten ahalegintzen dena, baina halakoak ez bezala, eta Printzerriko katalana ez izanik, Partal bezala valentziar katalana izanez gero, edo Costa bezala balear uhartetar katalana, garbiago gelditzen omen da katalan izatearen eta espainol izatearen arteko leizea edo bateraezintasuna. Zer-pentsa ematen duen gaia da, ezta?, seguru nafar eta iparraldeko batzuek islaturik dakusatela euren burua!

Jende gehienari, seguru asko, ez zaio asko axola(ko), ez Katalunian eta ez gurean, identitate espainol eta katalan edo euskaldunaren arteko talka; ez da horretaz kontziente(egi), beharbada, eta lasai asko murgiltzen da eskura dituen erreferentzia espainoletan; eta, ondorioz, gero eta asimilatuago dago, nahiz eta, menturaz, oso kontziente ez izan. Lagunak erdaldunak edo erdaraz dihardutenak; lankideak beste horrenbeste; gustu literarioak edo irakurtzeko ohiturak espainolak; ikus-entzunezkoen kontsumoa erabat edo gehienbat espainola –aukera ere askoz zabalagoa--...

Begi-bistakoa da egungo egoera soziokulturalean askoz errazago dela espainola izatea katalana edo euskalduna izatea baino. Kontua da errenditu nahi ez dugunok zertan egin behar dugun gogor, edo erresistentzia, eta horretan katalanei begira jartzea, ez zait alferrikakoa iruditzen; aitzitik, onuragarria.

Han, duela 4 urteko indar-erakustaldi nazionalaren ondore suspergarriak ez dira oraindik itzali. Bai, iritzi politikoak bereizi dabilta alderdi independentisten artean; ERCK nazioarteko komunitateak onartu eta behaturiko autodeterminazio erreferendum loteslea lortu nahi du, eta horretarako Espainiako gobernuarekin elkarrizketa-mahaiari dago, eta Junts eta CUP eszeptiko dira elkarrizketa-mahai horrekin eta alde bakarreko bidea ikusten dute irtenbide bakar, eta ildo horretan, Errepublikaren Kontseilurako hautetsiak aukeratzeko bozketa elektronikoa egingo da urriaren azken hiru egunetan; bozketa hori izena eman dutenen artean, zerrenda irekiak dituztela, eta 81 independente eta 40 kargudunen artean hautatu ahal izango dutelarik. Horrek mentalitate aldaketa ekarriko du dudarik gabe.

Baina iritzi ezberdinak gorabehera, oraindik ez da itzali 2017ko urriaren 1eko erreferendumaren eta hil hartan gertatutakoaren eragina, eta badaude valentziarrak eta baleartarrak gero eta arbuio edo desatxikimendu handiagoa sentitzen dutenak espainol izatearekiko, eta, ez politikoki bakarrik, baizik eta erraietatik, norberaren izaera osoari dagokiola.

Hizkuntzara etorrita, funtsezko gaietako bat da katalanentzat; han ere kezkatuak dabilta hizkuntza katalanaren egoeratik; Herrialde Katalanetan %32k erabiltzen dute katalana ohiz, eta gainerako gehienek gaztelania. Halaber, kezkatuta daude gazteen katalanaren erabilera jaitsi egin delako.

Gu, esan beharrik ez, okerrago gaude, eta badirudi ez gaudela kezkatuago –instituzioak eta alderdi politikoak ez-- eta, bistan dago katalanek ez gaituztela euskaldunago egingo, baina ona da hara begiratzea –han ez dute borroka armatuaren “hipotekarik”. Terra Lliurek ez zuen inor hil!--. Ausardia dute epaile espainolei desobeditzeko, haien autoritaterik ez onartzeko, eta Errepublikaren Kontseilu nazionala hautatzekotan dira: bi hitzetan, politikoki eta linguistikoki beren burua sendotzeko.

Behera etorriak gabiltzan honetan, haize freskoa ematen digute eta espainolak izateari uzteko gonbita ere egiten digute, norberaren izaera osoa inplikaturik, adimena bezala sentimendua.

39. Egunkaria. Gizarte zibilaren arrakasta. Joan Mari Torrealдай Nabea (2021-11-26)

Adinean aurrera goazeno, besteak beste, gure hautu kultural eta politikoei errepassoa emateko aukera bikaina eskaintzen digu Torrealdairen liburu postumo honek; gazteago direnei, berriz, historia hurbilaren berri gehiago izateko, eta egungo egoera politiko-kulturala hobeki ulertzeko gako batzuk.

Frankismo luzean, euskalgintza guztia zen estatu botereetatik independentea Euskal Herri penintsularrean, baina 1978ko Konstituzioaren eta 1979ko autonomi estatutuaren onarpenaren ondoko erakundetze garaian, euskalgintza bitan banatu zen, eta Torrealдай eta Azurmendi eta beste askoren iritzian, erakundetze horrek errespetu gutxi erakutsi zuen frankismo garaiko euskalgintza merezimendu handikoarekiko, eta arrakalak sortu zituen. Eta arrakalak gehiago zabaldu ziren Ajuriaeneko ituna sinatu zutenean 1988ko urtarrilean.

Pantxoa eta Peio kantariekin ikasi eta kantatu genuen Telesforo Monzonen lelo “abertzale izan ezkeror gaur, gauden denok anai” hura, guztiz higatu zen, eta abertzale/espainolista dikotomiatik demokrata/biolentora igaro ginen. Demokrata izateak ez zuen esan nahi Espainiako estatua onartzea eta autonomiarekin etsitzea –hori orain garbiago dakusagu--, baizik eta politikoki errealista izatea eta etiko-moralki zintzoa, eta demokrata ez bazinen, HBkoa zinen edo ingurukoa, eta ETaren aldekoa hortxe nonbait; eta, beraz, onenean, erromantiko txoro bat eta moralki guztiz gaiztoa. Eta erdian egotea ia ezinezko bilakatu zen, ekimen kulturaletan ere.

Politikari eta hedabide indartsuenen mantra horrek guztiz mendean ez hartzeko Joan Mari Torrealdairei Joxe Azurmendik ireki zizkion begiak (eta beste askori, neuri barne):

euskal gizartea bi frontetan polarizatua dago. Franco-ren ondorengo historia errepassatzen bada, niretzat PSOEn, konkretuago Jauregui-ren, sekulako exitoa kontsideratu behar da hori (eta azken urteotako daturik inportanteena politikan): Euskadiko gizartean halako eboluzioa eragitea, kontraesan politiko nagusia bizitza publikoan abertzaletasunarena izatetik, orain demokratismoarena izatera. (Abertzaletasuna bera lau alderditan laurkituta dagoela, gainera, eta lau sektak herio-suharki elkarri kontrajarrira.) Horrela nazio-arazoa praktikan bigarrentiarra da “abertzale”entzat berentzat: indar politikoak polarizatzen, edo elkartzen/kontrajartzen dituen, “demokrazia” da. “Marxista” batzuen kontra lehenago “abertzale”ok sutsu ahalegindu ginen, nazio-arazoa ez zegoela klase-borrokaren planteamenduari subordinatzerik. Erakundetxo kultural eta politikoetan, ikastoletan, ETA-n bertan, borroka gogorra izan zen. Begira, bada, subordinatuta dago.

(b) Ez askatasunagatik. Bakeagatik. Bakea absolutu bihurtu da. (...)

(“Abertzalea” deritzon mugimendu baten balio-sisteman, egon ote daiteke bakea askatasuna baino lehenago? Zein modutako logikarekin? (55 or.)

Kontu horiek aspaldikoak bezala ematen dute, baina kondenamania ez, egun ere bizirik baitago, politikoki oso etekintsua gertatzen ari baita. Isilik gelditzea, konplize izatea:

Nire tesia oso sinplea da: bortxaren kondena esijitzea ez da demokratikoa, eta hori esijitzen ari direnak ez dira demokratak, mentalitate inskisorial fanatizatuak baizik. (Dela amorru politikoagatik, galdatzailearen olde fundamentalistagatik, edo jarrera erlijioso-moral legitimo baten zabalkunde faltsuagatik esijentzia publikotara). (...)

Euskal independentziaren kontrakotasuna, bortxa erabiliz bada ere (Konst., 8.art.), morala da, demokratikoa da eta konstituzionala da. Alderantziz, Euskal independentzia eta sozialismoaren alde egotea, batez ere bortxaz baldin bada, baina ez orduan bakarrik, ez da razionala (XIX. mendeko erromantizismoa), ez da morala (herrien arteko solidaritatearen aurka dihoa, etab., edo eskluientea da, etc.), antidemokratikoa da (nazionalismoa eta demokrazia elkartezinak omen dira), eta antikonstituzionala ere bai apika, azken helburuetan behintzat (...) (60-61orr.).

Testuinguru politiko hori gabe ezin ulertu "Egunkariak" 1990etik 1994ra izan zituen arazoak Eusko Jurlaritzaren Kultura Sailarekin lehen hitzarmena adosteko. HBk ez zuen Ajuriaeneko ituna sinatu, eta ez-demokrata bihurtu zuten. Botere autonomikoari uko egin eta herri mugimenduetatik aritzea erabaki zuten. Eta horregatik "Egunkaria" aurrera atera nahi zutenek ere herri mugimenduen joko-zelaian jokatzeko zuten, instituzioei erraza gertatu zitzaiezen euskalgintza ezker abertzalean "urtu" zela sinetsaraztea, politikak kulturak baino erresonantzia-kaxa indartsuagoak dituelako. Baina, benetan, ezker abertzalea erabat engaiatu al zen "Egunkaria"-n? Hona Torrealdairen hitzak:

Nire uste apalean, erakunde autonomikoei uko eginez [HB], uko egin zioten, halaber, hizkuntza politika bizkorrago eta erabakigarriago bat indarrean jartzeari, esaterako. Esan izan nien gurekin pankartan baino nahiago nituela aginte-bulegoan ikusi gurekin batera egitasmoak sustatzen eta elikatzen. Diruz, baina ez diruz bakarrik. Iruditzen zait huts egin digun "konplizitatea" hizkuntza alorrean lortu ahal izango genukeela (59 or.)

Liburuaren muin batera etorri --bestea, dudarik gabe, denok dakiguna da: guardia zibilen txosten lotsagarriak eta haien sinestamendu-emaile Del Olmo epailearen jokabidea, torturak, epaiketa eta Egunkariarekin egindako bidegabekeria alimalekoa--, hots, Jurlaritzaren eta Egunkariaren ordezkarien arteko bilera tirabiratsuetara, oinarrian bi helburu aski kontrajarriak zeudenez: Egunkariaren nahia botere publiko eta alderdiekiko independentzia begiratu diru-iturria bermatzekoa; eta, aldiz, Jurlaritzarena, diru-ordainetan Egunkaria kontrolatzekoa, Ajuriaenekoaren gorpilera eramatekoa; gailurra laugarren kapituluaren harrapatzen du liburuak, Joseba Arregiren deskargua Ardanza lehendakariari ardatz duela. Ikusi baduzue Borgen telesail daniarra, berehala esango duzue zeuen artean: horra euskal Borgen, maila ttipian!

Liburua amaiturik, Torrealdairekin esan dezakegu Egunkaria gizarte zibilaren arrakasta izan dela, baina astelehenetan ez da ateratzen, eta prentsari dagokionez, oro har, euskaldunok ez daukagu harrotzeko moduko panoramarik, beste hainbat arlotan ez daukagun bezala, baina horren errudun ez da Egunkaria eta liburu hau ere ez.

40. Euskaldunak garelako euskaraz, ala euskaraz ari garelako euskaldun? (2021-12-)

Vincent Partal katalan valentziarrari ostu diot izenburuko pentsamendu bikain hori. Berak vilawebeko editorial batean dio, gutxi gorabehera, bera katalanez entzun, mintzatu, irakurri eta idazten duen neurrian dela katalana eta komunitate bezala horixe baino ez dutela beste herrietatik berezirik munduari eskaintzeko, katalan bakoitzak bere aldetik munduari eskain diezaiokeenaz gainera, eta horrexegatik esan dezakeela katalan valentziarra dela.

Hausnarketa hori bere barrutik azalera ekarrarazi diona berriki Kataluniako Auzitegi Nagusiak Kataluniako ikastetxeetarako hartu duen erabakia izan da, hots, gogoraraztea eta agintzea irakastorduen %25 gazteleraz ematera derrigortua dagoela Kataluniako Generalitatea, eta halaber kritikaz oraindainokoa gutxieneko kopuru hori betetzeko neurririk hartu ez izana.

Kataluniako Auzitegi Nagusia, EAEkoa edo Nafarroakoa bezala, Espainiako sistema judizialaren parte denez, badakigu Espainiako 78ko Konstituzioa betetzera eta betearaztera behartua dagoela; horrek ez gaitu batere harritzen; baina gertaera horrek beste galdera bat sorrazten dit: nor jarri du salaketa auzitegian? Bada, kasu honetan Mariano Rajoyk, Espainiako gobernuburu zenean; hark salatu zuen Generalitateak ez zuela bermatzen gaztelaniaren erabilera komunikazio hizkuntza gisa, eta hortik etorri da epaia.

Espainiako gobernuak kezkatu bide dago Katalunian gaztelaniaren ezagutza eta erabilera bermatzen ez direla eta. Katalanak ere kezkatu daude katalanaren erabilera behera doalako ikastetxeetan -- batxilergoan, esaterako, irakasleen %47 gazteleraz mintzo omen zaizkie ikasleei--; politikariak baino gehiago Plataforma per la Llengua eta Omnium Cultural bezalako entitateak. Jakina denez, ERCK ikus-entzunezkoen legearen tramitazioan %6ko kuota sartzea lortu du estatuko hizkuntza koofizialentzat -- gure ordezkariak ere babestu dute--. %6a hasteko zerbait bada; nahikoa inondik ere ez, eta gainera Netflix, HBO Max eta Amazon prime ez omen ditu barne hartuko, egoitza Espainiatik kanpo dutelako; soilik Filmin edo Movistar+ bezalakoak. Horrekin asebeteta gelditzen badira, zer eskertu ez dugu izango.

Gurean, Eusko Jaurlaritza kezkatu al dago haur eta gazteek euskara oso gutxi erabiltzen dutelako EAEko ikastetxeetan, azken azterlanen arabera? edota NFEkoetan, Nafarroako gobernuak? Badakigu erantzuna ezezkoa dela.

Espainiako CISek (Ikerketa Soziologikoen Zentroa) hedabide batzuen irakurle eta entzule datuak bildu ditu, eta datu-bilketa irizpide bakartzat harturik, Eusko Jaurlaritzak 5.000.000 euro onartu berri ditu honako hedabide hauek pandemiak sortutako galerei aurre egin diezaieten: El Correo-k 1.608.716 euro, Diario Vasco-k 747.535, Deiak 558.126, SER-ek 520.244, Gara-k 305.580, eta Berria-k 290.427 euro jasoko dituzte. Erdarazkoek jasoko dituzte ia sos guztiak; hemen ez da mendeetako zapalkuntza eta asimilazio linguistikorik egon, eta neoliberalismo linguistikoa aplikatu beharra dago. Irakurleen edo entzuleen hizkuntza-ohiturak alda daitezkeen aztertzeko azterlanik ez; diskriminazio positiborik ez euskararen alderako.

Pandemiak instituzio eta gizarte zibil antolatutik datozen ekimen batzuk galarazi ditu, kasu, Euskaraldia. Borondatean eragitea dute helburu jarduera horiek guztiek. Borondate onenez, borondatean eragitea xede. Gizarte zibil antolatuari ahalegin eta meriturik ukatu gabe, nago instituzioak lasai gelditzeko eta lege aldetik aurrerapausorik ez emateko ere balio dutela, eta, autokonplazentziazko adierazpen harropuztuak egiteko. Ikusiko duzue abenduaren 3ko adierazpen instituzionaletan: arrazoia emango didazue.

Euskararen Nazioarteko Eguna gainean dugun honetan, Vincent Partalekin batera arreta pixka bat jar diezaiogun urregorritzko pentsamendu honi: ez dugu euskaraz entzuten, hitz egiten, irakurtzen edo idazten euskaldunak garelako baizik eta euskaraz aditzen, mintzatzen, leitzen eta izkiriitzen dugulako gara euskaldunak, eta horixe da besteetatik berezirik munduari eskain diezaiokeguna, euskaldun bakoitzak bere aldetik eskain diezaiokeenaz gainera. Denok ere horren arabera jokatu bagenu, beste kuku batek joko liguke!

Euskarari 365 egun eta bisurteetan 366!